

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

OBRA-KONTRATUA

Prozedura irekia next generation finantzaketarekin

Espediente zk.:

Objektua:

**Xxxxxx Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana - Europar
Batasunak finantzatua – NextGenerationEU**

Edukia:

Kontratuaren klausula espezifikoak.

Baldintza orokorrak.

Eranskinak.

AURKIBIDEA

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK	5
I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK	5
1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA	5
2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK	5
3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA	5
4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	6
5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK	6
6.- BETERAZTEKO EPEA	7
7.- PUBLIZITATE-GASTUAK	7
8.- BERMEAK	7
9.- ASEGURUAK	7
10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA	8
11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK	8
12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOETAKO BESTE BETEBEHAR BATZUK	8
13.- ZIGORRAK	10
14.- AZPIKONTRATAZIOA	10
15.- HARRERA, BERME-EPEA ETA AZKEN ZIURTAGIRIA ONARTZEKO EPEA	10
16.- KONTRATUA ALDATZEA	10
17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK	11
18.- KONTRATUAREN OBJEKTU DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK.	11
II.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK	12
19.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK	12
20.- IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA	12
21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA, ETA BALIABIDEAK ADSKRIBATZEA	13
22.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK	14
23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK	14
24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA	14
25.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK	15
26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK	16
III.- BESTE ZEHATZAPEN BATZUK	17
27.- KONTRATUA LAGATZEA.	17
28.- GIZARTEKO, INGURUMENEN ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTAKO BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEN INGURUKO ALDERDIEN JARRAIPENA EGITEKO KOADROA	17
29.- EXEKUZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA	17
BALDINTZA OROKORRAK	18
I.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA ALDERDI OROKORRAK	18
1.-KONTRATUAREN OBJEKTUA	18
2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK	18
3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA	18
4.- HAINBAT ARLOTAKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LANEKO BALDINTZAK, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNA DAUKATEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNA DAUKATEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO ZEHATZ BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA, DATUEN BABESA ETA LEHIAREN DEFENTSA	19
5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIKO IZAPIDETZEA ETA BALIO ZENBATETSIA	20
6.- KONTRATUAREN PREZIOA	20
7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA	20
8.- BETEARAZTEKO EPEA	21
9.- BERMEAK	21
10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK	21
II.- LIZITAZIOA	24
11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK	24
12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA	25

13.- A GUTUN-AZALA: «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA»	27
III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA	31
14.- ESKAINTZAK EZ ONARTZEKO ARRAZOIAK, ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA	31
15.- AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA	31
16.- BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA	32
17.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA	33
18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA	33
19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.	34
IV.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA	35
20.- ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA	35
21.- ADJUDIKATU AURREKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA	35
22.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA	37
23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA	37
V.- KONTRATUA BETEARAZTEA	39
24.- OBRA-ZUZENDARITZA ETA OBRA-ORDEZKARIA	39
25.- LANAK HASTE, ZUINKETA EGIAZTATZEA ETA SEGURTASUN- ETA OSASUN-PLANA	39
26.- LAN-PROGRAMA	40
27.- ASEGURUA	41
28.- BETEARAZTEARI ADSKRIBATU BEHARREKO BALIABIDEAK	42
29.- BETEBEHARRAK LANAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN, LANEKO SEGURTASUNAREN, OSASUNAREN eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren arloan	43
30.- KONTRATUA BETEARAZTEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE KLAUSULA BATZUK	45
31.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK	47
32.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA	49
33.- ZIGORRAK	53
34.- PREZIOAREN ORDAINKETA	54
35.- KONTRATUA ALDATZEA	55
36.- AZPIKONTRATAZIOA	58
37.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEEA OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA	59
VI.- KONTRATUA AZKENTZEA	62
38.- BETETZEA: HARRERA, OBREN AZKEN ZIURTAGIRIA, BERME-EPEA, LIKIDAZIOA ETA BERMEA ITZULTZEA	62
39.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA	65
VII.- GORABEHERAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA	66
40.- GORABEHERAK	66
41.- EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA	66
VIII.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO SEMaren FUNTSAK	67
42.- Baldintza orokorrak	67
ERANSKINAK	69
LABURPEN-KOADROA	69
I.1 ERANSKINA.- FORMULA MATEMATIKO(AR)EN SIMULAZIOA	71
II.O ERANSKINA.- DATU PERTSONALAK	72
II.1 ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)	73
II.2 ERANSKINA.- BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA	87
II.3 ERANSKINA.- ESKAINTZAN BILDUTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA	89
II.4 ERANSKINA.- ABEEa FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA	90
II.5 ERANSKINA.- KONTRATUAREN OBJEKTU DEN JARDUERA EGINGO DUTEN PERTSONEI DAGOKIENEZ HARTUTAKO KONPROMISOEN DEKLARAZIOA	91
II.6 ERANSKINA.- ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK-	92
II.7 ERANSKINA.- ESKAINTZA / ESKAINTZA INTEGRATZAILEA ZEIN SORTATARAKO AURKEZTEN DUEN: SORTA-KONBINAZIOA	93
II.8. ERANSKINA.- ZERBITZARIEN AZPIKONTRATAZIOARI BURUZKO ADIERAZPENA	94
II.9 ERANSKINA.- BERDINTASUN-PLANA, ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN PREBENTZIOAREN ARLOKO ARAU-HAUSTE ASTUNA EGITEAGATIK EZARRITAKO ZEHAPEN IRMOAK EDO EGINDAKO DELITUAK	95
II.10 ERANSKINA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK	96
III.1 ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOA	97
V.O ERANSKINA.- BENETAKO TITULARTASUNAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA	98

V.1 ERANSKINA.- KONTRATUAREN BETEARAZPEN OSOAN ESKURA IZATEA BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENA ETA BALIABIDEAK _____	100
V.2 ERANSKINA.- SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA _____	101
V.3 ERANSKINA.- BANKU-ABALAREN EREDUA _____	102
V.4 ERANSKINA.- KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA _____	104
V.5. ERANSKINA.- INTERES GATAZKARIK EZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA) _____	106
V.6. ERANSKINA.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN (SEEP) EZARRITAKO ZEHARKAKO PRINTZPIOAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA _____	108
V.7. ERANSKINA.- INGURUMENARI KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (DNSH PRINTZPIOA) _____	109
V.8 ERANSKINA.- IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKA ONARTU ETA EZAGUTZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA _____	111
V.9 ERANSKINA.- FINANTZAKETA BIKOITZIK EZ DAGOELA EGIAZTATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA _____	112
VI. ERANSKINA.- ZERBITZARIEN ETA HORIEI LOTUTAKO ZERBITZUEN KOKAPENARI BURUZKO ADIERAZPENA _____	114
VI.BIS ERANSKINA.- AZPIKONTRATAZIOA KOMUNIKATZEA _____	115
VII.1 ERANSKINA.- DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA _____	116
VII.2 ERANSKINA.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ENKARGUA _____	118
VII.3. ERANSKINA.- DATUEN TRATAMENDU ETA LAGAPENERAKO ADIERAZPENAREN EREDUA, SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (STEP) JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKIONEZ _____	121

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

1.1.- Definizioa:

1.2.- Sortakako zatiketa: (bai/ez).

1.2.1.- Sota kopurua:

1.2.2.- Sota bakoitzaren objektua:

1.2.3.- Sota bakoitza kontratu bat da: (bai/ez/bai, eskaintza integratzaileen kasuan izan ezik).

1.3.- CPV kodea:

Objektua	Kode nagusia	Kode osagarria
Nagusia		
Gehigarria		

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 2. klausulan azaltzen direnak eta honako hauek:

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaeurokoa da, % ...(e)ko BEZa barne dela, eta honako urteko ordainketa honi/hauei egotziko zaio/zaie:

- urtea: euro.
- urtea: euro.

Guztizko zenbatekoa honen arabera dago banakatuta sorta bakoitzeko:

Kalkulatzeko kontuan hartu diren kostu eta gastuak **proiektuan** azaltzen dira.

Proiektuan aplikatutako gastu orokorren ehunekoa botere adjudikatzailerak aurretiaz zehazten du.

3.2.- Aurrekontu-aplikazioa:

3.3.- Aurretiko izapidetzea: (ez/bai).

3.4.- Gastua kofinantzatuta dago: (ez/bai).

Entitate finantzatzailea	Ehunekoa

3.5.- Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren bidez finantzatuko da kontratua:

OSAGAIA	
INBERTSIOA/ERREFORMA	
CID MUGARRIA ETA HELBURUA	
ETIKETATZE KLIMATIKOA	
ETIKETATZE DIGITALA	

FINANTZAKETAREN EHUNEKOA

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

4.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia.....eurokoa da.

4.2.- Kalkuluaren metodoa:

Lizitazioaren aurrekontua (BEZik gabe)	
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe)	
Lizitatzaileri ordaindu beharreko sarien edo primen zenbatekoa (BEZik gabe)	
Aukeren zenbatekoa (BEZik gabe)	
Kontratazio-organoak kontratistaren esku jarritako beharrezko horniduren balio zenbatetsia, guztira	
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK

5.1.- Prezioa zehazteko sistema: unitate-prezioak/honenbesteko prezioa.

(Unitate-prezioak).

- ☐ Obrak egin bitartean, hautatutako eskaintza onartzean ateratzen diren prezioak izango dira aplikatuko diren unitate-prezioak.
- ☐ Obrak egin bitartean indarrean egongo diren prezioak ateratzeko, adjudikazio-koefizientea (hautatutako eskaintzaren aurrekontuaren eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren arteko erlazioa) aplikatuko zaio prezio bakoitzari, obra-ziurtagirietan kobratu beharreko kopuruak ezartzeko modu gisa.

(Honenbesteko prezioan).

Sistema honetatik baztertzen diren unitate edo zati batzuk ezartzen dira: (ez/bai, honako hauek):

Oinarritzko proiektuaren gutxieneko edukia:

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZik gabe), hau da, **euroko** aurrekontua gaingitzen duten eskaintzak ez dira onartuko.

Halaber, unitate-prezioak eta, hala badagokio, proiektuan agertzen diren honenbesteko finko bateko partiden prezioak gaingitzen dituzten eskaintzak ere ez dira onartuko.

5.2.- Prezioa ordaintzeko modua: hileroko ordainketa partzialak.

5.3.- Prestalanak daude: (ez/bai, honako baldintza hauekin:).

- Konturako ordainketak izan ditzaketen prestalanen definizioa:
- Prestalanak balioesteko irizpideak eta moduak:
- Konturako ordainketen amortizazio-plana:
- Eman beharreko bermea:

5.4.- Prezioak berrikustea: (ez/bai).

Honako **formula** hau aplikatuta sortzen den prezioa izango da prezio berrikusia:

5.5.- Epeekin edo errendimenduekin lotutako zenbait helburu betetzearen edo urratzearen arabera prezioa aldatzeari buruzko klausulak: (ez/bai).

- Aplikazio-kasuak:

- Zehazteko erregelak:

6.- BETERAZTEKO EPEA

6.1.- Betearazteko epe osoa:

6.2.- Epe partzialak: (ez/bai, obraren zatiak hasteko edo amaitzeko epe partzialak honako hauek dira:).

- Obraren zatia:
- Epea:

6.3.- Zuinketa egiaztatzeko epea:

7.- PUBLIZITATE-GASTUAK

Ez dago horrelakorik.

Proposamen adjudikaziodunak ordaindu behar dituen publizitate-gastuen zenbatekoaeurokoa da.

Proposamen adjudikaziodunek ordaindu behar dituzten publizitate-gastuen zenbatekoa, guztira,eurokoa da. Zenbateko hori honela egotziko zaio bakoitzari:

8.- BERMEAK

8.1.- Behin-behineko bermea: (ez/bai. Zenbatekoa: lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % ... (BEZik gabe)/bai. Zenbatekoa: eskaintza zein sortatarako aurkezten duen eta horien aurrekontuen baturaren % ... (BEZik gabe)).

8.2.- Behin betiko bermea: bai. Zenbatekoa: eskainitako azken prezioaren % 5 (BEZik gabe).

Kontratuaren prezioa unitateko prezioen arabera formulatzen denean, eratu beharreko behin betiko bermearen zenbatekoa lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren arabera izango da, BEZIK gabe.

8.3.- Berme osagarria: (ez/bai. Zenbatekoa: eskainitako azken prezioaren %).

8.4.- Zilegi da bermeak prezioa atxikita eratzea: (ez/bai, modu honetan eta atxikitze baldintza hauen arabera:).

8.5.- Harrera partziala bada, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak: (bai/ez).

8.6.- Bermeak honen alde eratuko dira:

IFZ:

9.- ASEGURUAK

Kontratistak nahitaezko aseguruak eduki beharko ditu, bai eta baldintza orokorren 27.1 eta 27.2 klausuletan biltzen diren aseguruak ere, jarraian xedatuta dagoenaren arabera:

- **Eraikuntzako arrisku orotako aseguruari** dagokionez, aseguraturako zenbatekoa adjudikaziodunak eskainitako azken prezioa (BEZik gabe) izango da.
- **Erantzukizun zibileko aseguruari dagokionez**, aseguru horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu estaldurei eta kapitalei dagokienez:
 - ...
 - ...

Kontratistak, gainera, **hamar urteko aseguru** kontratatu beharko du, baldintza orokorren 27.4 klausulan xedatuta dagoenaren arabera: (bai/ez).

Halaber, nahitaezko oinarritzko bermeez gain, beste berme hauek ere izan beharko ditu aseguruak:

- ...
- ...
- ...

10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez da behar.

11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Betiere, kontratuaren xedearekin lotuta badaude, SPKLaren 145. artikuluan ezartzen denaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bateragarriak badira eta lizitazio-iragarkian adierazten badira.

11.1.- Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak:

11.1.1.- Baldintza orokorren 31.2 klausulan azaldutako bereziak, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa betetze aldera.

11.1.2.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko Jarraibidearen V., VI. eta VII. ataletan jasotakoa. Instrukzio hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2024ko martxoaren 12an eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 64. zenbakian argitaratu zen, 2024ko apirilaren 2an.

Igorritako dokumentu guztietan hizkera sexistarik erabiliko ez dela bermatuko da, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena jarraikiz. Lege horren babespean, argitaratzen diren irudietan pertsonak ez dira giza duintasun handiagoz edo txikiagoz agertuko euren sexuaren arabera, ez dira sexu-objektu soil gisa agertuko eta ez da erabiliko estereotipo sexistarik, eta genero-rol eta identitateen dibertsifikazio sexuala bultzatuko da.

Era berean, kontratu-prestazioaren onuradun edo erabiltzaileen kontrako sexu-jazarpena prebenitzeko edo horri aurre egiteko neurri espezifikoak hartuko dira.

11.1.3.- Beste batzuk: (ez/bai, honako hauek:).

11.2.- Ingurumen arloko baldintzak: (ez/bai, honako hauek:). Baldintza orokorren 31.5 klausulan ezarrita daudenak. Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio-erabakian (CID) DNSH arloari dagozkion betebeharrak espezifikoak jasotzen badira, pleguaren klausula honetan adierazi beharko dira. Orobat adierazi beharko dira Batzordeak eta Espainiak adostutako OA xedapen operatiboen I. eranskinean ezartzen diren egiaztapen-mekanismoak.

11.3.- Baldintza etikoak: (ez/bai, honako hauek:).

11.4.- Hizkuntza arloko baldintzak: baldintza orokorren 31.1 klausulan ezarrita daudenak.

11.5.- Datuen babesari dagokionez: baldintza orokorren 31.4 klausulan ezarrita daudenak.

11.6.- Berrikuntzari dagokionez:

11.7.- Azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea: baldintza orokorren 31.3 klausulan ezarrita daudenak.

11.8.- SEEPari dagokionez: baldintza orokorren 31.6 klausulan ezarrita daudenak.

11.9.- Beste batzuk: (ez/bai, honako hauek:).

Kontratua betearazteko baldintza berezirik badago, halakoak azpikontratista guztiei eskatuko zaizkie.

12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOETAKO BESTE BETEBEHARRAK BATZUK

12.1.- Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea, SPKLren 211. artikuluan 1. zenbakiaren f) letran aurreikusitakoaren arabera, kontratua suntsiarazteko arrazoia da:

12.1.1.- Kontratuaren klausula espezifikoan 11. klausulan azaldutako betearazteko baldintza bereziak.

- 12.1.2.-** Kontratua betearazteari adskribatzea **II-2 ERANSKINEAN ("Baliabideak adskribatzeko konpromisoa")** agertzen den erantzukizunpeko deklarazioan azaldutako baliabideak, bai eta giza baliabideak eta/edo baliabide materialak ere, baldin eta adjudikazio-prozeduran kaudimen tekniko edo profesionala betetze aldera halakoen jabetza eta/edo eskuragarritasuna egiaztatu bada.
- 12.1.3.-** Kontratatistak berak prestazioaren atal jakin batzuk edo lan zehatz batzuk egiteko daukan betebeharra, kontratuaren klausula espezifikoaren 14.1 eta 18.6 klausulen arabera.
- 12.1.4.-** Kontratuaren klausula espezifikoaren 14.1 klausulan azpikontratatziorako adierazitako baldintzak, baldintza orokorren 36.1 klausularen arabera azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzea eta SPKLren 215.2 artikuluko c) letraren arabera larrialdi edo premia egoera determinatzen duten inguruabarrak egiaztatzea.
- 12.1.5.-** Datu pertsonalen babesari dagokionez, kontratua gauzatzeko kontratatistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren izenean, honako hauek egin beharko ditu:
- 12.1.5.1.-** Baldintza-agiri honetan jasotako xedea betetzea. Datuak xede horretarako laga dira.
- 12.1.5.2.-** Zerbitzarien kokapena eta horiei lotutako zerbitzuak emateko lekua ez aldatzea (hau da, kontratua formalizatu aurretik aurkeztutako deklarazioaren bidez kontratatistak adierazitakoari eustea), kontratazio-organoari aldeztu aurretik jakinarazi gabe. Beraz, kontratua indarrean dagoen bitartean edozein aldaketa eginez gero puntu honetan aipatzen den deklarazioan emandako informazioari dagokionez, nahitaez jakinarazi beharko du tratamenduaren arduradunak.
- 12.1.5.3.-** Kontratatistak zerbitzariak edo horiekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko baliatu duen eskaintzan adierazi duen/dituen azpikontratista/k ez aldatzea, kontratazio-organoari aldeztu aurretik jakinarazi gabe.
- 12.1.5.4.-** Kontratazio publikoaren araudian arlo horrekin lotuta aurreikusita dauden guztiak.
- 12.1.6.-** Kontratuaren objektua ezarritako epean egikaritzea.
- 12.1.7.-** SEEParen kontura finantzatzeko diren kontratuaren, kontratatistaren betebeharra da:
- 12.1.7.1.-** Kontratuak Planaren zer osagai zehatz betetzen laguntzen duen, osagai horren mugari eta helburuak garaiz bete direla egiaztatzeko eskatzen dioten informazioa ematea.
- 12.1.7.2.-** Etiketatze berdearen eta etiketatze digitalaren arloko kontratu-dokumentuetatik eta horiek kontrolatzeko ezarrita dauden mekanismoetatik eratorritako betebeharrak betetzea.
- 12.1.7.3.-** Kontratututako jarduketak egitean ingurumenari kalte esanguratsurik eragiten ez zaiola zaintzea, bat etorritik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluekin; erregelamendu hori inbertsio jasagarriak ahalbidetzeko esparru bat ezartzei buruzkoa da eta (EB) 2019/2088 Erregelamendua aldatzekoa -ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragitea-.
- 12.1.7.4.-** SEEPeko informazio-, komunikazio- eta publikotasun-araudia betetzea.
- 12.1.7.5.-** Kontratu honen esparruan egindako jarduketan gainerako auditoretza-pista egin dadila onartzea eta euskarri-dokumentazioa gordetzeko betebeharra onartzea.
- 12.1.7.6.-** Interes-gatazkarik ez izatea eta ez jardutea halako eran, non kontratua behar bezala egikaritzea eragoziko den.
- 12.1.8.-** Beste batzuk: (ez/bai, honako hau/hauek:).
- 12.1.8.1.-** Obra egitea kontratuan ezarrita dagoen epean.
- 12.1.8.2.-**

Funtsezko kontratu-betebeharren artean edozein ez betetzea **arau-hauste astuna** da SPKLren 71.2 c) artikuluen ondorioetarako.

12.2.- Ingurumen, gizarte edo lan arloetako beste betebeharrak batzuk:

12.2.1.- Ingurumen arloko betebeharrak: (bai/ez).

12.2.2.- Gizarte edo lan arloetako betebeharrak:

12.2.2.1- Langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialaren arabera.

12.2.2.2- Beste batzuk: (bai/ez).

13.- ZIGORRAK

13.1.- Baldintza orokorren 33.1 klausulan aurreikusitakoez bestelako zigor gehigarriak ezartzen dira: (ez/bai. Zigorak ezarri ahal izango dira ez-betetzeengatik edo behar ez bezala betetzeagatik:).

- Ez-betetzea eta zenbatekoa:

13.2.- SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan xedatuta ez dauden **beste zigor-zenbateko batzuk ezarri dira**, epeak betetzean berandutzeagatik: (ez/bai, honako hauek:).

14.- AZPIKONTRATAZIOA

14.1.- Mugak ipini zaizkio azpikontratatzeko aukerari: (ez/bai, kontratuaren klausula espezifikoen 18.6 klausulan azaldutakoaren arabera, ataza kritikoak izateagatik).

14.2.- Operadore ekonomikoek honako informazio eta/edo dokumentazio hau emateko daukaten betebeharra:

- ☐ **a)** Prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duten, azpikontratatu nahi duten zatia edo zati bakoitzaren ehunekoa, eta azpikontratist(ar)en izena. Informazio hori EKABen II. zatiko D atalan bete beharko dute.
- ☐ **b)** Lizitatzailerik nahitaez eman behar dute azpikontratatu nahi dituzten azpikontratista guztien EKAB agiria (II. eta III. zatietako A eta B atalak behar bezala beteta).
- ☐ **c)** Kontratua gauzatzeko, kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren izenean, **II.8 ERANSKINEAN** adierazi beharko du ea haiei lotutako zerbitzariak edo zerbitzuak azpikontratatzeko aurreikusten duen, bai eta azpikontratistaren edo azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere (azpikontratistaren edo azpikontratisten kaudimen-baldintza profesionalaren edo teknikoaren arabera definituta).

14.3.- Enpresa Bermatuen Erregistroa (EBE): Enpresa lizitatzailerik erreferentziako kontratuaren beteazpenaren zati bat azpikontratatu behar badute, EBEen inskribatuta egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Azpikontratazioaren kasuan, EBEen izena ematea ezinbesteko baldintza da lizitazioan parte hartu ahal izateko, eta baztertzeko-arrazoia izango da erregistratuta ez egotea, baldin eta EKAB formularioan edo A gutun-azaleko gainerako agirietan azpikontratatzeko asmoa adierazi bada.

15.- HARRERA, BERME-EPEA ETA AZKEN ZIURTAGIRIA ONARTZEKO EPEA

15.1.- Harrera-epea:

15.2.- Harrera partzialak daude: (ez/bai, honako baldintza hauekin:).

- Obraren zatiak:
- Harrera-epeak:

15.3.- Berme-epea:

15.4.- Hiru (3) hilabetekoa ez den epea, azken ziurtagiria onesteko: ez.

15.5.- Hilabete batekoa (1) ez den epea, azken neurketa orokorrerako: ez.

16.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko aukera: (ez/bai, jarraian zehazten diren inguruabar, irismen, muga, izaera eta prozedurekin:).

- a) Inguruabarrak:
- b) Inguruabarrak betetzen diren objektibotasunez egiaztatzeko metodoa:
- c) Irismena, mugak eta izaera:
- d) Gehienez ere kontratuaren prezioaren zer ehunekori eragin ahal dioten:
- e) **Prozedura:** Baldintza orokorren 35.2 klausulan ezarrita dagoena.

Aldaketak ezingo du berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko bestelako unitate-prezioren bat ezartzerik.

17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

Beste suntsiarazte-arrazoi batzuk ezartzen dira, baldintza orokorren 39. klausulan ezarrita dauden osagarri: (ez/bai, honako hauek:).

18.- KONTRATUAREN OBJEKTU DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK.

18.1.- Obra-proiektua:

- Onarpen data:
- Proiektua onartu duen organoa:

18.2.- Segurtasun eta osasun plana aurkezteko epea: egun natural.

18.3.- Kontratatista lan-programa aurkeztu behar du: (bai/ez).

18.4.- Baldintza orokorren 30.8 klausulan azaltzen diren saio eta azterketak kontratistaren kontura egin behar dira: (ez/bai; gehieneko zenbatekoa:...).

18.5.- Proiektua egiteko lana eta horri dagozkion obrak egiteko lana biak batera kontratatzea: (ez/bai, honako baldintza hauekin:).

18.6.- SPKLren 75.4 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera prestazioaren zati batzuk edo lan zehatz batzuk kontratatista berak egin ditzala eskatzen da: (ez/bai, honako hauek:).

- Prestazioaren zatiak edo lanak:
- Aldi baterako enpresa-elkartea izanez gero, zati edo lan horiek kide zehatz batek egin beharko dituela ezartzen da: (ez/bai, honako hauek:).

18.7.- Beste batzuk:

II.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

19.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK

19.1.- Botere adjudikatzailea:

19.2.- Organoen identifikazioa.

19.2.1.- Kontratazio-organoa:

19.2.2.- Organo hartzailea edo obraz arduratzen den zerbitzua: DIR3 kodea:

19.2.3.-Kontratuaren arduraduna: Zuzendaritza teknikoa.

19.2.4.- Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna:

19.2.5.- Kontratazio-zentrala. Kontratua adjudikatzen duen organoak beste entitate batentzat egiten du lan: (ez/bai, honako hauek dira kontratua sinatuko duten entitateak eta organoa:).

19.2.6.- Kontratazio-mahaiaren osaera:

19.2.7.- Aditu-batzordea/erakunde tekniko espezializatua: (ez/bai, aditu-batzordea, honako kide hauek dituena:/bai, honako erakunde tekniko espezializatu hau:).

19.3.- Adjudikazio-prozedura izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea:

19.4.- Alderdi teknikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:

- helbide elektronikoa:
- telefono-zenbakia:

19.4 bis.- Lizitazio elektronikoari buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:

- telefono-zenbakia: 945 016 298.

19.5.- Alderdi juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:

- helbide elektronikoa:
- telefono-zenbakia:

19.6.- Erregistroak:

19.6.1.- Eskaintzak aurkezteko erregistroa: Kontratazio Elektronikoko Erregistro Telematikoa (ikusi baldintza orokorren 12.2.1 klausula).

19.6.2.- Ziurtagiriak eta fakturak aurkezteko erregistroa:

20.- IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

20.1.- Erregulazio harmonizatuko kontratua: (bai/ez).

20.2.- Izapidetzea: (arrunta/presakoa).

Oharra: Urgentziaz izapidetzeko modukotzat jotzen bada, kontuan hartu beharko da 36/2020 Errege Lege Dekretuak xedatutakoa (abenduarien 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko).

20.3.- Prozedura: irekia.

20.4.- Sortatan banatzeari buruzko informazioa: (ez da behar/, hau hartu beharko da kontuan:).

- Honako muga hauek daude:

☐ Operadore ekonomiko batek eskaintza zenbat sortatan aurkeztu dezakeen.
Hauek dira mugak:.....

☐ Lizitatzailerik bati adjudikatu ahal zaizkion sortak, honako irizpide edo arau hauekin:.....

- Eskaintza integratzaile bat aurkezteko aukera: (ez/bai, honako konbinazio honen/hauen arabera, zeinen arabera operadore ekonomikoak honako kaudimen eta gaitasun hauek izan beharko dituen:).

20.5.- Izapideak egiteko bitartekoak: elektronikoak.

Elektronikoak ez diren bitartekoak erabiltzea beharrezkotzat jo denean bakarrik:

Kontratazio-organoak (.....) egunean eginiko txosten espezifikoaren arabera, arrazoi hauengatik jo da beharrezkotzat elektronikoak ez diren bitartekoak erabiltzea: (adierazi zeintzuk diren arrazoi horiek, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian jasotako artetik).

20.6.- Enkante elektronikoa: (ez/bai).**20.7.- Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Bereziatarako eta gizarteratze-enpresetarako erreserbatutako kontratua, edo enplegu babestuko programen barruan dagoena:** (ez/bai/honako sorta hauek erreserbatzen dira:).

21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA, ETA BALIABIDEAK ADSKRIBATZEA**21.1.- Kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk edukitzeko betebeharra:** (bai, kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausularen arabera/ez).**21.2.- Kaudimena:** (ez da eskatzen/operadore ekonomikoek honako kaudimen hau eduki behar dute, salbu eta kaudimen horren ordez kontratuko klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapena aukeratzen badute:/ klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapena eskatzen da, salbu eta EBko beste estatu kide batzuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu bateko operadore ekonomikoak badira, zeinek parte hartzeko kaudimen-betekizun hauek bete behar baitituzte:).

- **Ekonomiko eta finantzarioa. Betekizuna(k):**

...

- **Tekniko edo profesionala. Betekizuna(k):**

...

Operadore ekonomiko sortu berriek (bost (5) urte baino gutxiagoko antzinatasuna dutenek) honako kaudimen tekniko edo profesional hau eduki beharko dute:

...

500.000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten kontratuen kasuan, kaudimen teknikoaren egiaztapena egindako obretan oinarritzen bada, eskakizun hori ezin da salbuetsi sortu berri diren operadore ekonomikoentzat.

Baldintza orokorren 11.4 klausulan xedatuta dagoenari kalterik egin gabe, kaudimen-betekizun horiek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailleak soilik egiaztatuko beharko ditu kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan azaltzen diren dokumentuak aurkeztuz.

21.3.- Sailkapena: (ez da behar, kontratuaren klausula espezifikoen 21.1 klausularen arabera /kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan adierazitako kaudimen-betekizunak ordeztzeko, honako sailkapen hau eduki behar da:/honako sailkapen hau eduki behar da, salbu eta EBko beste estatu kide batzuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu bateko operadore ekonomikoak badira, zeinek parte hartzeko kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan adierazitako kaudimen-betekizunak bete behar baitituzte:).

Jarraian adierazitako sailkapena eduki behar da:

773/2015 Errege Dekretuaren araberrako sailkapena:

Taldea: Azpitaldea: Kategoría:

EKAB formularioaren II. zatiko A atalean adierazi behar da zein sailkapen daukan **(II.1 Eranskina)**.

21.4.- Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala: (ez/bai).**21.4.1.- Eskatzen den enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala:**

21.4.2.- Gaikuntza zein unetan eduki behar den: (eskaintzak aurkezteko azken egunean/kontratua formalizatu baino lehen).

21.5.- Prestazioa emateko ardura duten langileen izenak eta prestakuntza profesionalak jakinarazi beharko dituzte pertsona juridikoek: (ez/bai).

21.6.- Baliabideak nahitaez adskribatzea: (ez/bai, **II.2 ERANSKINEKO "Baliabideak adskribatzeko konpromisoa"** koadroaren arabera).

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerak soilik egiaztatu beharko du baliabide horiek benetan eskura dituela; horretarako, kontratuaren klausula espezifikoan 25.2 klausulan azaltzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

22.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

22.1.- Adjudikazio-irizpide bakarra dago: (ez/bai, honako hau:).

☐ Prezioa.

☐ Errentagarritasunean oinarritutako beste irizpide bat:

22.2.- Adjudikazio-irizpide asko daude: (bai/ez).

22.2.1.- Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak: (bai/ez).

- Irizpidea:

Haztapena:

Irizpidea balioesteko metodoaren azalpena:

22.2.2.- Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak:

- Irizpidea:

Haztapena:

Formula:

22.3.- Eskaintza anormalki baxuegiak: (honako parametro edo muga hauek ezartzen dira balioztatze/ez da inolako parametro edo mugarik ezarri balioztatze.).

22.3.1.-Prezioari dagokionez: (bai/ez da behar).

Eskaintza anormala dela adierazten duten parametro objektiboak:

22.3.2.-Eskaintza osoari dagokionez: (ez da behar/bai, honako hau(ek):).

Eskaintza anormala dela adierazten duten parametro objektiboak:

23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

(ez dira ezartzen/honako hauek ezartzen dira:).

Berdinketa gonez gero aurkeztu behar den dokumentazioa:

24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren dokumentuak jarraian adierazten diren fitxategi elektronikoen edo gutun-azalen barruan aurkeztuko dira.

24.1.- A GUTUN-AZALA: AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK.

Baldintza orokorren 13.1 klausulan azaltzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira gutun-azal horretan.

EKAB agiriaren IV. atalari dagokionez, operadore ekonomikoak **α atala** bakarrik bete beharko du: (bai/ez).

24.2.- B GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA.

Dokumentu hau(ek) aurkeztu beharko d(ir)a gutun-azal horretan:

- **III.1 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera eskaintza ekonomikoa.

- GAINERA, honako dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:
 - Proiektua osatzen duen obra-unitate bakoitzaren eskaintzako prezioen zerrenda (gastu orokorrak eta mozkin industrialak sartu gabe), eta honenbesteko finko bateko partiden prezioa ere bai, halakorik badago; honela egingo da:
 - Osorik ordaindu beharreko honenbesteko finko bateko partiden kasuan: partida horietarako eskainitako prezioak.
 - Justifikatu beharreko honenbesteko finko bateko partiden kasuan: proiektuan agertzen diren prezioak.
 - Egikaritze materialaren aurrekontua: proiektuaren neurketei eskainitako unitate-prezioak eta honenbesteko finko bateko partiden prezioak –halakorik badago– aplikatzearen emaitza.
 - Kontratagatik dagokion egikaritze-aurrekontua: egikaritze materialaren aurrekontua gehi proiektuan adierazita dagoen gastu orokorren ehunekoa eta mozkin industrialaren % 6 aplikatzearen emaitza.
 - Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

24.3.- C GUTUN-AZALA: BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA EBALUATU BEHAR DEN ESKAINTZA: (bai/ez).

Dokumentu hau(ek) aurkeztu beharko d(ir)a gutun-azal horretan:

- Dokumentuaren izena:
- Zer irizpideri lotzen zaion:
- Dokumentuan sartu behar den informazioa edo datuak:
- Hedadura:

24.4.- ALDAERAK ONARTZEN DIRA: (ez/bai).

24.4.1.- Gehieneko kopurua:

24.4.2.- Gutxieneko betekizunak:

24.4.3.- Aurkezteko modalitateak:

24.4.4.- Ezaugarriak:

25.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 21.1 klausulan azaldutako gainerako dokumentuekin batera, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira, hala badagokio:

25.1.- Kontratuaren klausula espezifikoaren 21.2 klausulan jasotako kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen tekniko edo profesionaleko betekizunak egiaztatzeko dokumentuak: (ez da behar /bai, honako hauek, salbu eta kaudimenaren ordezkariaren klausula espezifikoaren 21.3 klausulan azaltzen den sailkapena erabiliko bada:/ez da behar, salbu eta operadore ekonomikoa EBko estatu kide batekoa edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu batekoa bada; hala bada, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:).

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:**

...

- **Kaudimen tekniko edo profesionala:**

...

Sortu berri diren operadore ekonomikoek –alegia, 5 urtetik beherako antzinatasuna dutenek– dokumentu hauek erantsi beharko dituzte, kontratuaren klausula espezifikoaren 21.2 klausulan jasota dauden kaudimen-betekizunak egiaztatzeko:

...

25.2.- Kontratuaren klausula espezifikoan 21.6 klausulan eskatutako baliabide materialak eta giza baliabideak erabilgarri daudela egiaztatzeko dokumentazioa: (ez da behar/bai, honako hauek dira:).

26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

26.1.- Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria:

26.1.1.- Eskatzeko azken eguna:

26.1.2.- Eskuratzeko azken eguna:

26.1.3.- Baldintza-agiriei edo gainerako dokumentuei buruzko argibideen izaera loteslea: (bai/ez).

26.2.- Administrazioak kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzen duen eta adjudikazio-prozeduran atzera egiten duen kasuetarako konpentsazio-modu espezifiko bat aurreikusten da, Baldintza Orokorren 22.5 klausulan adierazitakoaz bestelakoa:

Ez: (Kasu horretan, Baldintza Orokorren 22.5 puntuan ezarritako edukia aplikatuko da).

Bai: (Kasu horretan, botere adjudikatzailerak dagozkion zehaztapenak zehaztuko ditu).

26.3.- Kontratua adjudikatzeko gehieneko epea SPKLren 158.2 artikuluan ezarritakoaz bestelakoa da: (ez da behar/ ez/bai, honako hau:).

26.4.- Baldintza orokorren 23.1 klausulan azaldutakoa osatzeko dokumentazioa (kontratua formalizatu baino lehen aurkeztu behar da): (ez/ bai, honako hau:).

26.5.- Formalizazioarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa: (ez/ bai, honako hau: VII.2 eranskina aurkeztu beharko da, "datu pertsonalen tratamenduaren enkargua" sinatuta).

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

27.- KONTRATUA LAGATZEA.

Kontratua lagatzeko beste kasu batzuk aurreikusten dira, baldintza orokorren 37.1.1 klausulan aurreikusten direnez bestelakoak: (ez/bai, honako hauek:).

28.- GIZARTEKO, INGURUMENeko ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTAKO BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEN INGURUKO ALDERDIEN JARRAIPENA EGITEKO KOADROA

Alderdiak:	GIZARTEKOAK EDO ENPLEGUARI BURUZKOAK				INGURUMENARI BURUZKOAK	HIZKUNTZARI BURUZKOAK
	BEREZIKI			BESTE BATZUK		
	Laneratzea	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	Lan-arriskuen prebentzioa			
Kontratuaren objektua						
Kaudimen-betekizunak						
Zehaztapen teknikoak						
Adjudikazio-irizpideak						
Kontratua betearazteko baldintza bereziak				Bai		Bai

29.- EXEKUZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA

Beharrezkoa izatekotan dokumentazio gehigarria aurkeztea exekuzioan, xehetasunez adieraziko da.

•

BALDINTZA OROKORRAK

I.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.-KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratuaren objektua kontratuaren klausula espezifikoan 1. klausulan azaltzen den obra egikaritzea edo egitea da. Hori egin behar da proiektuan, kontratu-dokumentuetan eta, hala badagokio, SPKLn aurreikusitako kasuetan izapidetu ahal diren dokumentu aldatuetan ezarritako baldintzen arabera.

Objektua sortatan zatiturik badago, kontratuaren klausula espezifikoan 1.2.2 klausulan egongo da adierazita sorta bakoitzaren objektua.

Hori guztia Europar Batasunaren Next Generation EU mekanismoak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (____) osagaiaren barruan dago.

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK

Honako hauek izango dira kontratu-dokumentuak:

- a) Administrazio-klausula partikularren agiria (AKPA).
- b) Kontratu-izaera duten proiektuko dokumentuak:
 - a) Preskripzio tekniko partikularren agiria (PTPA).
 - b) Prezio-taulak.
 - c) Planoak.
 - d) Proiektuaren memoria, HAKLEOren 128. artikuluan ezarritakoaren arabera egina.
- c) Kontratazio-organoak onartutako lan-egitaraua.
- d) Kontratua formalizatzeko dokumentua.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

3.1.- Kontratua **administrazio izaerakoa** da, eta ondoren azalduko diren arau eta dokumentuen arabera izan beharko da.

3.2.- Kontratu-dokumentuetan aurreikusita ez dauden gauzetarako, kontratuak honako arau hauek bete beharko ditu:

- a) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL).
- b) Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
- c) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuak buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
- d) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
- e) Agindua, 2004ko abuztuaren 16koa, Ogasun eta Herri Administrazioen sailburuarena, herri administrazioen kontratuen legedian jasotako zenbait prozeduren eta jarduketan izapidetze telematikoa buruzkoa.
- f) 32/2006 Legea, urriaren 18koa, eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duena, eta 1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzen duena.
- g) 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzkoa, eta urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuen eta obra-kontratuen prezioak berrikusteko oinarritzko materialen eta formula-eredu orokorren zerrenda.

- h) Hala badagokio, 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Eraikuntzako obretan segurtasunaren eta osasunaren arloan bete beharreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen.
- i) Hala badagokio, 209/2014 Errege Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duena.
- j) Abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuak onartutako Estatuko Obrak Kontratatzeko Administrazio Klausula Orokorren Agiria, Testu Bateginean eta aurreko erregelamenduetan (Administrazio Klausula Orokorren Agiria) ezarrita dagoenaren kontra egiten ez duen bitartean.
- k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- l) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- m) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko
- n) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.
- o) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana osatzen duten alderdien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontuen eta kontabilitatearen segimendua egiteko.
- p) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.
- q) Europar Batasuna mailako, Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak, aplikatzekoak badira.

Osagarri gisa, administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak.

- 3.3.-** Aldeek beren-beregi bete beharko dute kontratu-dokumentuetan ezarrita dagoena eta zuzendaritza teknikoak kontratua behar bezala betearazi eta interpretatze aldera botere adjudikatzailaren ordezkari gisa kontratistari idatziz ematen dizkion jarraibideak ere bete beharko dituzte.

Dokumentu horietan ezarrita zer dagoen ez jakiteak ez du kontratista salbuetsiko ezarrita dagoen hori betetzeko beharretik, eta eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzailak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, inolako salbuespen edo eragozpenik gabe.

4.- HAINBAT ARLOTAKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LANEKO BALDINTZAK, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNA DAUKATEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNA DAUKATEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO ZEHATZ BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA, DATUEN BABESA ETA LEHIAREN DEFENTSA

Erakunde hauetan dago gai hauen inguruko betebeharrei eta indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa:

- 4.1.-** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakunde erakunde autonomoa.
- 4.2.-** Fiskalitatea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko foru-ogasunak, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.
- 4.3.-** Ingurumenaren babesa: IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

- 4.4.-** Enplegua babestea, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa: lanaren eta enpleguaren arloan eskumena duen sailean edo sailetan dagokion zuzendaritza eta OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoa.
- 4.5.-** Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa.
- 4.6.-** Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
- 4.7.-** Lehiaren defentsa: Lehiaren Euskal Agintaritza.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIKO IZAPIDETZEA ETA BALIO ZENBATETSIA

- 5.1.-** Kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua kontratuaren klausula espezifikoen 3.1 klausulan agertzen da, eta urteka eta sortaka banatuta dago, hala badagokio, klausula horretan ezarritakoaren arabera.
- 5.2.-** Kontratuaren klausula espezifikoen 3.2 klausulan adierazitako aurrekontu-aplikazioan, behar besteko **kreditua** dago kontratuak eragindako betebeharrei erantzuteko.
- 5.3.-** Espedienteak **aurretiko izapidetzea** behar badu, kontratuaren klausula espezifikoen 3.3 klausularen arabera, kontratua adjudikatzeko kreditu egoki eta nahikoa egon behar da dagokion ekitaldi ekonomikoan.
- 5.4.- Balio zenbatetsia** kontratuaren klausula espezifikoen 4. klausulan agertzen da.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA

- 6.1.-** Kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulak azaltzen badu prezioa zehazteko sistema hautatutako eskaintzatik ateratzen diren unitate-prezioena dela, prezioa ateratzeko honako kontzeptu hauek batuko dira: adjudikaziodunak eskaintako egikaritze materialaren aurrekontua eta egikaritze materialaren aurrekontuari proiektuan adierazita dagoen gastu orokorren ehunekoa eta hark eskaintako etekin industrial aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak.
- Eskaintako egikaritze materialaren aurrekontua ateratzeko, batuketa hau egingo da: obra-unitate bakoitzaren kopuruko produktuak bider unitate-prezioa gehi honenbesteko finko bateko partidak, halakorik badago.
- Honenbesteko finko bateko partidei dagokienez, osorik ordaindu beharreko honenbesteko finko bateko partiden prezioak adjudikaziodunak eskaintako horiek izango dira; justifikatu beharreko honenbesteko finko bateko partiden prezioak proiektuan agertzen diren prezioak izango dira, kalterik egin gabe egin beharreko neurketen emaitzari.
- 6.2.-** Kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulak ezartzen badu prezioa zehazteko sistema adjudikazio-koefiziente aplikatuz ateratzen diren unitate-prezioena dela, prezioa honela aterako da: koefiziente hori aplikatuko zaio prezio bakoitzari, ziurtagirietan kobratu beharreko kopuruak ezartzeko modu gisa.
- 6.3.-** Kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulak ezartzen badu prezioa zehazteko sistema honenbesteko finko baten arabera dela, kontratuaren prezioa adjudikaziodunak eskaintako prezio osoa izango da, bazter utzita klausula horretan sistema horretatik salbuetsi diren obraren unitate edo zatiak, unitate-preziotan ordainduko direnak. Salbuespen horri kalterik egin gabe, prezioa itxia dela ulertuko da SPKLren 241. artikuluan eta kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan xedatuta dagoenaren arabera.
- 6.4.-** Kontratuaren prezioa adjudikazio-ebazpenean zehaztuko da, BEZa partida independente gisa aipaturik, eta, behar izanez gero, urte anitzeko banaketa ere.
- Kontratuaren prezioan, zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak sartuta daude, bai eta kontratuaren baldintzak betetzeak dakarren beste edozein gastu ere.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak berrikusi daitezke baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 5.4 klausulan hala jasota badago, eta klausula horretan azaltzen den formula aplikatu beharko da.

OHARRA: 2022an prezioak berrikusi daitezke, martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege Dekretuaren II. Tituluan adierazitako inguruabarren arabera [3/2022 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Salgaien errepideko garraioaren jasagarritasuna eta logistika-katearen funtzionamendua hobetzeko neurriena, 2020ko uztailaren 15eko (EB) 2020/1057 Zuzentarauaren transposizioarena (zuzentarau horren bidez, arau espezifikoak ezartzen dira 96/71/EE eta 2014/67/EB zuzentarauei dagokienez, errepideko garraioaren sektoreko gidariak egiten dituzten joan-etorrietarako) eta obra-kontratu publikoen prezioak berrikusteko salbuespenezko neurriena]. Aipatutako errege lege-dekretua aldatu egin da, honako honen bidez: 6/2022 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaz Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuna emateko plan nazionalaren esparruan presako neurriak hartzen baitira.

8.- BETEARAZTEKO EPEA

Kontratua betearazteko gehieneko epea eta gehieneko epe partzialak kontratuaren klausula espezifikoan 6. klausulan daude ezarrita, salbu eta adjudikaziodunak eskaintzan laburtu egin baditzaite epe horiek, epeen murrizketa hori eskaintzak adjudikatzeko irizpidea denean.

Zuinketa egiaztatze aktarekin hasiko da betearazteko epea.

Epe horiek luzatu daitezke, baina SPKLren 29.3 eta 195.2 artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera soil-soilik.

9.- BERMEAK

9.1.- Behin-behineko bermea SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako formuletak batean eman ahalko da, eta SPKLren 106.3 artikuluan xedatuta dauden moduetan gordailutu beharko da.

Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua perfektionatu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaleei. Hautatutako lizitatzaleari dagokionez, behin betiko bermea eratzen duenean itzuliko zaio behin-behineko bermea, SPKLren 106.4 artikuluan eta baldintza orokorren 23.4 klausulan xedatuta dagoenaren arabera.

9.2.- Behin betiko bermea eta berme osagarria aurreko apartatuan aurreikusitako formulen bitartez eman ahalko dira, baita prezioa atxikita ere, hori kontratuaren klausula espezifikoan 8.4 klausulan baimenduta badago.

Behin betiko bermea eta berme osagarria Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailutuko dira beti.

9.3.- Aldi baterako enpresa-elkartea (aurrerantzean ABEE) denean, behin-behineko eta behin betiko bermeak ABEEko partaide batek edo batzuek eratu ahalko dituzte, betiere guztira eskatzen den zenbateko osoa lortzen bada, eta kide guztiak batera eta modu solidarioan bermatuta badaude.

10.- KONTRATATZALEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK

10.1.- Euskadiko Kontratazio Publikoko kontratatzailearen profileraz sartzeko honako esteka hau erabili beharko da: <https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/>

10.2.- Kontratatzailearen profilean honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

1. Aurretiazko informazioaren iragarkia, hala badagokio.
2. Lizitazio-iragarkia.
3. Espedientea onesteko ebazpena.
4. AKPA, PTPA eta dokumentazio osagarria.
5. Kontratuaren objektu zehatza, iraupena, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua.
6. Honako hauek justifikatzen dituen memoria: kontratazioa egiteko beharrezkoa, kontratazioaren egokitasun eta efizientzia eta kontratazioak kontratuaren objektuarekin daukan harreman zuzen, argi eta proportzionala.
7. Espedientea hasteko ebazpena, kontratazio-organismoak sinatua.
8. Merkatuari buruzko aurretiazko kontsultarik egin bada, egin diren kontsultei buruzko txosten arrazoitua, SPKLren 115. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.
9. EKAB betetzeko xml fitxategia.

- 10.** Kontratazio-organoari lagundu behar dioten kontratazio-mahaiaren osaera eta kideen kargua.
- 11.** Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko adjudikazio-irizpideak aplikatzeko aditu-batzordeko kideen izendapena, aditu horien esku-hartzea kontratuaren klausula espezifikoan 19.2.7 klausulan azaltzen denean. Gainera, kideen kargua adierazi beharko da.
- 12.** Kontratuaren publizitatea egiteko erabili diren bitartekoak eta argitalpen horietarako estekak.
- 13.** Hala badagokio, kontratazio-organoaren ebazpena (edo ebazpenak), zeinaren bidez AKPA eta/edo PTPAn aldaketa esanguratsuak sartzen diren eta epea luzatzearen ondorioz eskaintzak aurkezteko mugaegun berriak ezartzen diren. Dena dela, jardueretan atzera egitea erabaki ahalko da, SPKLren 122.1 eta 124. artikuluen arabera.
- 14.** Hala badagokio, kontratazio-organoak AKPA eta/edo PTPA aldatzeari buruz emandako ebazpena (edo ebazpenak), akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentze aldera.
- 15.** Baldintza-agiriei eta/edo gainerako dokumentazioari buruzko argibideak, kontratuaren klausula espezifikoan 26.1.3 klausularen arabera erantzunak lotesleak izan zein lotesleak ez izan.
- 16.** Adjudikazio-prozeduran parte hartzen duten lizitatzailen kopurua eta nor diren.
- 17.** Kontratazio-mahaiaren bilera publikoak egiteko datak eta lekuak, eta, hala badagokio, data eta leku horien aldaketak, bai eta hori guztia zein webgunetan ikusi ahal izango den ere, hala egin badaiteke.
- 18.** Onartutako eta baztertutako lizitatzailen zerrenda, eta, baztertutakoen kasuan, baztertzeko arrazoiak.
- 19.** Kontratazio-mahaiaren aktak.
- 20.** Eskaintza bakoitzean balio-iritzi batean oinarrituta kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideak balioesteko txostena.
- 21.** SPKLren 149.4 artikuluan aipatzen denaren arabera ustez anormaltasuna duten eskaintzei buruzko txostena edo txostenak, hala badagokio.
- 22.** Eskaintzei esleitutako puntuazioak, puntuazio horiek aktetan jasotzen ez badira edo aktak idazten eta argitaratzen ez diren arte jasotzen ez badira.
- 23.** Kontratua adjudikatzeko ebazpena.
- 24.** Adjudikazioduna nor den.
- 25.** Adjudikazioaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga barne.
- 26.** Kontratua formalizatzeari buruzko iragarkia eta kontratu-dokumentua.
- 27.** Hala badagokio, kontratua egiteari buruzko datu guztiak zergatik argitaratzen ez diren azaltzen duen txostena, SPKLren 154.7 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.
- 28.** Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzeke.
- 29.** Kontratazio-organoaren ebazpena, adjudikazio-prozeduran atzera egitea erabakitzeke.
- 30.** Kontratazio-organoaren ebazpena, adjudikazio-prozedura hutsik geratu dela deklaratzeko.
- 31.** Errekurtsorik jarri bada, errekurtsio horien ondorioz adjudikazio-prozedura aldi baterako eten daitekeela dioen oharra.
- 32.** Adjudikazio-prozedura deusez deklaratzeko ebazpena.
- 33.** Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua luzatzeari buruzkoa.
- 34.** Kontratua aldatzeari buruzko iragarkiak, kontratazio-organoak kontratua aldatzea erabakitzeari buruz emandako ebazpena, horretarako justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta, hala badagokio, onetsi aurretik jaso diren txosten guztiak.

35. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua lagatzeko baimena ematen duena.

36. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duena.

10.3.- Interesdunek **kontsultak egin ditzakete eta dokumentazio osagarria edo informazio gehigarria eska dezakete** kontratuaren klausula espezifikoen 19.4 eta 5 klausuletan agertzen diren helbide elektronikoen bitartez. Idatziz egin beharko da hori, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.1 klausulan informazioa eskatu ahal izateko ematen den azken egunera arte. Kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.2 klausulan azaltzen den mugaegunera arte (hori barne dela) erantzun beharko zaie eskaerei.

II.- LIZITAZIOA

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

11.1.- Kontratazio-prozeduran pertsona fisiko eta juridikoek parte hartu ahalko dute, espainiarrek nahiz atzerriarrek, baldin eta inskribatuta badaude Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Lizitatzaille eta Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo inskribatuta badaude operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko kide den estatu baten datu base nazional batean, baldin eta, azken kasu horretan, datu-basera sartzea doakoa bada. Era berean, ezinbestekoa izango da pertsona fisiko edo juridiko horiek jarduteko gaitasuna izatea, kontratatzea debekatuta ez izatea, interes-gatazkako egoeran ez egotea eta kaudimen-betekizunak betetzea edo, hala badagokio, sailkapena izatea; eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan ezarritako gaikuntza izatea (baldin eta klausulan adierazi bada gaikuntzak "eskaintzak aurkezteko azken egunean" eduki behar direla). Salbuespen moduan, eta lehia ez mugatzearren, kontratazio-organoak beren-beregi baimendu ahal izango du, ebazpen arrazoiuaren bidez, erregistroan inskribatuta ez dauden lizitatzailleek ere aurkeztu ahal izatea eskaintza.

Aurreko paragrafoan adierazitako betekizunak betetzen dituzten eta ABEE batean elkartu diren pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, legez aurreikusitako baldintzen arabera.

Parte hartu ahal dute SPKLren 66.1 artikuluan xedatuta dagoena betetzen duten pertsona juridikoek eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa operadore ekonomikoek eta Europar Batasunekoak izan ez arren SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan xedatuta dagoena betetzen duten operadore ekonomikoek.

11.2.- Pertsona bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahalko du, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 24.4 klausulan aldaerak onartzen badira. Bakarrik aurkezten direnek ere ezin izango dute ABEEetan beste proposamenik izenpetu, ez eta ABEE batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko pertsona horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

11.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 klausularen arabera kontratua hurrenez hurren Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Bereziei eta laneratzeko enpresei erreserbatu bazaie edo enplegu babestuko programen barruan sartuta badago, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatuta dagoenaren arabera, legearen arabera ezarritako betekizunak betetzen dituztenek soilik parte hartu ahalko dute (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratzeko enpresen erregimena arautzen duena).

11.4.- Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan eskatzen den gaitasun, kaudimen eta enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionalari buruzko inguruabarrak (salbu eta klausula horretan adierazi bada gaikuntzak "eskaintzak aurkezteko azken egunean" eduki behar direla) eta kontratatze debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak, eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua egiteko unean horiek betetzen jarraitu beharko da.

Kontratazio-mahaiak prozeduraren edozein unetan eskatu ahal izango die lizitatzailleei ziurtagiri eta dokumentu guztiak edo batzuk aurkezteko, kontratua adjudikatu aurretik, prozeduraren garapenaren mesederako baldin bada. Halaber, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak emateko edo beste dokumentu batzuk aurkezteko ere eskatu ahal izango die kontratazio-mahaiak, hori guztia bost (5) egun balioduneko epean bete beharko dute, dagokion errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

11.5.- Eskaintza aurkeztu izanak esan nahi du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honen nahiz gainerako kontratu-dokumentuen klausulak, inolako eragozpen edo erreparorik gabe, eta gainera baimena ematen diela kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari, kontratua adjudikatzeko prozeduraren edozein unetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Lizitatzaille eta Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko kide den estatu baten datu base nazional batean jasotako datuak kontsultatzeko, baldin eta, azken kasu horretan, datu-basera sartzea doakoa bada. Operadore

ekonomikoek ez dute nahitaez aurkeztu behar erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko dokumentazioa.

12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoa betez, prozedura honetan jasotzen diren datuak fitxategi elektronikoko batean sartuko dira, kontratu hau behar bezala esleitu eta gauzatzen dela bermatzeko. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei lagako, aipatutako araudian xedatutakoa izan ezik. Lizitatzailleek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta datu pertsonalak babesteko legean jasotako gainerako eskubideak baliatu ahal izango dituzte.

12.1.- Hizkuntza.

Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu behar dira.

12.2.- Bitartekoak.

12.2.1.- Bitarteko elektronikoak.

Salbu eta kontratuaren klausula espezifikoan 20.5 klausulan azaltzen bada kontratua esleitzeko prozeduran izapideak egiteko bitartekoak elektronikoak ez direla, bitarteko elektronikoan bidez aurkeztuko dira eskaintzak, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN plataformaren bidez.

12.2.1.1.- Betekizunak:

Esteka honetan eskuratu daiteke betekizunei buruzko informazioa:

<https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu/>

Laguntza-zerbitzua, lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko:
945.016.298

12.2.1.2.- Aurkezteko modua:

Honako esteka honetan dago eskuragarri eskaintza aurkezteko moduari, jasandako formatuei eta fitxategien tamainari buruzko informazioa:

<https://www.contratacion.euskadi.eus/erabiltzeko-gomendioak-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/es/>

Eskaintza aurkezpen-epean jaso dela ulertuko da, baldin eta epe horren barruan hasi bada bidalketa eta behar bezala amaitu bada. Alegia, eskaintza epearen barruan bidaltzen hasi dela ulertuko da, baldin eta "eskaintza sinatu eta bidali" botoia ezarritako epearen barruan sakatu badu lizitatzaillearen ordezkariak. Eta ulertuko da bidalketa behar bezala amaitzen dela, aurkeztutako eskaintza osatzen duten dokumentuak erregistro elektronikoa sartzen diren unean.

12.2.2.- Elektronikoak ez diren bitartekoak edo papera.

12.2.2.1.- Aurkezteko modua:

a) Dokumentuak gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, operadore ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun-azal bakoitzaren barruan, bertan sartu diren dokumentuen aurkibide zenbakiduna sartu beharko da, eta gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean honako datu hauek jarriko dira:

1. Gutun-azalaren identifikazioa (A, B, C edo besteren bat), kontratuaren klausula espezifikoan 24. klausulan ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Kontratuaren identifikazioa: espediente-zenbakia eta objektua.
3. Lizitatzaillearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, bere izen soziala eta IFZ adieraziko dira; pertsona fisikoa bada, izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.
4. Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.

b) Gutun-azalak lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan –eguna eta ordua–

aurkeztuko dira, kontratuaren klausula espezifikoaren 19.6.1 klausulan adierazitako erregistroan, edo posta-bulegoren batean, erregistro horietara bidaltzeko.

Dokumentazioa posta-bulegoren batean aurkeztu bada, bidali izana jakinarazi beharko du lizitatzailerak; horretarako, mezu elektronikoa bat bidali beharko du kontratuaren klausula espezifikoaren 19.5 klausulan agertzen den helbidera, egun horretan bertan. Posta elektronikoa bidez egindako jakinarazpen hori baliozkoa izan dadin, jasota geratu beharko da bidali eta jaso izana, noiz bidali den eta noiz jaso den, bai eta zer bidali den (komunikazioaren eduki osoa), nork bidali duen eta nork jaso behar duen. Halakoetan, kopia bat inprimatu behar da. Kopia hori espedienteari erantsiko zaio.

Bidali izanaren jakinarazpenean, kontratuaren eta lizitatzaileraren identifikazioa jarri behar da (baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulako a) letran 2) eta 3) apartatuek ezartzen dutenaren arabera). Jakinarazpen horrekin batera, posta-bulegoak emandako frogagiria ere bidaliko da. Lizitazio-iragarkian adierazitako datuen ostean hamar (10) egun natural igaro eta gero dokumentazioa jasotzen ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

12.2.2.2.- Dokumentazioa itzultzea.

Adjudikaziodun izan ez diren eta dokumentazioa berreskuratu nahi duten lizitatzailerak idatziz bidali beharko diote eskaera kontratazio-mahaiko idazkariari –espediente-zenbakia eta dokumentuak jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatuz–, eta administrazio-egoitzetara joan beharko dute dokumentuak jasotzera.

Dokumentuak jasotzera joaten den pertsonaren nortasuna NANarekin edo dokumentu baliokidearekin egiaztatu ondoren egingo da dokumentuen entrega, baldin eta zazpi (7) hilabete igaro badira kontratua formalizatu zenetik eta ez bada errekurtsorik egon. Epe hori amaitu ostean inork ez badu dokumentazioa jaso hilabeteko (1) epean, suntsitu egingo da.

Era berean, jarduera horiek egingo dira, eta epe berberak aplikatu, prozeduran atzera egiten bada edo kontratuari uko egiten bazaio.

12.3.- Konfidentzialtasuna.

Lizitatzaileraren batek uste badu aurkeztu duen dokumenturen bat konfidentzialtzat jo behar dela, beren-beregi adierazi beharko du hori –**II.3 ERANSKINA** betez– eta argi eta garbi agerrarazi, gaininprimatuta edo orriaren bazterrean, konfidentzialtzat jo den dokumentuan bertan. Ez bada horrela agerrarazten, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

II.3 ERANSKIN horretan, sekretu tekniko eta merkataritzakoekin lotuta egoteagatik eskaintzan konfidentzialtzat jotzen diren informazio eta alderdiak azaltzeaz gain, sekretu horiei **zein arrazoi zehatzengatik** lotzen zaien azaldu beharko dute.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere izango konfidentziala. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela esan bada, eskaintzarik egin ez dela ondorioztatuko da.

Konfidentziasun-deklarazioak ezin du barne hartu lizitatzailerak aurkeztu duen dokumentazio osoa, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzeko dokumentazio osoa ere. Kasu horretan, edo deklarazio hori oker dimentsionatzen denean, kontratazio-organoak erabakiko du (arrazoiak adieraziz) zer datuk edo zer dokumentuk izan behar duten konfidentzialak. Gauza bera egingo du kontratazio-organoak baldin eta deklarazioak ez badu arrazoi egoki eta nahikoa oinarriturik lizitatzailerak konfidentzialtzat jotzeko hala deklaraturako informazioa.

Lizitatzailerak ez badu espresuki adierazi datu eta/edo dokumenturen bat konfidentziala denik, datu eta/edo dokumentu bat ere konfidentziala ez dela ondorioztatuko da. Hala ere, salbuespen moduan eta arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jo dezake konfidentzial deklaratu ez den informazioaren bat, enpresa-interes legítimoak zaintzearen.

Halaber, eskaintzak aurkeztu ostean ezin izango da adierazi datu batzuk konfidentzialak direla, datu horiek aurkeztean adierazi ez bazen.

Hasierako eskaintzaren barruan ez zegoen dokumenturen bat aurkeztu bada adjudikazio-prozeduran, konfidentzialtzat jo ahal izango da dokumentazio berri horren artean dagoen datu eta dokumenturen bat, klausula honen aurreko paragrafoetan azaltzen diren baldintzetan.

12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea.

Adjudikazio-prozeduraren barruan nahiz kontratua adjudikatu eta formalizatu ostean, aurkeztutako dokumentuak benetakoak direla egiaztatu ahal izango du botere adjudikatzaileak. Datuak faltsutzea kontratuaren deuseztasun-kausa izan daiteke. Arrazoi horregatik kontratuaren deuseztasun-deklarazioa eginez gero, operadore ekonomikoari leporatu ahal izango zaio ez-betetzea, eta eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio botere adjudikatzaileari.

12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak.

12.5.1.- Jakinarazi eta komunikatu behar diren jarduketak.

12.5.1.1.- Adjudikazio-erabakia eta SPKLren 44.2 b) artikuluan definitutako izapidetze-egintzak jakinarazi beharko dira.

12.5.1.2.- Honako hauek izango dira komunikazioak: argibide-eskariak, akatsak edo omisioak konpontzeko errekerimenduak, baldintza-agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan sartzen ez diren bestelako izapide-egintzak.

12.5.2.- Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.

Lizitazio elektronikoen sistema erabiliko da jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriaren lehenengo apartatuaren arabera, jakinarazpenak horretarako prestatutako helbide elektronikoa erabiliz edo, bestela, agerraldi elektronikoen bidez egin ahalko dira. Jakinarazpenetik kontatzen diren epeak jakinarazpena edo jakinarazpenaren abisua igorri den egunetik hasiko dira kontatzen, baldin eta agerraldi elektronikoen bidezko jakinarazpena bada, betiere jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organismoaren kontratatzailearen profilean. Hala ez bada, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera kontatuko dira.

12.5.3.- Elektronikoak ez diren bitartekoen bidez edo paperean aurkeztea eskaintzak.

Nolanahi ere, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira **jakinarazpenak**, EAEko Administrazioaren Egoitza Elektronikoen bitartez. Esteka honetatik sartuko da egoitza elektronikoa horretara: <https://www.euskadi.eus/hasiera/>. Operadore ekonomikoek, jakinarazpen eta komunikazioak eskuratzeko, "Tramiteak" fitxako "Nire karpeta (Nire kudeaketak bertsio berria)" esteka erabili beharko dute. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, bidalketa horren abisua jasoko dute operadore ekonomikoek, horretarako eman duten helbide elektronikoa.

Halaber, baldintza orokorren 12.5.1.2 klausulan definitutako **komunikazioak** ere bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, jakinarazpenak egiteko azaldu den modu berean, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoetan bestelako bitartekorik azaldu bada. Kasu horretan, lizitatzaileak posta elektronikoen bidez erantzun nahi badie eskatu zaizkion argibide edo errekerimenduei, ezinbestekoa izango da argibideak eta deklarazioak biltzen dituzten dokumentuak edo behar bezala sinatuta aurkeztu behar diren gainerako dokumentuak digitalki sinatu ditzala lizitatzailea ordezkatzeko ahalorde nahikoa daukan pertsonak.

Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako, **II.10 ERANSKINEAN** jasota dagoen deklarazioa aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

13.- A GUTUN-AZALA: «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA»

13.1.- Gutun-azal honetan bildu behar diren dokumentuen zerrenda:

13.1.1.- II.0 eranskina.

13.1.2.- Operadore ekonomikoaren Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), behar bezala beteta. Agiri hori <https://visor.registrodelicitadores.gob.es/home> helbidean bete behar da, kontratatzailearen profilean argitaratutako xml fitxategia erabilita.

Halaber, baldintza orokorren 13.3 klausulan jasota dauden kasuetarako egokiak diren EKAB agiriak ere aurkeztuko dira.

13.1.3.- Behin-behineko bermea, kontratuaren klausula espezifikoaren 8.1 klausulak hala eskatzen badu.

- 13.1.4.-** Baliabideak adskribatzeko konpromisoa, **II.2 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.
- 13.1.5.-** Prestazioa emateaz arduratuko diren langileen izenak eta prestakuntza profesionala, kontratuaren klausula espezifikoan 21.5 klausulan hala eskatzen bada.
- 13.1.6.-** Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzialtzat jotzea, **II.3 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.
- 13.1.7.-** ABEEa formalki eratzeko konpromisoa, **II.4 ERANSKINAREN** arabera.
- 13.1.8.-** Kontratuaren objektu den jardura egiten duten langileei dagokienez operadore ekonomikoak hartutako konpromisoari buruzko deklarazioa, **II.5 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.
- 13.1.9.-** Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluaaren arabera enpresa-talde berekoak diren hainbat operadore ekonomikok aurkezten badute eskaintza, **II.6 ERANSKINA** bete beharko da.
- 13.1.10.-** Kontratuaren klausula espezifikoan 1.2 klausularen arabera sortarik badago, **II.7 ERANSKINA** bete beharko da eskaintza zein sortatarako aurkezten den adierazteko; eta kontratuaren klausula espezifikoan 20.4 klausulak hainbat sorta integratzen duten eskaintzak aurkezteko aukera ematen badu, eskaintza integratzaile hori zein sorta-konbinaziotarako aurkezten den.
- 13.1.11.-** Kontratua dela-eta datu pertsonalak tratatu behar badira, **II.8 ERANSKINA** bete beharko da.
- 13.1.12.-** **II.9 ERANSKINA** bete beharko da, zeinaren bidez berdintasun-plana bete dela egiaztatuko baita eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren prebentzioaren arloko arau-hauste astuna egiteagatik ezarritako zehapen irmoak edo egindako delituak dauden adieraziko baita.
- 13.1.13.-** Kontratuaren klausula espezifikoan 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", baldintza orokorren 12.5.3 klausulan xedatutako ondorioetarako, **II.10 ERANSKINA** bete beharko da.
- 13.1.14.-** Operadore ekonomikoak Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa badira eta kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokkeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.
- 13.1.15.-** Europar Batasunekoak ez diren hainbat operadore ekonomiko izanez gero, SPKLren 68.1 artikuluan araututa dagoen txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokkeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

13.2.- Kaudimena metatzea, ABEEen kasuan:

Aldi baterako enpresa-elkartearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala zehazteko, operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira jarraian xedatuta dagoenaren arabera:

- a) Espainiako enpresek eta/edo Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresek** hartzen badute parte aldi baterako enpresa-elkartean:
- **Sailkatu beharreko kontratua:** ABEEa osatzen duten operadore ekonomikoen sailkapenak metatuko dira. Metaketa egiteko, parte hartzen duten operadore guztiek izan beharko dute obra-kontratistaren sailkapena.
 - **Sailkatu behar ez den kontratua:** bi aukera daude:
 - ABEEa osatzen duten operadore ekonomikoen sailkapenak metatuko dira. Metaketa egiteko, operadore guztiek izan beharko dute obra-kontratistaren sailkapena.

- Operadoreen batek obra-kontratatzen sailkapena ez badauka, operadore guztien ezaugarriak metatuko dira kontratuaren klausula espezifikoaren 21.2. klausulan adierazitako kaudimen-betekizunei dagokienez.

b) Espainiako operadore ekonomikoek eta/edo Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresek eta Europar Batasuneko atzerriko enpresek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuen bateko enpresek hartzen badute parte ABEEan:

- **Sailkatu beharreko kontratua**: lehenengo biek obra-kontratatzen sailkapena eduki beharko dute, eta azken biek, sailkapen hori eduki ezean, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala eduki beharko dute –kaudimen hori kontratuaren klausula espezifikoaren 21.2 klausulan azaltzen diren bitartekoekin egiaztatu beharko dute–, edo bestela kontratatze baimenduta dauden enpresen ziurtagiri bat –Europar Batasuneko ziurtagiria– eduki beharko dute. Ziurtagiri horretan, nahikotzat jotzen diren aipamenak jarriko dira eskatzen diren kaudimen-betekizunei dagokienez.
- **Sailkatu behar ez den kontratua**: lehenengo biei aurreko a) letran sailkatu behar ez diren kontratuei buruz jaso dena aplikatuko zaie, eta azkenari b) letra honetan sailkatu beharreko kontratuei buruz jaso dena aplikatuko zaio.

13.3.- Europako Kontratazio Agiri Bakarrari (EKAB) buruzko erregela zehatzak:

13.3.1.- Kontratua sorka zatituta baldin badago, eta hautaketa-irizpideak, hau da, kaudimena egiaztatze bitartekoak sorten arabera aldatzen baldin badira, EKAB agiri bat aurkeztu behar da sorta bakoitzeko. Hala eta guztiz ere, kaudimena egiaztatze baliabide berberak behar badira sorta guztietarako, eta operadore ekonomikoaren eskaintza lotuko zaien sorta kopuruaren arabera aldatzen badira betekizunak, EKAB bakarria bete beharko da sorta guztietarako.

13.3.2.- Azpikontratatzen:

13.3.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoaren 14.2 klausulako a) letran hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek EKABen II. zatiko D atala bete behar dute, eta honako datu hauek jarri behar dituzte:

- azpikontratatzea aurreikusi duten **kontratuaren zatia(k)**
- azpikontratatzea aurreikusi duten zati bakoitzaren **ehunekoa**
- eta **azpikontratatzen(ari)en izena**.

13.3.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoaren 14.2 klausulako b) letran hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1 klausulan jasotako datuez gain, azpikontratatu behar duten pertsonaren EKAB (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta) aurkeztu beharko dute edo, pertsona bat baino gehiago badira, zenbat pertsona azpikontratatu behar diren eta hainbat EKAB, behar bezala sinatuta.

13.3.3.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatzea: operadore ekonomikoak beste entitate batzuen kaudimena edo baliabideak erabili nahi baditu, bere EKAB eta entitate horietako bakoitzaren EKAB agiriak ere aurkeztu beharko ditu, behar bezala sinatuta, eta II. zatia A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta; gainera, hala dagokionean, IV. zatia ere bete beharko da.

13.3.4.- ABEEa: enpresa batzuek ABEE batean parte hartu nahi badute, bereizitako EKAB bat aurkeztu beharko dute. Bertan jaso beharko dute II. zatitik IV. zatira eskatzen den informazioa, parte hartzen duen operadore ekonomiko bakoitzeko.

13.3.5.- Sailkapena: sailkapena behar izatekotan, edo sailkapen hori behar ez bada eta kaudimenaren ordez kontratuaren klausula espezifikoaren 21.3 klausulan adierazitako sailkapena erabili nahi bada, dagozkion talde, azpitalde eta kategoriak adierazi beharko dira EKAB agiriaren II. zatia A atalean, kontratazio-mahaiko kideek ofizioz eskuratu ahal izan dezaten sailkapenaren ziurtagiria.

13.3.6.- Baztertzeko arrazoiak: III. zatiko D atalean xedatuta dagoenaren ondorioetarako, baztertzeko arrazoi nazionalak (nazionalak bakarrik) honako hauek dira (SPKLren 71.1 artikuluko d) letra):

- Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta euren gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikulua arabera desgaitasunen bat duten pertsonentzat lanpostuen % 2ko erreserbaren kuota ez betetzea.
- 50 langile edo gehiago duten enpresen kasuan berdintasun-plana edukitzeko betebeharra ez betetzea Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, emakume eta gizonen berdintasunari buruzkoaren, 45. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera; eta dagokien lan erregistroan inskribatu beharko dute, Emakumeen eta Gizonen Ordezkaritza Parekideari eta Presentzia Orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako bigarrenean ezarritakoaren arabera.

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

14.- ESKAINTZAK EZ ONARTZEKO ARRAZOIAK, ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA

14.1.- Kontratazio-mahaiak eskaintzak ez onartzea erabakiko du baldin eta:

- a) Kontratuaren klausula espezifikoan 24. klausulan aipatuz besteko gutun-azalen batean sartu badute dokumenturen bat, eta ondorioz kolokan jartzen bada eskaintzaren isilpekotasuna.
- b) Kontraesanak, omisioak, akatsak edo marratuak badituzte, eta horrela eskaintzaren edukia argi ulertzea eragozten bada.
- c) Eskaintzak ez badatoz bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin.
- d) Lizitazioaren oinarriko aurrekontua edo gehieneko unitate-prezioak gainditzen badituzte.
- e) Baldintza-agiri honetako eskaintza ekonomikoaren eredutik nabarmen aldatzen badira.
- f) Zenbatekoan errore nabarmena ageri badute.
- g) Errorea badute edo funtsik ez badute, eta horren ondorioz bideraezinak badira, lizitatzailerak berak onarturik.
- h) AKPA-n edo proiektuan ezarritako baldintza edo betekizunak betetzen ez badituzte.
- i) Irakurtzea edo edukia ikustea eragozten duten birusen bat badute.
- j) Kontratuaren klausula espezifikoan 20.5 klausulak izapidetze-bitartekoak "ez-elektronikoak" direla ezarrita, eskaintza lizitazio-iragarkian azaldutako epea amaitu ondoren aurkezten bada.
- k) Kontratuaren klausula espezifikoan 20.5 klausulak izapidetze-bitartekoak "ez-elektronikoak" direla ezarrita, eskaintza baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulan azaldutako epea amaitu ondoren bidaliko dela iragartzen bada.
- l) Kontratuaren klausula espezifikoan 20.5 klausulak izapidetze-bitartekoak "ez-elektronikoak" direla ezarrita, eskaintzak kanpoan identifikatuta (A, B, C) ez dauden gutun-azaletan aurkezten badira edo gutun-azalak (B, C) itxita aurkezten ez badira.

14.2.- Kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskaintzak hobeto ulertu ahal izateko **argibideak**. Inola ere ez da onartuko lizitatzailerak, argibideak ematean, eskaintzan adierazitako ezer aldatu nahi izatea.

14.3.- Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA) jakinarazi beharko dizkio lizitazio honen esparruan ezagutu ditzakeen balizko egitate edo zantzu guztiak, lehiaren defentsaren alorreko legediaren urraketak izan badaitezke. Berezik, akordio, erabaki edo gomendio kolektibo, edo lizitatzaileraren arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jardueraren zantzu oro, horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada edo lehia benetan eragozten, murrizten edo faltsutzen badute edo eragotzi, murriztu edo faltsutu ahal badute; hori guztia, SPKLren 132. eta 150. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Aldi baterako enpresa elkarte (ABEE) batean batuta aurkezten diren enpresen artean kolusio-zantzuren bat hautemanen gero, kontratazio-mahaiak edo -organoak eskatuko die, SPKLren 69. artikuluekin bat, berariaz eta arrazoibideak emanez justifika ditzatela elkartuta lehiatzeko arrazoiak. Horretarako, SPKLren 150.1. artikulua ezarritako prozedura jarraitu beharko da.

15.- AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA

15.1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak bilera egingo du A gutun-azalean garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak kalifikatzeko.

Baldin eta ondorioztatzen bada aztertutako dokumentazioa zuzena eta nahikoa dela betekizunak bete direla egiaztatzeko, lizitatzailerak guztiak prozeduran onartzen direla erabakiko du.

Baldin eta konpon daitekeen akats edo omisioren bat ikusten badu aztertutako dokumentazioan, hiru (3) egun balioduneko epea emango die dokumentazio hori aurkeztu

duten edo zerbait aurkeztu ez duten lizitatzailleei, ikusitako akats edo omisioa konpontzeko behar den dokumentazioa aurkez dezaten.

Emandako epea amaiturik, zuzentze-fase horretan emandako dokumentazioa aztertuko du kontratazio-mahaiak, eta lizitatzailleak onartuko edo baztertuko diren erabaki. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakiz gero, horretarako arrazoiak adieraziko ditu erabakiarekin batera.

15.2.- Hautatutako eta baztertutako lizitatzaileren zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta, hala dagokionez, baztertze arrazoiak ere adieraziko dira.

15.3.- Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskabideak baloratu aurretik, kontratazio-organismo titularrak informazio hau eskatuko du, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren MINERVA tresnan sartuko:

1. CoFFEE plataforman aurrez zegoen eragiketaren erreferentzia-kodea (CRO).
2. Kontratazio-organoko kideen eta kide anitzeko laguntza-organoko kideen izen-abizenak eta IFZk biltzen dituen zerrenda.
3. Prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoen izen-abizenak edo IFZk biltzen dituen zerrenda. Pertsona juridikoak badira, sozietate-izena eta IFZk adieraziko dira. Parte-hartzaileak Espainiako IFZrik ez badauka, MINERVA ez du izango informaziorik analisia egiteko, eta, beraz, horrelako kasuetan, bandera beltzari dagokion operatiboa jarriko da martxan.

Datuak gurutatu eta hurrengo egunean, interes-gatazkari buruzko arrisku-analisiaren emaitza erakutsiko dio MINERVA kontratazio-organismoari. Analisi horren bidez, bandera gorriak edo beltzak dauden detekta daiteke:

- Bandera gorri detektatu ezean, prozedurak jarraitu egingo du.
- Bandera gorri bat edo gehiago detektatuz gero, ukitutako erabakitzailearen egoera zein den argitu beharko da. Egoera argitu bitartean, prozedurak ezin izango du jarraitu. Horretarako, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 5. artikuluan jasotako prozedura bete beharko da -HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa-.
- Bandera beltz bat edo gehiago detektatzeak ez du esan nahi prozedura automatikoki etengo denik. Halakoetan, kontratazio-organismoak parte-hartzaileei eskatuko die haien benetako titulartasunaren berri eman dezatela. Parte-hartzaileek bost egun balioduneko epea izango dute kontratazio-organismoari argibideak helarazteko, informazio-eskaera egiten denetik zenbatzen hasita; informazioa eman ezean, parte hartzen ari diren prozeduratik kanpo geratuko dira.

16.- BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA

16.1.- Gutun-azalak jendaurrean irekitzea.

Kontratazio-mahaiak, ekitaldi publikoan, lizitatzailleak onartu edo baztertu diren jakinaraziko du eta, ondoren, onartu diren lizitatzailleak aurkeztu zituzten C gutun-azalak irekiko ditu. Saioa "streaming" bidez jarraitu nahi izanez gero, hurrengo estekan sakatu: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu>

16.2.- Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Dokumentazioa kontratua sustatzen duen zerbitzuari bidaltzeko erabakia hartu dezake kontratazio-mahaiak, zerbitzuak berak egiazta dezan eskaintzen edukia ez dela PTPAn ezarritako zehaztapenen aurkakoa, eskaintzak balioets ditzan eta txostena egin dezan.

Baldin eta kontratua sustatzen duen zerbitzuak, ebaluazioa egitean, egiaztatu egiten badu eskaintzaren bat baldintza-agirien aurkakoa dela, edo beste gutun-azal batean sartu behar lituzkeen dokumentu edo datuak sartu dituela gutun-azal honetan, txostenean idatziko du inguruabar hori. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari bidaliko dio eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

16.3.- Salbuespena: aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak ebaluatzea.

Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulak ezartzen badu aditu-batzorde bat edo erakunde tekniko espezializatu bat izendatu behar dela eskaintzaren zati hau ebaluatzeko, izendatutako organismoari bidaliko dio dokumentazioa kontratazio-mahaiak,

ebaluazioa egin eta txostena egin dezan. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari bidaliko dio eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

17.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA

17.1.- GUTUN-AZALAK IREKI AURREKO JARDUKETAK.

17.1.1.- Balio-iritzi batean oinarritu behar duten irizpideak erabiltzen dira.

Baldintza orokorren 16.2 klausulan aurreikusitako kasu orokorrean, B gutun-azalak ireki aurretik, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak:

- Bileraren zati publikoa hasi aurretik:
 - Kontratua sustatzen duen zerbitzuak egindako balorazio-txostena aztertuko du, eta eskaintzak balioetsi eta puntuatuko ditu.
 - Baldintza orokorren 14.1 klausulan aurreikusitako kasuetan, eskaintza(k) ez onartzea erabakiko du.
- Bileraren zati publikoa hasi ondoren:
 - Eskaintza bakoitzari emandako puntuak jakinaraziko dizkie ekitaldi publikora bertaratu direnei eta, hala badagokio, onartu ez diren eskaintzen berri ere emango die, ez onartzeko arrazoiak azalduta.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan aurreikusitako salbuespenezko kasuan, kontratazio-mahaiak, gutun-azalak ireki aurretik, aditu-batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak emandako puntuak jakinaraziko ditu eta, hala badagokio, onartu ez diren eskaintzen berri ere emango du, ez onartzeko arrazoiak azalduta.

17.1.2.- Ez dira erabiltzen balio-iritzi batean oinarritu behar duten irizpideak.

Gutun-azalak ireki aurretik, zein lizitatzaille onartu diren eta zein baztertu diren jakinaraziko du kontratazio-mahaiak.

17.2.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Kontratazio-mahaiak, aurretiko jarduketak egin ostean, ekitaldi publikoan irekiko ditu baztertu ez diren lizitatzailleek aurkeztutako B gutun-azalak, eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA

Jarraian, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak, beharrezkoak diren bileretan:

18.1.- Egiatzatuko du ea eskaintzaren batek baldintza orokorren 14.1. klausulan ezarritako ez onartzeko arrazoiaren bat duen. Halakorik egonez gero, eskaintza ez onartzeko erabakia hartuko du.

18.2.- Egiatzatuko du ea onartutako eskaintzek kontratuaren klausula espezifikoaren 22.3 klausulan ezarrita dauden mugak gainditzen dituzten, eta eskaintzaren batek hala egiten badu SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusita dagoena egingo du. Kontratazio-mahaiak erabakiko du zein izango den entzunaldi-epea, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta, baina gutxienez hiru (3) eta gehienez hamar (10) egun baliodunekoa izango da.

Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari proposatuko dio bete ezin diren eskaintzak onartzea ala ez onartzea.

18.3.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuiko ditu eta eskaintzarik onena zein den zehaztuko du, haietariko bakoitzak adjudikazio-irizpide guzti-guztietan lortutako puntuak batuta.

Kalkulu hori egiteko, ez ditu kontuan hartuko ez onartzeko proposatu diren eskaintzak.

Eskaintza bik edo gehiagok puntuazio berbera lortzen badute, errekerimendua egingo die eskaintzok aurkeztu dituzten lizitatzailleei, gehienez ere hamar (10) egun baliodunekoa epean aurkez ditzaten berdinketa hausteko irizpide zehatzak betetzeari buruzko egiaztagiria, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoaren 23. klausulan irizpide horiek azaltzen badira. Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoaren 23. klausulan irizpide zehatzik ezarri ez bada, baldintza orokorren 19. klausulan jasotzen diren irizpideei jarraituko zaie berdinketa hausteko.

19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.

Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan ez bada aurreikusten berdinketa hausteko irizpide zehatzik, eta kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren berdinketarik badago zenbait eskaintzaren artean, honako irizpide sozial hauek (adierazitako hurrenkeran) aplikatuko dira berdinketa ebazteko, betiere eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta:

- a) Lizitatzaille bakoitzaren plantillatik desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena; berdintasuna izatekotan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan inklusio neurrien bidez dauden langile kopuru handiena duena.
- b) Lizitatzaille bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Lizitatzaille bakoitzaren plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

Irizpide horiek aplikatze aldera, lizitatzailleek irizpideok egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio, lan-kontratu egokiak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioen dokumentuak eta zuzenbidean onartutako bestelako dokumentuak ere aurkeztuz, baldin eta aipatu diren irizpide sozial horiek egiaztatu nahi badituzte.

IV.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

20.- ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA

Kontratazio-mahaiak puntuen arabera sailkatuko ditu eskaintzak, puntu gehien eskuratu duenetik puntu gutxien duenera, eta sailkapen horren arabera igorriko dio adjudikazio-proposamena kontratazio-organoari, puntu gehien eskuratu duen lizitatzaillearen aldeko proposamena, hain zuzen ere.

21.- ADJUDIKATU AURREKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

21.1.- Kontratazio-organoak adjudikazio-proposamena onartu ondoren, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailari errekerimendua egingo zaio, errekerimendu hori jasotzen duenetik aurrera zenbatuta hamar (10) egun balioduneko epean honako dokumentu hauek aurkez ditzan:

1. Jarduteko gaitasuna daukala egiaztatzeko:

1.1.- Pertsona juridikoak diren Espainiako lizitatzailleek honakoa aurkeztu beharko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeko: euren jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eraketa-eskritura, aldaketen eskritura, estatutuak edo sortze-egintzaren dokumentua, hala badagokio pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan inskribatua.

1.2.- Espainiakoak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa diren lizitatzailleek, SPKLren 84.2 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

1.3.- Atzerriko gainerako lizitatzailleek SPKLren 84.3 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

2. Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan edo foru-aldundiaren Zerga Administrazioko errolda baliokidean inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, lizitazio-prozeduran parte hartzen den egunean benetan egindako jarduera islatu behar duena.

3. Nola enpresa kontratistaren hala azpikontratisten benetako titulartasunaren identifikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuan horri ematen zaion definizioaren arabera, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari dagokionez, **V.0. ERANSKINEAN** Benetako Titulartatasunaren Erantzukizunpeko Adierazpena.

4. Ahalordea: baldin eta eskaintza sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo lizitatzaillea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, berariazko ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du sinatzaileak. Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko da ahalorde hori, baldin eta, zein motatako pertsona juridikoa den kontuan hartuta aplikatu behar den araudiaren arabera, nahitaez egon behar bada inskribatuta.

5. Kaudimena: kontratuaren klausula espezifikoan 21.1 klausularen arabera kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk edukitzea nahitaezkoa bada eta kontratuaren klausula espezifikoan 21.2 klausularen arabera sailkapena edukitzea nahitaezkoa ez bada (edo, nahitaezkoa izanda ere, lizitatzaillea EBko estatu kide batekoa edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu batekoa bada), kontratuaren klausula espezifikoan 25.1 klausulan azaltzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da betekizun horiek egiaztatzeko, salbu eta kaudimenaren ordezkari kontratuaren klausula espezifikoan 21.3 klausulan azaltzen den sailkapena erabiliko bada.

6. Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala: kontratuaren klausula espezifikoan 21.4 klausulan azaltzen bada eskaintzak aurkezteko azken egunean eduki behar dela gaikuntza.

7. Lizitatzailleak kontratua betearazteari adskribatu nahi dizkion baliabide materialak eta giza baliabideak eskura izatea: kontratuaren klausula espezifikoan 25.2 klausulan jasota dagoen dokumentazioa.

8. Kontratuaren indarraldi osoan beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak eskura izatea: lizitatzailleak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiliko baditu, **V.1 ERANSKINEAN** agertzen den **"Beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzeko konpromisoa"** aurkeztu beharko du.
9. Kontratatzeko debekurik ez izatea: kontratatzeke debekurik ez izatea egiaztatzen duten dokumentuak, SPKLren 85. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera (**V.2 ERANSKINEAN**).
10. Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea: zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko, zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak eta zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko, Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria. Lizitatzailleak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
11. Bermea: behin betiko bermea eratu eta, beharrezkoa bada, bai eta osagarria ere eratu izanaren frogagiria.
12. Enpresa Bermatuen Erregistroa (EBE): Enpresa lizitatzailleek kontratuaren exekuzioaren zati bat azpikontratatu badute, EBEen inskribatuta egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
13. Publizitate-gastuak: kontratuaren klausula espezifikoaren 7. klausulan hala azaldu bada, dagozkion publizitate-gastuen ordainagiria.
14. Erreserbatutako kontratuak: kontratuaren klausula espezifikoaren 20.7 klausularen arabera kontratua erreserbatua bada, lizitatzailleak dokumentu bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.
15. Kopia sinplearen bidez aurretiaz aurkeztu zirenen artean eska daitezkeen jatorrizko dokumentuak.

Bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa bidez egin ahal izango dira ziurtagiriak.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan azaltzen diren erregistro, zerrenda eta datu-baseetan inskribatzeak klausula horretan azaltzen diren ondorioak izango ditu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeari dagokionez, betiere dohainik sartu badaiteke horietara.

16. Legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duena, bere erantzukizunpean, **V.5 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.
17. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (SEEP) ezarritako zeharkako printzipioak betetzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, **V.6. ERANSKINEAN** erantsia.
18. Ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko buruzko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH Printzipioa), **V.7. ERANSKINEAN** erantsia.
19. Iruzuraren aurkako politika onartu eta ezagutzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, **V.8 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.
20. Finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeke erantzukizunpeko adierazpena, **V.9 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

Klausula honetako aurreko puntuetan adierazitako dokumentazioa zuzendu behar bada, zuzentzeko epea hiru (3) egun baliodunekoa izango da, dagokion errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

21.2.- Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez badu, eskaintzan atzera egin duela ulertuko da. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa sartu gabe), zigor gisa; zenbateko hori behin-behineko bermetik hartuko da, baldin eta hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko a) letran ezarritakoa.
- Dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileri, euren eskaintzak zein ordenatan sailkatu diren kontuan hartuta.

22.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA

- 22.1.-** Adjudikazioa lortzen duen proposamenak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta bost (5) egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua kontratazio-organoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari aldez aurreko fiskalizazio-txostena eskatzea nahitaezkoa denean izan ezik.
Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1 d) artikulua aurreikusten duenez, ebazteko gehieneko epea eten egingo da administrazio bereko edo beste bateko organo bati nahitaezko txostenak eskatzen zaizkionean, eskaera egiten denetik (interesdunei jakinarazi beharko zaie) txostena jasotzen den arte (hori ere jakinarazi beharko zaie). Etenaldi hori hiru hilabetekoa izango da gehienez ere.
- 22.2.-** Adjudikatzeko ebazpena lizitatzaillei jakinaraziko zaie, eta horrekin batera, hala badagokio, eskaintzaren barruan balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideen bidez ebaluatu diren zatiak balioesteko txostena eta eskaintza anormalki baxuegien justifikazioa aztertzeke txostena; biak ere, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.
- 22.3.-** 44. artikuluko errekurtsio berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak kontratua beste lizitatzaille bati adjudikatu behar badio, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaille horri, baldintza orokorren 21. klausulan jasotako dokumentazioa aurkez dezan.
- 22.4.-** Adjudikazioa betiere bitarteko elektronikoekin jakinaraziko da.
- 22.5.-** Kontratua formalizatu aurretik, Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzen duenean eta adjudikazio-prozeduran atzera egiten duenean (SPKLren 152.2 art.) lizitazioan parte hartzeko gai diren enpresa hautagaiei edo lizitatzaillei egin dituzten gastuengatik konpentsazioa ematea aurreikusten da, betiere gastu horiek espedientearen behar bezala justifikatzen badira. Konpentsazio horren gehieneko muga lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren %0,1 da, BEZik gabe, kontratuaren klausula espezifikoaren 26.2 puntuan ezarritakoa salbu.

23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

- 23.1.-** Kontratua SPKLren 153. artikulua xedatzen dituen baldintza eta epeetan formalizatuko da, eta aurretiaz honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira bost (5) egun balioduneko epean, dagokion errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:
- a)** ABEEa eratzeko eskritura publikoa, adjudikaziodunek ABEE batean elkartuta parte hartu badute.
 - b)** Eraikuntzako arrisku orotako eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizak, baldintza orokorren 27.1 eta 27.2 klausuletan azaltzen denaren arabera, eta hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoaren 9. klausulan bereziki adierazten direnak. Halaber, poliza horien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.
 - c)** Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala, kontratuaren klausula espezifikoaren 21.4 klausulan zehaztuta badago, eta, gainera, klausulan azaldu bada kontratua formalizatu baino lehen eduki behar dela gaikuntza hori.
 - d)** Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoaren 26.4 klausulan azaltzen den dokumentazioa.
 - e)** Kontratua gauzatzeko, kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren izenean, zerbitzariak non egongo diren eta zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak nondik emango zaizkien adierazten duen adierazpena, **VI. ERANSKINAREN** bidez.
- 23.2.-** Formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean, perfektzionatzen denetik aurrera zenbatuta. Halaber, erregulazio harmonizatuko kontratua bada, formalizazioari buruzko iragarkia bidaliko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, gehienez ere hamar (10) eguneko epean, formalizatzen denetik aurrera.
- 23.3.-** Adjudikaziodunari leporatu ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua legearen arabera ezarritako epeetan formalizatzea ezinezkoa bada, honako hau egingo da:

- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa sartu gabe), zigor gisa; zenbateko hori behin-behineko bermetik hartuko da, baldin eta hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko b) letran ezarritakoa.
- Kontratua hurrengo lizitatzailerari adjudikatzea, eskaintzak zein ordenatan sailkatu diren kontuan hartuta, baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotako dokumentazioa errekeritu eta aurkeztu ondoren.

23.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulan behin-behineko bermea eskatu bada, kontratua formalizatu ondoren automatikoki azkenduko da, eta kontratista bihurtu ez diren lizitatzailer guztiei berehala itzuliko zaie. Bermea itzultzeko, aurkezteko erabili den araubide berbera erabiliko da.

23.5.- Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen HFP/1030/2021 Aginduan, irailaren 29koan (irailaren 30eko BOE), xedatutakoari jarraikiz, kontratua formalizatzearekin batera, hurrengo hauek egin beharko dira:

- a) Inplikaturako administrazioen artean datuak lagatzea onartzea, Europako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorritik Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin. Horretarako, izenpetu beharko da datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena (VII.3 eranskina).
- b) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoa hartzea, baldin eta kudeaketaren xede den eremuan eragina izan badezakete, V.6 eranskinean dagoen konpromisoa sinatuz.

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA

24.- OBRA-ZUZENDARITZA ETA OBRA-ORDEZKARIA

24.1.- Obra egiteko zuzendaritza, ikuskaritza, egiaztapen eta zaintza lanak: botere adjudikatzailleak obra behar bezala egiten dela zuzentzeko, ikuskatzeko, egiaztatze eta zaintzeko lana egingo du zuzendaritza teknikoaren bitartez. Zuzendaritza teknikoa botere adjudikatzaillearen ordezkaria eta kontratuaren arduraduna izango da, eta hala, kontratistari egokiak diren agindu eta jarraibideak emango dizkio, SPKLren 238. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

24.2.- Obra-ordezkaria: kontratistak obra-ordezkari bat izendatu ahalko du –eta pertsona juridikoa izanez gero, izendatu beharko du– (aurrerantzean “Ordezkaria”), ordezkariatzeko botere nahikoarekin. Ordezkari horrek haren izenean botere adjudikatzaillearen aurrean betebeharrak bere gain hartuko ditu, obren bilakaera zuzen eta onerako.

Ordezkariak obra egiteko lana antolatu behar du, obra behar bezala garatu eta amaitzeko, obra egiten den bitartean sor daitezkeen arazoak sortzeko proposamenak egin beharko ditu, baita laguntza eman ere, eta zuzendaritza teknikoak emandako aginduak interpretatu eta betearazi beharko ditu.

Kontratistak ordezkaria izendatuko du eta kontratazio-organoari izendapen horren berri emango dio, kontratua formalizatu aurretik onar dezan. Ordezkari izendatutako pertsonaren izenarekin batera, pertsona horrek kontratuaren objektu direnen izaera bereko obretan edo antzekotan izan duen esperientziaren egiaztagiria aurkeztuko dira, eta haren helbidea ere bai, jakinarazpenetarako.

Kontratuaren klausula espezifikotik hala adierazten bada, aurreko paragrafoan azaldu den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da ordezkariak eskatzen den lanbide-titulazioa daukala egiaztatze dokumentazioa, eta hala badagokio, ordezkariaren mende egongo diren beste teknikari batzuen izendapena ere bai.

Kontratazio-organoak kontratistari idatziz jakinaraziko dio ordezkari izateko proposatutako pertsona eta, hala badagokio, talde teknikoko pertsonak onartzeko edo ez onartzeko erabakia, hiru (3) egun balioduneko epean. Gaitzetsiz gero, kontratistak beste pertsona bat izendatu beharko du ordezkari, edo beste teknikari batzuk izendatu beharko ditu, kontratazio-organoak onarpena emateko ezarritako epean.

Obra egiten den bitartean, kontratazio-organoak uneoro eskatu ahal izango du ordezkaria eta, hala badagokio, haren mende dagoen talde fakultatiboko edozein pertsona aldatzeko, edo kontratistak hala eskatuta aldatuta hori baimentzeko, lanen bilakaera kontuan hartuta hori komenigarria bada.

25.- LANAK HASTEA, ZUINKETA EGIAZTATZEA ETA SEGURTASUN- ETA OSASUN-PLANA

25.1.- Lanak hastea.

Obra-kontratua betearaztea zuinketaren egiaztapen-akta sinatzearekin hasiko da, eta hura kontratuaren klausula espezifikoen 6.3 klausulan azaltzen den gehieneko epean egin behar da.

HAKLEOren 139.4 artikuluan jasota dagoen kasuan, kontratistak kontratazio-organoaren ebazpenaren, obren hasiera baimentzen duen horren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen betearazteko epea.

25.2.- Obraren zuinketa egiaztatzea.

25.2.1.- Zuinketa egiaztatze, SPKLren 237. artikuluan eta HAKLEOren 139. artikuluan xedatuta dagoenari jarraituko zaio.

25.2.2.- Zuinketa egiaztatzeko ekitaldian obraz arduratzen den botere adjudikatzaileraren zerbitzuko ordezkaria, obra-zuzendaritza tekniko eta kontratista; azken horren ordezkaria joan ahalko da.

Obraz arduratzen den zerbitzuko ordezkaria kontratistari hitzordua ezarriko dio zuinketa egiaztatzeko ekitaldian ager dadin, zitazioan agertzen den datan.

Jakinarazpen horren egiaztatzea espedienteari atxikiko zaio.

25.2.3.- SPKLren 237. artikulua xedatzen duenez, zuinketa egiaztatu ondoren akta bat egingo da HAKLEOren 140. artikuluan eta AKOaren 24. klausula jasotzen diren eduki eta ondorioekin.

25.3.- Laneko segurtasun- eta osasun-plana.

25.3.1.- Obra hasi aurretik nahitaez onartu beharko da laneko segurtasun- eta osasun-plana (aurrerantzean "Plana"), urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikuluan azaltzen den hori.

25.3.2.- Kontratuaren klausula espezifikoan 18.2 klausulan azaltzen den gehieneko epean, kontratua formalizatzen denetik edo, hala badagokio, obraren hasiera baimentzeko ebazpena jasotzen denetik aurrera zenbatuta, kontratistak kontratazio-organoari plana aurkeztuko dio, koordinatzaileak obraren segurtasun eta osasunari buruz egindako txostenarekin batera, edo azken hori beharrezkoa ez bada, zuzendaritza teknikoaren txostenarekin batera, onets ditzan.

25.3.3.- Kontratistaren erruz plana aurkezteko gehieneko epea urratu arren, eta horren ondorioz plana onartu ezin izan arren, zuinketa egiaztatu ahal izango da, edo hala badagokio, obra hasteko baimena eman ahal izango da; dena dela, obrak hasteko, aurretiaz plana onartu beharko da, esan denez. Kasu horretan, kontratuaren epea zenbatzen hasiko da zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen edo obra hasteko baimena ematen den egunean, eta hori guztia jasota utziko da.

Kasu horretan, kontratistak ezin izango du betearazteko epea luzatzeko eskatu.

25.3.4.- Kontratistak planean jaso beharko ditu aplikatu beharreko indarreko legeriak, eraikuntza oneko arauak eta baldintza-agirietako eta segurtasunari eta osasunari buruzko azterlaneko zehaztapen eta preskripzioak ezartzen dutena betetzeko beharrezko neurri eta elementu guztiak. Adjudikazioaren baja egonez gero segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanean ezarritako zenbatekoa gehienez jasotzeko eskubidea izango du.

26.- LAN-PROGRAMA

Kontratuaren klausula espezifikoan 18.3 klausulan azaltzen bada kontratistak lan-programa aurkeztu behar duela, kontratistak lan-programa hori aurkeztu beharko du, kontratazio-organoak onar dezan, hogeita hamar (30) eguneko epean, kontratua formalizatzen denetik, edo obrak hasteko baimena jakinarazten denetik aurrera. Plana aurkeztu eta hurrengo hamabost (15) eguneko epearen barruan, kontratazio-organoak ebazpena emango du, eta, hala badagokio, aldaketak sartzea edo zenbait preskripzio betetzea ezarriko du, betiere, horrela kontratuaren klausulen aurka egiten ez bada.

Lan-programan ezin izango da aldatu kontratuan ezarritako baldintzarik. Beraz, epe osoa, bide kritikoa eta epe partzialak eskaintzako berberak izan behar dira.

Lan-programa, onartu ondoren, kontratu-dokumentazioan sartuko da.

Lan-programa onartzen denetik aurrera, kontratistak obra-zuzendaritza teknikoari eskatu ahal izango dizkio legearen arabera egokiak diren ziurtagiri aurreratuak.

Obra egiteko lana bizkortu ahal izango da, baita lan-programa aurreratu ere, hurrengo urterako programatutako obrak egin ahal izateko. Kasu horretan, ordainketari dagokionez baldintza orokorren 34.1 klausulako azken paragrafoan aurreikusten denari jarraituko zaio. Dena dela, obraren kalitatea bermatzeko, erritmo egokian egin behar da; horregatik, botere adjudikatzailerak baimena eman beharko du, kontratistak lan-programa aurreratu ahal izan dezan. Unean uneko urterako programatutako obrak egiteari ezin izango zaio utzi.

Lan-programa barra-diagramen bidez egin ahal izango da; obra ahalik eta ondoen planifikatzeko, behar beste zati, kapitulu, unitate edo unitate-zatitan zatitu ahal izango da. Nolanahi ere, HAKLEOren 144. artikuluko 3. apartatuan adierazten diren datuak sartu beharko dira.

Urteko ordainketak birdoitzeko, lan-programa berrikusi beharko da, urteko zenbateko berriei egokitzeko. Lan-programa berriak kontratazio-organismoaren onespena beharko du.

27.- ASEGURUAK

Betearazteko epe osoan eta berme-epean, kontratistak kontratatuta eduki beharko ditu nahitaezko aseguruak, bai eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan ezartzen diren aseguruak ere. Betiere, bere kontura eta adierazita dauden baldintzetan, betearazteko epe osoan eta berme-epean kontratatuta mantenduko ditu honako aseguru hauek:

27.1.- Eraikuntzako arrisku orotako aseguruak.

Kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan zehazten den kopuru aseguratuan, egindako obrek eta egiten ari direnek jasaten dituzten kalteak estaltzeko; hona hemen estaldurak (batzuk aipatze aldera, ez guzti-guztiak):

- a) Suteak, tximistak, leherketak, lapurrekak, espoliozioak, inpaktuak, trebetasunik ezak, zabarkeriak, egintza bandaliko eta asmo gaiztokoak, naturaren arriskuak eta/edo gainerako arrisku guztiak.
- b) Hauetatik eratorritako beste berme batzuk:
 - Diseinu-akatsak, fabrikatzailearen arriskua.
 - Aparteko orduak, hondakinak kentzeak, eraispeneak, agintaritzak hartutako neurriek eta abarrek eragindako gastuak.
 - Lehendik dauden ondasunei egindako kalteak.
 - Grebak, matxinadak eta terrorismoa.

Aseguruak eraikitze-aldian gertatzen diren galera eta kalte guztiak estali behar ditu, bai eta kontratu honetan ezarritakoa behar bezala betetzeko aldi horretan edo hurrengo batzuetan egiten diren lanek sortzen dituztenak ere.

Mantentze-epealdia kontratuaren klausula espezifikoen 15.3 klausulan adierazten den berme-epea. Obren harrera egiten denetik hasiko da mantentze-epealdia.

Betebehar hori operadore ekonomikoak lehenik daukan eraikuntzako arrisku orotako aseguruaren bitartez bete daiteke, kontratua hartzeko hedatuta, hain zuzen. Nolanahi ere, baldintza hau bete behar da: ezarritako zenbatekoa estali behar da, eta hori frogatzeko ahalorde nahikoa daukan pertsona batek aseguru-konpainiaren izenean emandako ziurtagiria aurkeztu behar da.

27.2.- Erantzukizun zibileko aseguruak.

Honako arlo hauek hartzen dituenak: orokorra, patronala, gurutzatutakoa eta amaitutako lanak; aseguruak kontratista, azpikontratatista eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.1 klausulan azaltzen den botere adjudikatzailea –obren sustatzailea den aldetik– izango dira, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan azaltzen diren gutxieneko baldintzen arabera.

27.3.- Eraikuntzako arrisku orotako eta erantzukizun zibileko aseguruetarako klausula bateratua.

Kontratua betearazi bitartean obrak amaitzeko aurreikusitako data atzeratuko balitz edo/eta proiektuaren edukia aldatuko balitz, kontratistak bidezko polizak kontratatu edo/eta luzatu beharko ditu aldi osagarri horretarako, aldatu beharreko ezaugarriak kontuan hartuta. Era berean, polizak ordaindu izana egiaztatzen du(t)en ordainagiri(k) bidali beharko d(it)u.

27.4.- Hamar urteko aseguruak.

Kontratistak eraikuntzaren kalteetarako hamar urteko aseguruak kontratatu beharko du baldin eta hori ezarri bada kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan. Baldintza hauek bete beharko ditu:

- Aseguratu gisa jarri beharko dira kontratuaren klausula espezifikoen 19.1 klausulan azaltzen den botere adjudikatzailea eta eraikina nahiz eraikinaren zatiak erosten dituztenak.
- Kapital aseguruak obraren azken kostuaren % 100 izan behar da (egikaritze materialaren aurrekontua, gastu orokorrak eta mozkin industrialak, teknikarien ordainagiri guztiak

(BEZa barne), lizentziak, tasak eta zergak). Kontrol teknikoko erakundea kontratatzetik eratorritako gastuak kontratistaren kontura izango dira.

- Hamar urteko aseguruak estali behar dituen kontingentziak indarreko legeriak oinarritzat jotzen dituenak eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoan 9. klausulan zerrendatutakoak izango dira.
- Hamar urteko poliza horren barruan daude horri atxikita dauden eta/edo osagarriak diren gainerako polizak, kontratuaren klausula espezifikoan 9. klausulan ezarritakoaren arabera.

Era berean, obraren egikaritze materiala hasi baino lehen kontratatu behar du poliza kontratistak, eta hamar urteko aseguruaren aurre-poliza edo hasierako poliza aurkeztu kontratazio-organoari. **Hiru (3) hilabeteko** epea izango du horretarako, kontratua formalizatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Obraren harrera egin ondoren, polizaren indarraldi-hasieraren eranskina aurkeztu beharko dio kontratistak kontratazio-organoari. **Zazpi (7) egun balioduneko** epea izango du horretarako, harrera egin denetik aurrera zenbatzen hasita.

Horretarako, harrera egin arte emandako ziurtagiri guztiak batuta kalkulatu da obraren balio erreala. Baldin eta azken ziurtagirian aldaerarik egongo balitz eta, obraren harrera egin zenetik gehienez hiru (3) hilabeteko epean, azken ziurtagirian ikusiko balitz obraren azken neurketa ez datorrela bat ziurtagiri guztien baturarekin, kontratistak erregulazio-eranskin bat aurkeztu beharko du, aseguraturako zenbatekoa ez dadin izan obraren balio erreala baino txikiagoa. Eranskin hori kontratazio-organoari aurkeztu beharko zaio. **Zazpi (7) egun balioduneko** epea izango du horretarako, kontratazio-organoak azken ziurtagiria onesten duenetik aurrera zenbatzen hasita.

28.- BETEARAZTEARI ADSKRIBATU BEHARREKO BALIABIDEAK

Kontratista behartuta dago baliabideak adskribatzeko konpromisoan adierazitako baliabideak, halakorik egonez gero, kontratuaren betearazpenari adskribatzera (**II.2 ERANSKINA**), eta horrez gain, kontratuaren betearazpena kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintza eta epeen arabera egiteko behar diren baliabideak ere adskribatu beharko ditu.

Adierazitako baliabide materialak ordeztu nahi badira, ezinbestekoa izango da aldez aurretik jakinarazpena egitea zuzendaritza teknikoari. Hark ziurtatuko du, emandako ziurtagirien bitartez, proposaturako baliabideak nahitaezko betekizunak betetzen dituela, eta zazpi (7) egun balioduneko epea izango du baimena jakinarazteko. Zuzendaritza teknikoak ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste baliabide bat proposatu ahal izango du.

Adierazi diren giza baliabideak ordezteko, honako prozedura eta baldintza hauei jarraitu beharko zaie:

- a) Kontratistak eskatutako aldaketa: arrazoi justifikatuak direla-eta ordezpenean bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio zuzendaritza teknikoari. Hamabost (15) egun baliodun lehenago jakinarazi beharko du –arrazoia ez bada aldi baterako lanerako ezintasuna edo heriotza–, eta datu hauek adierazi beharko ditu:
 - Ordeztu nahi den pertsona nor den eta zergatik ordeztu nahi den.
 - Ordezkoa izateko hautagaiaren proposamena, ordezko izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, zuzendaritza teknikoak ordezpenean baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Beste hautagai bat proposatu ahal izango du kontratistak.

- b) Botere adjudikatzailerak eskatutako aldaketa: kontratua behar bezala betearazteko ordezpenean bat egin behar dela uste badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, arrazoiak adierazita. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, betekizunak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, hori ziurtatzen duten ziurtagiriak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, zuzendaritza teknikoak ordezpenean baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat

proposatu beharko du, aurreko apartatuan aipatu diren baldintzei jarraituz.

Halaber, arau berak aplikatuko zaizkie kaudimena egiaztatzeko emandako baliabideei, baita kontratistak lizitazio-fasean beste entitate batzuen kaudimena eta/edo baliabideak aurkeztu baditu ere.

29.- BETEBEHARRAK LANAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN, LANEKO SEGURTASUNAREN, OSASUNAREN ETA SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ARLOAN

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, bereziki, honako hauek:

29.1.- Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.

29.2.- Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

29.3.- Halaber, indarreko araudiak lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, betebegar hauek bete dituela frogatu behar du:

- a)** Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezarri.
- b)** Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratu, urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onetsi zuen Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikulua araberako lan-arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatu. Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek ebaluatzen eta egiaztatzen badu eskatzen diren neurriak betetzen diren ala ez. Beste edozein bide egokiren bidez ere frogatu daiteke betebegar hori bete den.
- c)** Kontratutako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio-jarduera planifikatu.
- d)** Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen V. kapituluaren ezarritako kontsulta eta partaidetza nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat eduki edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.
- e)** Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren edo ez kontrolatzeko prozedura edukitzea eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartzea.
- f)** Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda eduki.
- g)** Kontratuaren betearazpenean parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzera arisku espezifikoak, babes-neurriak eta larrialdi-neurriak buruzko informazioa jaso dutela egiaztatzea, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza jaso dutela ere (azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18. eta 19. artikulua, urriaren 18ko 32/2006 Legea eta abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretua), lan-arriskuen prebentziorako planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman dela.
- h)** Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztatzea eduki, beharrezkoak balira.
- i)** Jangela- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak eman, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.
- j)** Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatu, langileen atseden-egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

- 29.4.-** Kontratistak kontratuaren betearazpenaren zati bat azpikontratatzeko badu, aurreko betebeharren egiaztagiria eskatu beharko dizkie azpikontratatuari, eta kontratazioa egin duen botere adjudikatzailerari eman.
- 29.5.-** Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, indarreko arauak xedatutakoa bete behar du adjudikaziodunak; berak edukiko du horren erantzukizuna, inola ere ez botere adjudikatzailerari.
- 29.6.-** Plegu honen xede den obra sartzeko denez Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planak jasotzen eta finantzatzeko dituen jarduketako artean, kontratistak honako betebeharrak hauek izango ditu bere buruarekiko eta, hala badagokio, obra horren azpikontratistekiko:
- Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen HFP/1030/2021 Aginduaren, irailaren 29koaren (2021eko irailaren 30eko BOE, 234. zk.), 8. artikuluko bigarren apartatuan aurreikusitako kontratistak eta azpikontratistak identifikatzea, zehazki:
 - I. Kontratistaren eta azpikontratisten IFZ.
 - II. Izena edo izen soziala
 - III. Kontratistaren edo azpikontratistaren zerga-egoitza.
 - IV. Inplikaturako administrazio publikoaren arteko datu-lagapena onartzea, aplikatzeko den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, VII.3 eranskinaren bidez
 - V. SEEPean ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, V.6 eranskinaren bidez.
 - VI. Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen eroldan inskribatuta dagoela egiaztatzea, lizitazio-prozeduran parte hartzen den egunean benetan egindako jarduera islatu behar duen agiri baten bidez.
 - Interes-gatazkarik ezaren adierazpena bete behar dute horretara behartuta dauden pertsona guztiek (V.5 eranskina).
 - Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako neurrien plana kontratuari aplikatzea – erakunde erabakitzaile edo betearazleak alde aurretik onartutako kontratuari dagokion interes-gatazka barne hartzen duena–, bermatzeko eta adierazteko, jarduketa-arloari dagokion NEXT GENERATION prozedura ireki bidez obra bat kontratatzeke administrazio-klausula partikularren agiriaren ereduaren, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, zehazki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzea, detektatzea eta zuzentzea dagokienez. Iruzuraren aurkako neurrien planetatik eratorritako nahitaezko neurriak, HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikuluan adierazitakoari jarraikiz.
 - Kontratistak eta azpikontratistek funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa ematea, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan aurreikusitako moduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan ezarritako baldintzetan, bete ahal izateko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduren 22.d) artikuluen eskakizuna. Horretarako, kontratistak eta azpikontratistek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute.
 - Europako Batzordearen, Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolen mende egotea, eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea.
 - Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ageri diren konpromisoak betetzea, komunikazioari, goiburukoei eta logoei dagokienez.

- Etiketatzeko berdearen eta digitalaren arloan eta horiek kontrolatzeko ezarritako mekanismoen arloan, bai eta kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa aplikatzeak bere gain hartutako betebeharrak eta ez-betetzeen ondorioak nahitaez betetzearen arloan ere.

Betebehar horiek onartzen ez badira, baldintza-agiri honetako 33.1.k klausulan adierazitako ondorioak izango dira, kontratua formalizatu ondoren.

30.- KONTRATUA BETEARAZTEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE KLAUSULA BATZUK

30.1.- Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.

Obrak egitean, zorrotz beteko da baldintza orokorren 2. klausulan jasotako kontratu-dokumentuetan xedatuta dagoena, baita kontratistaren eskaintza eta zuzendaritza teknikoak alderdi teknikoan hori egiteko edo interpretatzeko kontratistari emandako jarraibideetan ezarrita dagoena ere. Jarraibide horiek Agindu-liburuan agerraraziko dira.

Nahiz eta ez ezagutu kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako dokumentuak (haren osagai baitira) edo administrazioak onetsitako jarraibide, baldintza-agiri edo arauak, horrek ez du kontratista salbuesten horiek guztiak bete beharretik.

30.2.- Kontratistaren erantzukizuna.

Obrak garatzeko denboran, eta kontratuko berme-epea bete arte, kontratista da eraikuntzan ager daitezkeen akats guztien erantzule.

Eraikuntza-lanak egin bitartean botere adjudikatzailaren ordezkariak obrako zati eta unitateak edo erabilitako materialak aztertu izanak ez du kontratista erantzukizunetik salbuetsiko, ezta eskubiderik emango ere, nahiz eta obrako zati eta unitate horiek eta material horiek neurketa eta ziurtagiri partzialetan sartuta egon, bazter utzita SPKLren 196.2 artikuluan aurreikusitako kasuak.

Berme-epea amaitu ondoren, hamabost (15) urteko epean, harreratik aurrera zenbatuta, betearazteko epean eta berme-epean detektatu ez ziren eraikuntzako ezkutuko akatsengatik, kontratistak erantzun beharko die kalte-galerei, kontratistak kontratua bete ez izanagatik gertatu badira, SPKLren 244. artikuluan arabera.

Lan akastunak edo gaizki egindakoak eraitsi eta berriro eraikitzeari eta horien gastuei dagokienez, AKOaren 44. klausulan ezarritakoa aplikatuko da.

Kontratua betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei kalte-galerak sortuz gero, kontratistak kalte-ordaina eman beharko du, SPKLren 196.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

30.3.- Lankidetzak.

Kontratistak kontratuaren objektua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak eman behar dizkio botere adjudikatzailari, inolako kostu gehigarririk gabe, adibidez azalpen-bileretara joatea, jendeari informazioa ematea..., eta prestazioa zein lekutan egiten den, horietarako sarbide librea ematea zuzendaritza teknikoari.

30.4.- Baimenak, lizentziak eta gastu eta zergak.

Kontratistak obra gauzatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratu behar ditu, hala publikoak nola pribatuak. Beraz, kontratistaren kontura izango dira honako hauek:

- a) Udal-baimen guztiak kudeatzea (aldamioak, pasabide-seinaleak, hesiak, hartuneetarako bide-irekierak... jartzeko udal-baimenak), obren udal-lizentzia izan ezik.
- b) Kontratua betearazteko behar diren lizentziak, dokumentuak eta informazioa –organismo publiko zein pribatuak– eskuratzeko egin beharreko gastuak, bai eta kontratua betearazteko beharrezkoak diren gainerako zergak, eskubideak, tasak edo konpentsazioak eta gainerako tributu, karga edo gastu guztiak ere.

Besteak beste, eta zehatz ez bada ere: kontratistaren kargura izango dira jarduteko alta eta baimena lortzeko, sare eta zerbitzuetara lotzeko, behin-behineko eta behin betiko hartuneak egiteko eta, oro har, instalazioen funtzionamendu egoki eta legeztatua lortzeko organismo eskudunei aurkeztu beharreko proiektuak idazteak eta ikuskatzeak eragiten dituzten gastuak, bai eta obra publikoak zuzendu eta ikuskatzeko lan fakultatiboak egiteagatik ezarritako tasak eta aplikatu beharreko beste edozein tasa,

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bateginean (martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) eta indarrean dauden gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera, adierazten den moduan eta zenbatekoan.

Salbuespena: eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren zenbatekoa eta obren udal-lizentziaren tasaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoaren kargura joango dira, bi zerga horien subjektu pasibo zergaduna baita.

30.5.- Obrako bulegoa.

Obrak hasi aurretik, eta zuzendaritza teknikoa ados badago, kontratistak obrako bulego bat instalatu beharko du, lanak egingo diren eremuan egokituz jotzen duen lekuan, eta kontratua betearazi bitartean bertan mantendu beharko du. Bulego horrek egokiak diren dimentsioak izango ditu, kontuan hartuta obraren bolumena eta betearazteko epea, eta behar bezala egokituta egon beharko du.

Kontratistak bulego horretan eduki beharko ditu obrari buruzko dokumentu guztien kopiak (baldintza-agiri honen arabera kontratu-dokumentuak direnena), bai eta indarreko araudiak eskatzen dituen jatorrizko liburuak ere, behar bezalako eginbide ofiziala eginda daukatenak.

Kontratistak bulegoaren kokalekua aldatu nahi badu, nahitaez idatzizko baimena eskatu beharko dio zuzendaritza teknikoari.

30.6.- Liburuak.

30.6.1.- Aginduen eta Asistentzien Liburua: kontratistak liburu hori eduki behar du obran, zuzendaritza teknikoaren eskura. Zuzendaritza teknikoak obrak egiten ari direla egiten diren bisitak eta komunikazioak eta ematen diren aginduak jaso behar ditu bertan. Kontratistak, berak edo bere ordezkariaren bitartez, agindu horien hartu-agiria sinatu beharko du, eta zuzendaritza teknikoak idatziz ematen dizkion agindu edo jarraibide guztiak transkribatu beharko ditu; dena dela, zuzendaritza teknikoak transkripzioekin ados egon beharko du, sinadura jarriz.

Obren harrera-egintzan aurkeztu beharko da *Aginduen eta Asistentzien Liburua* behar bezala beteta. Obrak hartu ondoren, botere adjudikatzailerari entregatuko zaio liburu hori.

30.6.2.- Segurtasun eta Osasun Gorabeheren Liburua: baldin eta obra urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren, eraikuntzako obretan segurtasunaren eta osasunaren arloan gutxienez bete beharreko xedapenak ezartzen dituenaren (aurrerantzean "1627/1997 ED") aplikazio-eremuaren barruan badago, kontratistak liburu hori eduki beharko du obran. Liburu horretan idatzi beharko ditu segurtasun eta osasun planaren kontrol eta jarraipenarekin zerikusia duten irregulartasun guztiak, eta aipatu den Errege Dekretuaren 13. eta 14. artikuluetan jasotako gainerako betebeharrak bete beharko ditu.

30.6.3.- Azpikontratazio Liburua: baldin eta obra urriaren 18ko 32/2006 Legearen, Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa Arautzen duenaren aplikazio-eremuaren barruan badago, kontratistak liburu hori uneoro izan beharko du eskura, obra guztia amaitu arte. Liburu horretan kontratistak obran enpresa azpikontratistekin eta langile autonomoekin egindako azpikontratazio guztiak agerrarazi beharko ditu, ordena kronologikoan lanak hasten direnetik, bai eta hasi aurretik ere.

30.7.- Obraren seinaleak eta kartela.

Kontratistak seinale hauek ipini behar ditu bere kargura: obrarako sarbideak adierazten dituztenak, lan-esparruko zirkulazioa adierazten dutenak eta lan-esparruan zein muga eta inguruetan lanek eragindako arrisku-puntu posibleak azaltzen dituztenak. Gainera, bete egin behar ditu seinale gehiago jartzeko edo jarritakoak aldatzeko jasotzen dituen aginduak (AKOaren 23. klausula).

Halaber, obrak hasten direnetik bertatik kontratistak obren berri ematen duten kartelak ipini behar ditu lan-eremuan; kartelak nolakoak izan behar diren sail edo erakunde kontratatzaileak finkatuko du. Kartel horiek egokia den klausulan jasotako hizkuntza arloko baldintzak bete beharko ditu.

Bestalde, obra osorik edo zati batean Europar Batasunak finantzatzeko badu, horren berri jaso beharko da obren seinaleztapenean, eta, kasu horretan, Administrazioak obraren esleipendunari jakinarazi beharko dio.

30.8.- Saiakuntzak eta analisiak.

PTPAAn ezarritako saiakuntza eta analisisiez gain, obrako materialak eta unitateak probatzeko eta analizatzeko agindu dezake obraren zuzendaritza teknikoak, eta kasuan-kasuan dagozkion txosten espezifikoak eskatu ere. Gastu horiek kontratistak hartuko ditu bere gain, kontratuaren klausula espezifikoan 18.4 klausulan hala adierazi bada, klausula horretan azaltzen den gehieneko zenbatekora arte.

Hala ere, obrari urriaren 28ko 209/2014 Dekretua, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duena aplikatu behar bazaio, Kalitatea kontrolatzeko programan eta, hala badagokio, obra egin bitartean programa horretan egindako aldaketetan jasotako saiakuntzak eta analisiak egiteko laborategien kontratazioa botere adjudikatzailaren eskumenekoa izango da, kontratazio honetatik eratorritako kostuak kontratistaren kontura izango dira.

Kasu horretan, kontratistak eskura jarri beharko ditu kontrolerako bitartekoak, kontrolaren dokumentazioa jasotzeko eta entregatzeko sistemaren aurreikuspena egin beharko du eta gainerako eragileei laginak hartzeko erraztasunak emateaz arduratuko den pertsona izendatuko du, kalitate kontroleko planaren eta eragina duen indarreko araudiaren arabera. Zuzendaritza teknikoak horren guztiaren berri emango du, jakin dadin. Paragrafo honetan azaltzen diren baliabide materialen eta giza baliabideen kostuak kontratistaren konturakoak izango dira.

Nolanahi ere, kalitatearen eta obraren akatsen ondorioz burutu behar diren kontroletarako gastuak kontratistaren konturakoak izango dira, inolako mugarik gabe.

30.9.- Kontserbazioa eta zaintza.

Kontratistak, obrak egiteaz gain, obrak kontserbatu beharko ditu. Obrak hartu arte, kontratistak edukiko du lurrak eta bertan dauden ondasunak zaintzeko ardura.

31.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua betearazteko baldintza berezi hauek eta kontratuaren klausula espezifikoan 11. klausulan jasota daudenak, kontratistak zein azpikontratistek bete beharko dituzte.

31.1.- Hizkuntza arloko baldintzak.

31.1.1.- Botere adjudikatzailaren eta kontratistaren arteko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua betearazteari begira, honela ulertuko da "normalean euskara erabiliko da" esaldia:

- a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua betearazteko zereginak direla-eta administrazio kontratatzailearekin harremanetan jartzen direnean.
- b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

31.1.2.- Euskararen erabilera bermatuko da errotulu, argitalpen, seinale, abisu eta komunikazioetan, eta, oro har, elkarriketetan.

31.2.- Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak.

31.2.1.- Lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea.

31.2.2.- Zuzendaritza teknikoari hurrengo apartatuetan azaltzen diren datu eta dokumentuak ematea, kasu bakoitzean adierazten diren epe eta baldintzetan:

- a) Kontratua betearazteari adskribatutako langile guztien lan-baldintzei buruzko datuak: posta elektroniko bidez aurkeztuko dira zazpi (7) egun balioduneko epean, dagokion errekerimendua jasotzen denetik aurrera zenbatuta. Gutxienez datu hauek izango dira: izen-abizenak, NANA, hitzarmen kolektiboa, lanbide-kategoria, kontratu-mota, lanaldia, antzintasun-data, kontratuaren mugaeguna, urteko soldata gordina eta, hala badagokio, indarrean dauden itunak.
- b) Emandako datuak benetakoak direla eta kontratistak enplegatzaile gisa bere gain hartutako lan arloko betebeharrak bete dituela egiaztatzeko, zuzendaritza teknikoak eskatzen dituen dokumentuak: posta elektroniko bidez aurkeztuko dira, eskaneatutako kopiekin, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen den egunetik aurrera zenbatuta.

31.2.3.- Kontratua betearazi bitartean, langile bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera dagokion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, eta inola ere ez ordaintzea soldata hori baino gutxiago.

31.2.4.- Gardentasun instituzionalez lantzea kontratua betearaztetik eratorritako datu guztiak.

31.3.- Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea.

31.3.1.- Zuzendaritza teknikoari igortzea, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua, haien parte-hartzea perfektionatzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute.

31.3.2.- Zuzendaritza teknikoari igortzea, hala eskatzen duenean, aurreko puntuan azaldu diren azpikontratistei edo hornitzaileei ordaindu izanaren frogagiriak, behin prestazioa amaituta, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen horretan ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan. Orobat, SPKLren 216.4 artikuluan aurreikusita dagoen behin-behineko berme-atxikipena egin ahal izango da, hala badagokio.

31.3.3.- SPKLren 217. artikuluan arabera egiaztatuko da azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela. Egiaztatze-jarduketak eta zigor-ezarpenak nahitaezkoak izango dira administrazio publikoentzat eta gainerako ente publiko kontratatzaileentzat obra-kontratueta eta zerbitzu-kontratueta, baldin eta haien balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa bada edo azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuko prezioaren ehuneko 30ekoa edo handiagoa bada, kontratista nagusiarekin obra-atal edo -unitate jakin batzuk egiteko konpromisoa kontratu bidez beren gain hartu duten azpikontratistentzako ordainketei dagokienez. Ondorio horietarako, halako kontratueta, azpikontratistei ordainketak egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratistak, obra-ziurtagiri bakoitzean. Ziurtagiri horrek adierazi beharko du ordainketa SPKLren 216. artikuluan xedatutakoaren arabera egin dela.

31.3.4.- Kontratistari zigorak ezarriko zaizkio, baldin eta azpikontratistak edo hornitzaileak kontratazio-organoari helarazitako ebazpen judizial edo arbitral irmoaren bidez egiaztatzen bada kontratistak ez diola ordaindu kontratua egikaritu duen azpikontratistari edo hornitzaileari abenduaren 29ko 3/2004 Legean adierazitako epeetan. Alabaina, hori ez da aplikatuko, ordainketa atzeratu bada azpikontratistak edo hornitzaileak prestazioa ematean bere gain hartu zuen kontratu-betebeharren bat bete ez duelako.

31.4.- Datuen babesari dagokionez.

Kontratua gauzatzeak kontratistari datuak lagatzea dakarrenean, kontratistak Europar Batasuneko eta Espainiako estatuko datuen babesari buruzko araudia bete beharko du.

31.5.- Ingurumen arlokoak:

Esleipendunak une oro errespetatu beharko du arau-maila guztietan (Europar Batasunekoa, Estatukoa, Autonomia Erkidegokoa eta tokikoa) aplikatu beharreko legeria, bai lanen hasieran indarrean dagoena, bai kontratua indarrean dagoen bitartean aldarrikatu daitekeena eta aplikagarria dena. Beraz, kontratuan aurreikusitako lanetan eragina izan dezaketen ingurumen-betekizunak ezagutu beharko ditu. Horrekin batera, baliabideen erabilera eraginkorragoa egingo du, ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena eragiteko.

(Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio-erabakian (CID) DNSH arloari dagozkion betebehar espezifikoak jasotzen badira, pleguaren klausula honetan adierazi beharko dira. Orobat adierazi beharko dira Batzordeak eta Espainiak adostutako OA xedapen operatiboen I. eranskinean ezartzen diren egiaztapen-mekanismoak.

31.6.- SEEPari dagokionez:

Plegu honen objektua Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatuta dagoenez, arau hauetan exijitutako betebeharrei lotuta egongo da kontratista, berari dagokionez eta, hala badagokio, azpikontratistei dagokienez: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena; 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa

modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko; HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena; eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugariak eta helburuak betetzen ote diren kontrolatzeko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

32.- KONFIDENTZIALITASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

32.1- Konfidentzialtasuna.

Kontratua betetzearen ondorioz kontratistak, kontratua betearazteari kontratistak atxikitako pertsonak eta, hala badagokio, azpikontratistek eskuratuko duten informazio guztia konfidentziala izango da, eta sekretu profesionalaren pean egongo da, aplikatu dakiogun araudiaren arabera. Hori dela eta, ondo gorde beharko dira eta sekretupean zaindu, eta inola ere ez jakinarazi, ez zatika ez guztiz, kontratuaren parte ez diren pertsona fisiko edo juridikoei, kontratazio-organismoak berariaz eta aldez aurretik baimenik eman ez badu.

Aipatutako pertsona fisiko edo juridikoren batek konfidentzialtasun-eginbehar hori eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren eginbeharra urratuz gero, aplikatu dakiogun araudiaren arabera, dagozkion erantzukizunak eta kalte-galeren ordainketa eskatuko zaizkio. Kontratu-harremana eten ondoren ere bete beharko dira eginbehar horiek.

Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horietarako irispidea izatea, eta sekretupean gorde beharko dira jakin ahal diren datuak.

32.2.- Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat ulertzen da datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak erkatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

Horrek esan nahi du kontratista izango dela tratamendu-eragilea, eta unean-unean indarrean den araudia bete beharko duela, datu pertsonalak behar bezala tratatuz eta babestuz, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Konfidentzialtasun-betebeharra bost urtez mantenduko da, informazioa jakiten denetik hasita, SPKLren 133. artikuluan ezarritakoaren arabera.

(Oharra: Konfidentzialtasun-betebeharra ezarri ahal izango da 5 urte baino gehiagorako, baldintza-agirietan hala zehazten bada).

Baldin eta kontratistak beste helbururen batekin erabiliko balitu datuak, edo kontratuan edo indarrean den araudian ezarrita dagoena bete gabe jakinarazi edo erabiliko balitu, tratamenduaren organo arduraduntzat hartuko litzateke kontratista ere, eta gaizki egindako arau-hausteen erantzule izango da.

Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehatz dago deskribatuta zein datu pertsonal babestu behar den, bai eta kontratistak zein tratamendu egin eta zein neurri ezarri behar dituen.

Baldin eta, kontratuaren betearazpenaren ondorioz, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean ezarritakoa aldatu behar izango balitz momenturen batean, arrazoiak emanda eskatu beharko du kontratistak, eta zein aldaketa egin nahi duen zehaztu. Tratamenduaren arduraduna ados egongo balitz eskatutakoarekin, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskin eguneratu bat egingo du, eta bertan zehatz bildu beharko da egin behar den tratamendua

32.3.- Tratamendu-eragilearen estipulazioak.

Klausula honetako betebeharrak eta baldintza-agiri hauetako «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskina dira, izan ere, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko

arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (aurrerantzean DBEO) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 28.3 artikuluan eskatzen den tratamenduaren enkargu-kontratua, tratamenduaren organo arduradunaren eta kontratistaren artean sinatuko dena tratamendu-eragile gisa jarduten duenean.

Baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusi bezala ordainduko dira betebeharrak horiek betetzeko egin behar diren prestazioak; era berean, zerbitzu-kontratu honen iraupen bera izango dute eta, luzatzekotan, kontratuaren epe berberetan luzatuko dira. Hala eta guztiz ere, kontratua amaitzean, indarrean jarraituko du sekretu-eginbeharra, denbora-mugarik gabe, betearazpenean zerikusia duten pertsona guztientzat.

Kontratu honen objektua betetzeko, ez da beharrezkoa izango kontratistak tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizun den beste datu pertsonal batzuetarako irispiderik izatea; horrenbestez, ez du baimenik izango «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztuta ez dauden beste datu pertsonal batzuetarako irispidea izan edo tratatzeko.

Baldin eta kontratua betearazi bitartean gorabeheraren bat gertatuko balitz eta, ondorioz, tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizunpekoak diren datu pertsonaletarako irispidea izango balitz (ustekabea edo oharkabea) «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean aipatu ez den moduren batean, kontratistak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, zehatzago esanda datuak babesteko ordezkariari, gehienez 72 orduko epean.

Kontratistak konpromisoa hartzen du jarraian zerrendatuko diren betebeharrak betetzeko, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztutakoarekin osatuta, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Hona hemen:

- a)** Baldintza-agiri honetan eta kontratua betearazteko aplikatu behar diren gainerako kontratu-dokumentuetan dokumentatuta dauden jarraibideen arabera tratatuko ditu datu pertsonalak, bai eta tratamenduaren arduradunak unean-unean emango dizkion jarraibideen arabera ere, horrelakorik balego.

Kontratistak berehala jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari baldin eta, bere ustez, jarraibideren bat ez badator bat unean-unean aplikatu behar den datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin.

- b)** Datu pertsonalak ez ditu erabili edo aplikatuko kontratuaren objektua betearaztea ez den beste helbururen batekin.
- c)** Segurtasun-irizpideei eta DBEOren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz tratatuko ditu datu pertsonalak; era berean, eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzak hartuko ditu.

Bereziki, eta mugarik gabe, hitzematen du «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztu diren arrisku-maila eta segurtasuna babesteko neurriak hartuko dituela.

- d)** Erabateko konfidentzialtasuna mantenduko du kontratua betearazteko eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalei buruz, bai eta datuen tratamendutik eskuratuko ditueni buruz ere, kontuan hartu gabe zein euskarritan jaso dituen datuok. Betebeharrak hori zabaldu egingo da kontratistaren kontura datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasean parte har lezakeen pertsona guztietara. Kontratistak esan beharko die mendeko pertsona horiei sekretu-eginbeharra bete behar dutela, eta zerbitzua ematen amaitu ondoren edo bertatik bereizi ondoren ere mantendu beharko dela eginbehar hori.
- e)** Baldintza-agiri honen objektu diren datu pertsonalak tratatzeko baimena izango duten pertsonen zerrenda egin beharko du. Halaber, bermatu egin beharko du pertsona horiek konpromisoa hartzen dutela, beren-beregi eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko edo bidezko segurtasun-neurriak betetzeko, behar bezala jakinarazi beharko zaizkiela. Gainera, tratamenduaren arduradunaren eskura izango ditu egiaztagiri horiek.
- f)** Bermatu egingo du datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza emango diela datuok tratatzeko baimena duten pertsonen.

- g)** Datu pertsonalak ez dizkie hirugarrenei lagako (komunikatuko), ez eta kontserbatzeko ere; salbuespena izango da tratamenduaren arduradunaren aurretiazko eta beren-beregiko baimena izaten bada kasu bakoitzean.
- h)** Datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du, baldin eta DBEOren arabera beharrezkoa bada edo borondatez hala erabakitzen bada, eta izendapen horren berri eman beharko dio tratamenduaren arduradunari, baita datu pertsonalak babesteko kontratistak ordezkari gisa izendatu d(itu)en pertsona fisikoa(k) nor d(ir)en eta harekin/haiekin harremanetan ipintzeko datuak ere (tratamendu-eragilearen ordezkariak), datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudia betetzeko arduraduna(k) izango d(ir)ela alderdi legal, formal eta segurtasunekoetan.

- i)** Zein datu pertsonaletarako irispidea izan duen, kontratistak tratamenduaren ondorioz zein datu pertsonal sortu duen, datu horiek zein euskarri edo dokumentutan dauden, baldintza-agiri honen objektu den kontratu-prestazioa amaitu ondoren datu eta euskarri horiek itzuli edo suntsitu beharko ditu, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean islatu den tratamenduaren organo arduradunak erabakitakoaren arabera. Ezin izango dira suntsitu baldin eta legez edo Europako Erkidegoko zuzenbideko arauen baten ondorioz kontserbatzeko baimena edo agindua ematen bada.

Hala ere, tratamendu-eragileak datu pertsonalak kontserbatu ahal izango ditu tratamenduaren organo arduradunarekin izandako harremanetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean. Horrelakoetan, blokeatuta eta ahalik eta denborarik laburrenean kontserbatuko ditu datu pertsonalak, eta modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu epe hori amaitzean.

- j)** «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztu diren tratamenduaren sistema eta gailuetan (eskuizkoak zein automatizatuak) eta lekuetan egin beharko du datu pertsonalen tratamendua. Ekipamendu hori tratamenduaren organo arduradunaren kontrolpean egon liteke, edo kontratistaren zuzeneko edo zeharkako kontrolaren pean, edo tratamenduaren organo arduradunak aurretiaz eta idatziz beren-beregi baimendu dituen beste batzuen kontrolpean, aipatutako eranskinean ezarritakoaren arabera, eta beti kontratuaren objektua betearazteko esleitutako erabiltzaile edo profilei dagokienez.

- k)** Europako Esparru Ekonomikoaren barruan edo aplikatu daitekeen araudiaren arabera segurtasun baliokidea duen beste esparruren batean tratatu beharko ditu datu pertsonalak, eta ez ditu esparru horietatik kanpo tratatuko ez zuzenean ez baimendutako azpikontratisten bitartez, baldintza-agiri honetan edo gainerako kontratu-dokumentuetan ezarritakoaren arabera. Hala ere, salbuespena izango da baldin eta Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera edo aplikatu behar duen estatu kideko zuzenbidearen arabera nahitaez egin behar badu, baldin eta «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean bestelakorik adierazten bada edo baldin eta tratamenduaren organo arduradunak beren-beregi hala agintzen badu.

Baldin eta zuzenbide nazionalaren ondorioz edo Europar Batasuneko zuzenbidearen ondorioz kontratistak nahitaez egin behar badu nazioarteko datu-transferentziaren bat, idatziz emango dio tratamenduaren organo arduradunari legezko betebeharrak horren berri tratamendua egin baino lehen (behar besteko aurrerapenaz), eta bermatu egingo du tratamenduaren organo arduradunari aplikatzekoak diren legezko betekizun guztiak beteko direla, salbuespena izango dela baldin eta aplikatu behar den zuzenbideak debekatzen badu interes publikoko arrazoi garrantzitsuen ondorioz.

- l)** Baldin eta bere erantzukizunpekoak diren datu pertsonalen segurtasuna moduren batean urratzen bada eta horren berri badu, berehala eta arretaz jakinarazi beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, gehienez 72 orduko epean. Gainera, gorabeheraren inguruko dokumentazioan eta komunikazioan eragina izan dezakeen informazio oro helaraziko dio. Gauza bera egin beharko du baldin eta hutsegiteren bat gertatu bada informazioa tratatu eta kudeatzeko duen sisteman, arriskuan ipintzen badu datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna, edo konfidentzialtasuna urratu ahal izan bada, kontratua betearazi bitartean eskuratutako datu eta informazioak hirugarren pertsonen esku ipintzearen ondorioz, zein interesdun zehatzen konfidentzialtasuna galdu den ere zehaztuz. Hori guztia DBEOren 33. artikulua arabera egingo da.

- m) Ahalik eta lasterren jakinaraziko dio tratamenduaren organo arduradunari interesdunen batek dagokion eskubideren bat erabiltzen badu bere aurrean (datuak irispidean izateko eskubidea, datuak zuzentzeko edo ezabatze eskubideak, datuen aurka egiteko eskubidea, datuen tratamendua mugatzeko eskubidea eta datu pertsonalen eramangarritasun-eskubidea; edo aplikatu beharreko araudiak aitortutako beste edozein eskubide; edo erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea).

Berehala jakinarazi beharko da hori, eskubidea erabiltzeko eskabidea jaso eta hurrengo lanegunean beranduenez. Jakinarazpenarekin batera, froga bidez identifikatu beharko da eskubidea erabili nahi duen pertsona, eta, hala badagokio, dokumentazioa eta eskabide hori ebazteko garrantzitsua izan litekeen bestelako informazioa ere gehitu beharko da.

Ahal den guztietan, laguntza emango dio tratamenduaren organo arduradunari, dagokiona bete eta eskubidea erabiltzen duen pertsonari erantzun ahal izateko.

- n) Tratamenduaren organo arduradunarekin batera egingo du lan segurtasun-neurrien arloan dituzten betebeharrak betetzeko, segurtasun-neurrien arrakalak (lortutakoak eta saiaturakoak) agintaritza eskudunei edo pertsona interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko eta datu pertsonalen babesaren eta horri buruz agintaritza eskudunei egindako aurretiko kontsulten eragin-ebaluazioak egiteko, eskura duen informazioa eta tratamenduaren izaera kontuan hartuta.

Era berean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du, hala eskatzen dionean, baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitako betebeharrak betetzen dituela egiaztatze behar den informazio guztia, eta lankidetzan arituko da tratamenduaren organo arduradunak, hala badagokio, egingo dituen auditoretza eta ikuskapenetan.

- ñ) Idatziz eraman beharko du, baita formatu elektronikoa eta DBEOren 30.5 artikuluan islatutako kasuetan ere, tratamenduaren organo arduradunak egin dituen tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, eta DBEOren 30.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarrak agertu beharko dira gutxienez bertan.

- o) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen duela egiaztatzen duten ebidentziak izatea, esaterako betetze-mailaren edo auditoretzen emaitzen aurretiko ziurtagiriak, eta tratamenduaren organo arduradunaren esku ipini hala eskatzen dizkionean. Halaber, kontratua indarrean egon bitartean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du unean-unean egindako informazio, ziurtapen eta auditoretza oro.

- p) Egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, biltzeko unean. Datuak biltzen hasi baino lehen, tratamenduaren organo arduradunarekin adostu beharko da nola idatziko den eta zein formatutan emango den informazioa.

32.4.- Azpikontratazioekin lotutako tratamendu azpi-enkarguak.

Kontratuaren arabera azpikontratazioa egin daitekeenean, kontratua betearazteko azpikontratatu den kontratistak datu pertsonaletarako irispidea izango badu, asmo horren berri eman beharko zaio tratamenduaren organo arduradunari, eta datu pertsonalen nolako tratamendua egingo den identifikatu beharko da, horretarako baimena ematen duen ala ez erabaki ahal izan dezan tratamenduaren organo arduradunak.

Nolanahi ere, bi baldintza hauek nahitaez bete beharko dira tratamenduaren organo arduradunak, hala erabakitzen badu, baimena eman ahal izan dezan:

1. Azpikontratatistak egingo duen datu pertsonalen tratamendua bat etorri dadila indarrean diren legeekin, baldintza-agiri honetan ezarritakoarekin eta tratamenduaren organo arduradunak emandako jarraibideekin.
2. Kontratistak eta azpikontratistak datu pertsonalen tratamenduaren enkargu-kontratu bat egin dezatela, baldintza-agiri honetan aurreikusitako zehaztapenak edo murriztaileagoak erabiliz; tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko da, hala eskatzen duenean, kontratua egin dela ziurtatzeko eta bertako edukia egiaztatze.

Kontratistak aldaketaren bat egin eta beste azpikontratista batzuk sartu edo ordeztu nahi baditu, modu berean jardun beharko du. Bada, tratamenduaren organo arduradunak kontuan izan beharko du elkarrekin lotutako bi baldintzak bete beharko direla, hala badagokio, aldaketa horiek baimendu ahal izan ditzan. Baimenik eman ez dela ondorioztatuko da baldin eta

kontratistak ez badu baimenaren jakinarazpenik jasotzen 5 eguneko epean, kontratistak emandako informazioa tratamenduaren organo arduradunak jasotzen duenetik aurrera.

33.- ZIGORRAK

Kontratistak, legeak behartuta, akatsak konpondu beharko ditu eta kalte-galerak ordaindu beharko ditu; gainera, SPKLn edo baldintza orokorren 39. klausulan aurreikusita dagoenaren arabera kontratua suntsiarazi ahal da; hori guztia gorabehera, kontratazio-organismoak kontratistari zigorrak ezarri ahal izango dizkio honako arrazoi hauengatik:

33.1.- Arrazoiak eta zenbatekoak.

- a) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoek 13.1 klausulan azaltzen diren ez-betetzeak: klausula horretan azaltzen diren zenbatekoak.
- b) Epe osoa edo epe partzialak betetzean berandutzea: SPKLn 193.3 eta 193.4 artikuluetan azaltzen diren zenbatekoak, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoek 13.2 klausulan besterik azaltzen bada.
- c) Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea: **% 1 gutxienez, eta % 10 gehienez**, ez-betetzearen astuntasunaren arabera, eta hala badagokio, errepikapenaren arabera.
- d) Kontratuaren klausula espezifikoek 12.1.4 klausulan xedatuta dagoena ez betetzea: gehienez ere azpikontratuaren zenbatekoaren **% 50**.
- e) Baldintza orokorren 31.3 klausulan xedatuta dagoena ez betetzea: berandutze-egun bakoitzeko zenbatekoa prezioaren **% 0,01** izango da. Kontratuaren prezioaren **% 5**era iritsi ahal izango da, eta hileroko errepikatu ahal izango da, ez ordaintzeak irauten duen bitartean, harik eta prezio horren **% 50**era iritsi arte.
- f) Eskaintzen bitartez hartu diren eta balorazio-irizpide gisa kontuan hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren **% 1 gutxienez, eta % 10 gehienez**, ez-betetzearen astuntasunaren arabera, eta hala badagokio, errepikapenaren arabera.
- g) Kontratuaren klausula espezifikoek 12.2 klausulan azaltzen diren ingurumen, gizarte edo lan arloetako betebeharrak ez betetzea (ondore horietarako, ulertuko da 12.2.2.1 klausula ez dela bete baldin eta soldadak ordaindu ez badira edo behin eta berriz berandu ordaindu badira edo hitzarmen kolektiboetan ezarrita daudenak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatzea modu larrian eta doloz): prezioaren **% 0,5 gutxienez eta % 10 gehienez**, ez-betetzearen astuntasunaren arabera, eta hala badagokio, errepikapenaren arabera.
- h) Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzea, plan hori nahitaezkoa denean: berandutze-egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren 5.000,00 euro bakoitzeko euro bat izango da.
- i) Obran eduki beharreko liburuei buruz baldintza orokorren 30.6 klausulan jasotzen diren betebeharrak ez betetzea: kontratuaren prezioaren **% 1 gutxienez, eta % 10 gehienez**, ez-betetzearen astuntasunaren arabera, eta hala badagokio, errepikapenaren arabera.
- j) Sekretu profesionalaren betebeharra ez betetzea eta datu pertsonalak babesteko araudia urratzea: kontratuaren prezioaren **% 1 gutxienez, eta % 10 gehienez**, ez-betetzearen astuntasunaren arabera, eta hala badagokio, errepikapenaren arabera.
- k) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planetik eratorritako betebeharrak, baldintza orokorren agiriko 29.6 klausulan adierazitakoak, ez betetzea: kontratuaren prezioaren **% 1 eta % 10** artean, ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikatu bada.
- l) 130. artikuluan aurreikusitako subrogazioa jakinarazteko betebeharra ez betetzea: **0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko** atzerapen-egun bakoitzeko BEZik gabe (jakinarazteko betebeharra betetzeko errekerimenduan emandako epea amaitzen den egunetik aurrera), salbu eta 13. Klausula espezifikoan beste bat xedatu bada.

33.2.- Prozedura.

Zigorren ezarpena kontratazio-organismoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da, eta jardun hauek egin beharko dira hori erabakitzeko:

- a) Zuzendaritza teknikoaren txostena, ikusi diren ez-betetzeak identifikatu eta zigorraren zenbatekoa proposatuz.
- b) Kontratistari entzunaldia eman bost (5) egun balioduneko epean, egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

Baldintza orokorren 31.3 klausulan aurreikusitako kasuetan, horri buruzko txostena eskatu ahal izango zaio zuzendaritza teknikoari edo kontratuaren arduradunari.
- c) Kontratazio-organoaren ebazpena.
- d) Guztizko edo zatikako ordainketak gauzatzeko kontratistari ordaindu behar zaizkion kopuruetatik kenduz bildu; bestela, aipatutako ordainketetatik kendu ezin badira, eratu den bermetik kenduta bildu.

34.- PREZIOAREN ORDAINKETA

Baldintza hauen arabera ordainduko da prezioa:

34.1.- Obra-ziurtagiriak.

Kontratistak eskubidea du kontratuaren arabera, haren aldaketa onetsien arabera eta botere adjudikatzailerak idatziz emandako aginduen arabera benetan egin dituen lanak ordain dakizkion, hitzartutako prezioetan.

Egindako obren zenbatekoa hileko ziurtagirien bidez egiaztatuko da, edo kontratuaren klausula espezifikoan 5.2 klausulan ezarritako maiztasuna duten ziurtagirien bidez; ziurtagiriak obraren zuzendaritza teknikoak emango ditu, eta zuzendaritzak berak idatzitako zerrenda balioetsia hartuko du oinarritzat.

Ziurtagirien ondoriozko ordainketak konturako ordainketatzat hartuko dira: azkeneko neurketak egiten direnean zuzendu eta aldatu ahal izango dira. Ordainketek ez dakarte berekin obrak onetsi eta obren harrera egiterik.

Ezin da ziurtagiririk eman, eta ezta, beraz, ordainketarik egin ere, harik eta baldintza-agiri honetako klausuletan kontratuaren formalizazioaz, zuinetaren egiaztapenaz eta segurtasun- eta osasun-planaz ezarritako baldintzak bete arte.

Kontratistak behar baino azkarrago egin ahalko du lana, obrak kontratuan ezarritako epearen edo epeen barruan egiteko, non eta obraren zuzendaritza teknikoak ez deritzon badirela arrazoiak hori ezegokitzat jotzeko. Hala ere, ez du eskubiderik izango dagokion urtekoan kontsignatutako kopurua baino handiagoa eskuratzeko urtean, gauzatutakoaren edo bidalitako ziurtagirien zenbatekoa edozein dela ere. Hala ematen diren ziurtagiriei HAKLEOren 152. artikuluan ezarritako egunetik aurrera soilik sortuko dituzte berandutze-interesak.

34.2.- Fakturak erregistratzea eta ordaintzea.

Ordainketa egiteko, kontratistak obra-ziurtagiriei buruzko fakturak aurkeztu beharko ditu, indarreko legeria betez emanak, kontratuaren klausula espezifikoan 19.6.2 klausulan adierazitako administrazio-erregistroan. Nolanahi ere, ziurtatu den obra egin eta hurrengo hogeita hamar (30) eguneko epean aurkeztu beharko da faktura erregistro horretan.

Obra-ziurtagiria onetsi eta hogeita hamar (30) eguneko epean ordaindu beharko du botere adjudikatzailerak prezioa. Ordainketa egitean berandutuz gero, berandutze-interesak ordaindu beharko zaizkio kontratistari, aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitzen den egunetik aurrera, bai eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ere, merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, kontratistak egindako obren ziurtagiria(k) eta faktura(k) aurkeztu ondoren hasiko da zenbatzen interesak sortzeko epea. Kontratuaren klausula espezifikoan 19.6.2 klausulan azaltzen den erregistroan aurkeztu behar dira. Kontratistak ez badu betetzen fakturak administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epea, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar (30) egun igarotzen diren arte, faktura dagokion erregistroan aurkeztu den egunetik hasita; betiere, botere adjudikatzailerak ez badu fakturari buruzko onespenerik eman, eta ez badu, kasuan kasu, haren ordainketarik egin.

Kontratistak elektronikoki eman eta igorri beharko ditu fakturak, Euskal Autonomia Erkidegoko fakturazio elektronikoen zerbitzuaren bidez. Fakturak ez dira elektronikoki eman eta igorri beharko fakturaren zenbatekoa (BEZa barne) 5.000,00 eurokoa edo txikiagoa bada, edo faktura

horien hartzaileak Euskadik atzerrian dituen ordezkariak badira, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Fakturazio Elektronikoaren zerbitzua eta Fakturen Kontularitza Erregistroa arautzen dituen Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko abenduaren 26ko Aginduan. Hala ere, faktura elektronikoa eman eta igorri beharko dute Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan aipatutako entitateek, baldin eta faktura Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, haren organismo autonomoei eta partzuergoei egindako zerbitzuengatik edo entregatutako ondasunengatik bada.

35.- KONTRATUA ALDATZEA

35.1.- Baldintzak.

Kontratua perfektionatu ondoren, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango du, kontratuaren klausula espezifikoaren 16. klausulan eta SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Interes publikoko arrazoitzat jotzen dira indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren jomuga lortzea helburu dutenak.

Aldaketaren eraginez obra-unitateak ezabatzen edo murrizten badira, kontratistak ez du batere kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla-eta, proiektuan aurreikutsita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira edo aldaketa horien ezaugarriak ezberdinak badira, betiere horietarako lizitazio berria egin behar ez bada, botere adjudikatzailerak finkatuko du zein prezio aplikatu beharko zaizkien aldaketa horiei, aldezturik kontratistari entzunaldia eman ondoren gutxienez hiru (3) egun balioduneko epean. Kontratistak finkatu diren prezioak ez baditu onartzen, kontratazio-organoak haiek beste operadore ekonomiko batekin kontratatu ahalko ditu, finkatutako prezio berdinetan, edo zuzenean bete ahalko ditu, edo kontratua suntsiarazi ahalko du, SPKLren 211. artikuluari jarraikiz.

Aldaketetan, epea luzatu edo laburtu ahal izango da, HAKLEOren 162. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratuan ezin da sartu ez betearazi onartu gabeko aldaketarik. Lanak zuzendu, ikuskatu eta zaintzeko ardura duten pertsonen erantzukizuna gorabehera, kontratuaren objektua ezertan aldatuz gero kontratazio-organoak baimena eman gabe, kontratistak erantzukizuna edukiko du: kontratuan ezarri bezala berregin beharko du prestazioa, eta ez du inolako ordainketa gehigarririk jasoko.

Kontratuaren aldaketa gisa izapidetu behar dira memorian edo, hala dagokionean, PTPAn ezartzen eta eskatzen diren material naturalen jatorriaren aldaketak.

SPKLren 242.4 artikuluan jasotako kasuak ez dira aldaketatzat joko.

35.2.- Prozedura.

Kontratua aldatzeko prozeduraren barruan honako jardura hauek egin beharko dira betiere:

35.2.1.- Kasu orokorra.

A. AURREKO JARDUNAK:

1. Zuzendaritza teknikoak kontratazio-organoari baimena eskatuko dio kontratua aldatu aurretik beharrezkoak diren izapideak hasteko.
2. Zerbitzu tekniko eskudunaren proposamena, legean eskatutako betekizunak bete direla eta aldaketa egin daitekeela justifikatuz, eta aldaketaren zenbatekoa ere balioetsiz, hala badagokio.
3. Zerbitzu-kontratu baten bidez kontratazio-organoko kide ez den norbait kontratatu bada proiektua edo zehaztapen teknikoak idazteko, entzunaldia emango zaio proiektua edo zehaztapen teknikoak idatzi zituenera, gutxienez hiru (3) eguneko, egokitzeak jotzen dituen iritzia jakinaraz ditzan.
4. Kontratazio-organoaren ebazpena, proiektuaren aldaketak erabakiz. Aldaketa horien ondorioz ezin bada jarraitu lanaren zati batzuk egiten, kontratua, osorik edo zati bat (zer dagokion), behin-behinean etetea erabaki beharko da.
5. Proiektuaren aldaketa idatzi.

6. Baldin eta aldaketak direla-eta proiektuan aurreikusi ez ziren obra-unitateak sartu behar badira kontratuan, edo unitate horien ezaugarriak oso ezberdinak badira, entzunaldia emango zaio kontratistari, gutxienez hiru (3) egun baliodunekoa, esan dezan ea onartzen dituen botere adjudikatzailerak aurretik ezarri dituen unitate horien gaineko prezioak, eta ea onartzen duen unitate berriak sartzearen ondoriozko epe berria.
7. Ikuskaritza-bulego edo -unitatearen txostena.
8. Aldatutako proiektua onesten duen kontratazio-organoaren ebazpena. Eskumen hori beste organo bati esleitu bazaio arau juridikoren baten bitartez, organo horrek onetsi beharko du proiektua.

B. ALDAKETA ONARTZEA:

1. Zuinketa-akta.
2. Kontratazio-organoaren ebazpena, aldaketa-espeditentearen hasiera erabakiz.
3. Entzunaldia kontratistari, gutxienez hiru (3) egunekoa, idatziz esan dezan ados dagoen ala ez.
4. Gastua baimentzeko kontabilitate-agiria edo kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria, aldaketaren ondorioz gastua handiagoa izango bada.
5. Txosten juridikoa.
6. Kontratazio-organoaren ebazpena, aldaketa erabaki eta kontratistari jakinarazteko.

35.2.2.- Salbuespena.

Aldaketa bat izapidetzeko beharrezkoa bada obrak, osorik edo zati bat, behin-behinean etetea, eta horren ondorioz interes publikoak kalte larriak jasango baditu, behin-behinean aurrera egitea erabaki daiteke, zuzendaritza teknikoak egindako proposamen teknikoan ezarritakoari jarraituz; nolana ere, horretarako, ezinbestekoa izango da aurreikusitako gehieneko zenbatekoa ez izatea kontratuaren hasierako prezioa (BEZik gabe) baino % 20 gehiago, eta finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Horrelakoetan, bi fasetan egingo da kontratua aldatzeko prozedura:

1. FASEA. Behin-behinean jarraitzea: kontratua sustatzen duen zuzendaritza hartzen duen saileko titularrak, edo kontratuaren botere adjudikatzailerak adskribatuta dagoen saileko titularrak, obrekin behin-behinean jarraitzea erabakiko du, zuzendaritza teknikoak egindako proposamen teknikoan ezarritakoari jarraituz. Lehenengo fase honetan, jarraian adierazi diren izapide hauek baino ez dira egin behar izango:

1. Zuzendaritza teknikoak egindako proposamen tekniko arrazoitua, hauek zehaztuta:
 - Aldaketa bat izapidetzeko beharrezkoa bada obrak osorik etetea, eta horren ondorioz interes publikoak kalte larriak jasango baditu, kalte horien justifikazioa.
 - Aldaketarako aurreikusi den gehieneko zenbatekoa; gehienek kontratuaren hasierako prezioa baino % 20 gehiagokoa (BEZik gabe).
 - Egin beharreko obren oinarritzko deskribapena.
 - Aldaketa SPKLren 203.2 artikuluan aurreikusitako kasuetako batean dagoela justifikatzea.
2. Proiektuak berrikusteko bulegoaren txostena, baldin eta proposamen tekniko arrazoituan prezio berriak sartzen badira. Txosten horretan arrazoitu beharko da prezio berriak merkatuko prezio orokorrekin egokitzen zaizkiela, SPKLren 102.3 artikularekin bat etorriz.
3. Entzunaldia kontratistari, idatziz esan dezan ados dagoen ala ez.
4. Kontratazio-organoaren ebazpena, aldaketa-proiektua idatzeko baimena emanaz.

5. Gastua baimentzeko kontabilitate-agiria edo kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria, aldaketaren ondorioz gastua handiagoa izango bada.
6. Kontratua sustatzen duen zuzendaritza hartzen duen saileko titularrak edo kontratuaren botere adjudikatzailerak adskribatuta dagoen saileko titularrak emandako agindua, obrekin behin-behinean jarraituko dela erabakiz, zuzendaritza teknikoaren proposamen teknikoan adierazitakoaren arabera. Agindu horrek, era berean, gastua onestea ere ekarriko du, baldin eta gastu hori ez bada 5.000.000,00 euro baino gehiagokoa, horrelakoetan Gobernu Kontseiluari baitagokio gastua onestea.

Lehenengo fase hau ezin izango da zortzi (8) hilabete baino gehiagokoa izan, sailburuak obrekin behin-behinean jarraitzea baimentzen duenetik aurrera zenbatzen hasita.

2. FASEA. Aldaketa-espedientea onestea: zortzi (8) hilabeteko epe hori amaitu aurretik, kontratuaren aldaketa adostu beharko du kontratazio-organoak, baldintza orokorren 35.2.1 klausulan azaldutako jarduerak egin ondoren.

Zortzi (8) hilabeteko epe horren barruan, jasotako obra-unitateen artean, gerora behin betiko ezkutuan geratuko ez diren zatiak burutuko dira lehenik eta behin. Gainera, egindako obrak direla-eta ziurtagiria emango da, eta baldintza orokorren 34. klausulan xedatuta dagoenaren arabera ordainduko dira, honako xehetasun honekin: Espediente aldatuaren izapidetzean zehar egin beharreko ziurtagiriek, hasierako proiektuan aurreikusi gabeko unitateak dituztenek, erreferentziatzen hartuko dituzte proposamen tekniko arazoituan ageri diren prezioak; ordainketa horiek kontura egindako behin-behineko ordainketak izango dira, eta proiektu aldatua onetsi ondoren egin daitezkeen zuzenketa eta aldaketak menpe egongo dira; hori guztia, halere, ez da eragozpena izango amaierako neurketan gertatzen diren zuzenketetarako eta aldaketetarako, eta ez dute inolaz ere berekin ekarriko biltzen dituzten obrak onestea eta hartzea.

Sei (6) hilabeteko epean onetsi beharko da teknikoki proiektua, obrekin behin-behinean jarraituko dela baimentzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Aldaketa onetsi ondoren, lehenengo fasean baimendu zen kreditua egokitzeko kontabilitate-agiria edo horren ordezkotzat dokumentua aurkeztu beharko da. Baldin eta prozeduraren lehenengo fasean gastua egiteko ez bada Gobernu Kontseiluaren baimenik behar izan, eta bigarren fase honetan, proiektua onetsi ostean, hasieran aurreikusi zen kreditua nahikoa ez dela ikusten bada, eta, gainera, hasierako kreditua eta kreditu gehigarria batuta guztizko zenbatekoa 5.000.000,00 euro baino gehiagokoa bada, gastua baimen dezala eskatu beharko zaio Gobernu Kontseiluari.

35.2.3.- Kasu hauetan, gainera, beste jarduera hauek ere egin beharko dira:

1. Kontratuaren prezioa aldatzen bada, kontratistak berriro doitu beharko du bermea, ebazpena jakinarazi eta hamabost (15) egun naturaleko epean.
2. Aseguru-poliza berria edo daukan polizaren luzapena, aldaketaren ezaugarriak, eta, hala badagokio, aldi osagarria estaliko dituen, baldintza orokorren 27.3 klausulan ezarritakoari jarraituz.
3. Kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazio-txostena egitea, indarrean dagoen araudiak hala eskatzen duenean.
4. Aldaketa AKPan aurreikusita ez badago, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena egitea, baldin eta kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea 6.000.000,00 eurokoa edo gehiagokoa bada, eta aldaketak kontratuaren % 20 baino gehiago aldatzea badakar. Zenbait aldaketa elkarren segidan adosten badira, guztiak kontuan harturik kalkulatu da ehunekoaren aldaketa.
5. Gobernu Kontseiluak aldaketa baimentzea, aldaketa kontratua suntsiaraztearen arrazoiak bada.

35.2.4.- Botere adjudikatzailerak erabakitzen badu aldaketa bat idatziz jasotzea eta horrek berekin badakar lan batzuk egiten ezin jarraitzea, kontratua, osorik edo zati bat (zer dagokion), aldi batez etetea erabaki beharko da.

35.2.5.- Nolanahi ere, aldaketa erabaki ostean, jarduera hauek egingo dira:

1. Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere, halakorik balego.
2. Aldaketaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea erregulazio harmonizatuko kontratua bada eta aldaketa SPKLren 205.2 artikuluko a) eta b) letretako kasuetako batengatik egin bada.

35.2.6.- Betiere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera formalizatuko da, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluen arabera argitaratuko da.

35.3.- Ondorioak.

Klausula honetan ezarritakoaren arabera adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. AKPan aurreikusita ez dagoen aldaketarik egonez gero, SPKLren 206. artikuluan aurreikusita dagoenari jarraituko zaio.

36.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren klausula espezifikoan 14.1 klausulan azpikontratazioa onartzen bada, prestazioaren zati bat azpikontratatu ahal izango du kontratistak, klausula horretan ezartzen diren mugen barruan eta klausula honetan xedatuta dagoenaren arabera.

Baldin eta kontratistak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren zatiren bat, bere gain hartuko du botere adjudikatzalearen aurrean kontratua betearaztearen erantzukizun osoa, baldintza-agiri honetan eta kontratuaren baldintzetan ezarritakoarekin bat etorrita, gizarte- edo lan-betebeharrak betetzea barne hartuta.

36.1.- Zuzendaritza teknikoari jakinaraztea.

- a) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala osatu badu baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan azaltzen den moduan, eta azpikontratazioa atal horretan zehazki azaltzen diren baldintzen arabera egin nahi badu: zuzendaritza teknikoari igorri beharko dio **VI.BIS ERANSKINEAN** agertzen den deklarazioa, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratista lanak egiten hasi baino bost (5) egun baldiodun lehenago, gutxienez.
- b) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala osatu badu baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan azaltzen den moduan, baina azpikontratazioa EKABen agertzen direnez bestelako baldintza batzuetan egin nahi badu, edo aipatu den apartatua bete ez badu: zuzendaritza teknikoari igorri beharko dio **VI.BIS ERANSKINEAN** agertzen den formularioa, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratista lanak egiten hasi baino hamabost (15) egun baldiodun lehenago, gutxienez.

36.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzea.

Kontratistak egiaztatu egin beharko du azpikontratistarekin edo hornitzailearekin itundutako ordainketa-baldintzak bete dituela; hain zuzen ere, baldintza horiek SPKLren 216. artikuluan ezarrita dauden mugak errespetatu behar dituzte, baldintza orokorren 31.3 klausulan xedatuta dagoenaren arabera.

36.3.- Enpresa Bermatuen Erregistroari buruzko klausula, obra edo azpikontratazio kasuetan.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen enpresak kontratista edo azpikontratista gisa esku hartu behar badu Eraikuntzaren Sektoreko azpikontratazio-prozesuan, bere egoitza duen autonomia-erkidegoari edo hiri autonomoei dagokien Enpresa Bermatuen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, bat etorritik abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin (Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzekoarekin).

Era berean, eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen enpresak, baldin eta abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzen bada eta langileak Espainiara lekualdatzen baditu, honako agiri hau aurkeztu beharko du azaroaren 29ko 45/1999 Legean, nazioz gaindiko zerbitzuak direla-eta langileak lekualdatzeari buruzkoan, ezarritakoa betetzeko: langileek zerbitzua lehenengoz emango duten Espainiako lurraldeko lan-agintaritzaren mendeko erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

36.4- SEEParen bidez finantzatutako kontratuak azpikontratatzea.

SEEParen bidez finantzaturako kontratuetan, azpikontratistari jakinarazi egin behar zaio zer betebeharrak onartu dituen kontratista nagusiak kontratua egikaritzeko eta horietatik zeintzuk eragiten dioten zuzenean azpikontratistari edo zeintzuk bete beharko dituen; bereziki jakinarazi behar zaio zer mugarri eta helburu bete behar diren eta zer epetan, zein diren egikaritze-baldintza bereziak eta, orobat, bete egin behar direla Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzuraren aurkako Plana, lan- eta gizarte-arloko araudia, ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH) eta etiketatze berdearen eta digitalaren betebeharrak, bermatu beharrekoak direnez gero.

Azpikontratistak adierazpen hauek aurkeztu behar ditu:

- Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena SEEPeko jarduketak gauzatzeari dagokionez, VII.3 ERANSKINA baliatuz.
- Interes-gatazkarik ezaren erantzukizunpeko adierazpena (IGEA), V.5 ERANSKINA baliatuz.
- Konpromiso-adierazpena SEEPeko jarduketak gauzatzeari dagokionez, V.6 ERANSKINA baliatuz.
- Ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH), V.7 ERANSKINA baliatuz.
- Iruzuraren aurkako politika onartu eta ezagutzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, V.8 ERANSKINA baliatuz.
- Benetako titulartasunaren erantzukizunpeko adierazpena, V.0 ERANSKINA baliatuz.

37.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEEA OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA

37.1.- Kontratua lagatzea.

37.1.1.- Kasuak.

SPKLren 98. artikuluan aurreikusita dauden kontratistaren ondorengotzako kasuei eta SPKLren 69.9 artikuluan aurreikusita dagoen ABEEaren osakeraren aldaketako kasuei kalterik egin gabe, honako kasu hauetan laga ahal izango da kontratua:

1. Kontratista kaudimengabezia egoeran dagoenean, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 2.2 artikulua araberak, eta oraindik ez badu konkurtsoaren deklarazioa eskatu, eta, betiere, ez badute kaudimengabetzat jo beste prozedura batean.
2. Kontratista konkurtso-egoeran deklaratu denean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi zaion negozioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat erdiesteko edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.
3. Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiroa hartzeko asmoa azaldu duenean.

37.1.2.- Prozedura.

1. Kontratistak zuzendaritza teknikoari idazki bat igorriko dio, eta horren bidez, lagatzeko baimena eskatuko dio. Eskararekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:
 1. Kontratua lagatzea eskatzeko bidea ematen duen inguruabarra dagoela egiaztatzeko dokumentazioa.
 2. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluko c) letran jasotako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa.
2. Kontratazio-organismoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.
3. Zuzendaritza teknikoak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren % 20 bete behar den ala ez dioena, eta bete behar izanez gero, betetzen den ala ez dioena. Halaber, SPKLren 214. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasota dauden mugak errespetatzen direla azaldu beharko du.
4. Txosten juridikoa.
5. Lagapena formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, lagatzeko baimena emateko eta kontratistari jakinarazteko.
7. Kontratua lagatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.
8. Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.
9. Lagapen-hartzaileak bermea gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

37.1.3.- Baldintzak.

37.1.3.1.- Kontratazio-organoak lagapena baimen dezan, baldintza hauek bete behar dira betiere:

1. SPKLren 214. artikuluko 2. apartatuan jasotako betekizunak betetzea.
2. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri tekniko edo pertsonalak arrazoi erabakigarria ez izatea kontratua adjudikatzeko.
3. Lagapenak merkatuan lehiaren murrizketa ez ekartzea.

37.1.3.2.- Ez da baimenduko kontratuaren lagapena egitea, kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

37.1.3.3.- Kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu beharko da.

37.1.3.4.- Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

37.2.- ABEEa OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA.

37.2.1.- ABEEaren osaeraren aldaketak berekin badakar enpresen kopurua handitzea, hura gutxitzea edo enpresa bat edo batzuk beste batzuekin ordeztzea, honela jokatu da:

1. ABEE kontratistak zuzendaritza teknikoari idazki bat igorriko dio, eta horren bidez, aldatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:
 - ABEEaren osaera aldatzeko bidea ematen duten inguruabarren justifikazioa.
 - ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela eta ABEEa eratu behar duten guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik ez dutela dioten egiaztagiria.
2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.
3. Zuzendaritza teknikoak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez betearazi dela dioena.
4. Txosten juridikoa.
5. ABEEa osaera berriarekin formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.
6. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko eta ABEE kontratistari jakinarazteko baimena ematen duena.
7. ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.
8. ABEEa eskritura publikoan formalizatzea.
9. ABEEak beste berme bat gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. ABEEak lehenago emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta berria formalki eratuta eduki arte.

37.2.2.- ABEEa osatzen duen kide baten edo osatzen duten kide batzuen bat-egite, zatiketa nahiz jarduera-adar baten eskualdatzea dela-eta sozietate xurgatzailea, bat-egitearen emaitza

dena, banantzearen onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailerak ez badira ABEEa osatzen duten kideetakoak, baldintza orokorren 37.2.1 klausulan azaltzen diren izapideak beteko dira, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez betearaztearen baldintza izan ezik.

37.2.3.- ABEEko kideren bat konkurtso-egoeran deklaritzen bada, likidazio-fasea irekita egonda ere, SPKLren 69.9 artikuluko c) letran xedatuta dagoenari jarraituko zaio, SPKLren 212.5 artikuluko kontratua betearazteko berme gehigarri nahikoak emateari buruz xedatzen duenarekin bat etorrira. Kasu horretan, honako jarduketak hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak zuzendaritza teknikoari idazki bat igorriko dio, ABEEko kide bat edo batzuk konkurtso-egoeran daudela egiaztatzen duten agiriekin batera, honako hau eskatzeko:
 - Kontratua betearazten jarraitzea gainerako kideekin. Kasu horretan, ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela dioten egiaztagirak aurkeztu beharko ditu.
 - Kontratua betearazten jarraitzea ABEEko hasierako kideekin, konkurtso-egoeran daudenak barne.
2. Baldintza orokorren 37.2.1 klausulako 2tik 9ra bitarteko puntuetan (3. puntua alde batera utzita) azaltzen diren izapideak egitea. Eta, kontratazio-organoak ebatzen badu ABEEak kide guztiekin jarrai dezala kontratua betearazten (konkurtso-egoeran daudenekin ere), kontratua behar bezala betearazteko besteko berme gehigarri nahikoak eman beharko ditu ABEE kontratistak, hain zuzen ere kontratazio-organoak bere ebazpenean adierazi dituenak.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA

38.- BETETZEA: HARRERA, OBREN AZKEN ZIURTAGIRIA, BERME-EPEA, LIKIDAZIOA ETA BERMEA ITZULTZEA

Kontratistak kontratuaren objektua osorik burutzen duenean, kontratuaren terminoen eredura eta botere adjudikatzailea gogobetez, kontratua bete duela joko da, eta kontratua gauzatzeko, obrak botere adjudikatzaileari entregatuko zaizkio.

Aurrekoa egiaztatzeko, onartzeko edo baldintza orokorren 38.1 artikulua dioenarekiko adostasuna agertzeko ekintza formala eta positiboa egin beharko du botere adjudikatzaileak.

Kontratistak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharren berri izan eta ohar horiei buruz esateko duena entzun dakion.

38.1.- Harrera.

SPKLren 210.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, hauek joango dira obren harrera-egintzara: botere adjudikatzaileak ordezkari izateko izendatutako teknikaria; obren zuzendaritzaren ardura duen teknikaria; Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria, hala badagokio, eta kontratista (nahi badu, teknikari bat eraman dezake).

Horretarako, obrak amaitzeko aurreikusitako eguna komunikatuko dio, idatziz, kontratistak edo beraren ordezkariak obra-zuzendaritza teknikoari, gutxienez berrogeita bost (45) egun baliodun lehenago. Idazki hori botere adjudikatzailearen erregistroan aurkeztu beharko da.

Kontratazio-organoak, aldeko ebazpena eman ostean, idatzizko komunikazioa egiten duenean zuzendaritza teknikoaren txostenean oinarrituta, obra hartuko da. Kontratuaren klausula espezifikoaren 15.1 klausulan azaltzen den epean hartuko da obra.

Obraren harrera-akta egingo da, eta egintzan parte hartzen duten guztiek sinatuko dute. Bertan adieraziko da obrak egoera onean dauden, eta ea bat datozen ezarritako preskripzioekin. Hala izanez gero, botere adjudikatzaileak izendatutako pertsonak onartutzat joko ditu eta orduan hasiko da berme-epea zenbatzen.

Bestelako kasuetan hala jasoko da harrera-aktan, eta obren zuzendaritza teknikoak antzemandako akatsak azalduko ditu eta jarraibide zehatzak emango ditu akatsak zuzentzeko, horretarako ezarritako epean. Epe horretan akatsak konpontzen ez badira, beste epe luzaezin bat eman ahal izango da, edo kontratua suntsiarazi dela deklaratu.

Botere adjudikatzaileak obra-zatiak hartu ahal izango ditu, kontratuaren klausula espezifikoaren 15.2 klausulan hala ezarri bada. Kasu horretan, kontratutako azken ziurtagiria egin beharko da.

Behar bezala azaldutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiengatik kontratazio-organoak erabakitzen badu obrak okupatzea edo erabilera edo zerbitzu publikorako jartzea, hori gertatzen denetik bertatik sortuko dira harrera-egintzaren berezko ondorioak, nahiz eta harrera-egintza formalik izan ez, HAKLEOren 168. artikulua arabera, benetan okupatzen edo erabilera edo zerbitzu publikorako jartzen den unetik.

Azaroaren 5eko 38/1999 Legearen, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoaren mende dauden obretan, une horretan kontratistak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- a) Eraikuntzako prozesuan parte hartu dutenen zerrenda.
- b) Eraikina eta bere instalazioak erabili eta mantentzeko jarraibideei buruzko dokumentazioa.

38.2.- Obren azken ziurtagiria.

Obrak hartu eta hiru (3) hilabeteko epearen barruan, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoaren 15.4 klausulan beste epe bat zehaztu bada, egindako obren azken ziurtagiria onetsi beharko du kontratazio-organoak, eta kontratistari ordainduko zaio, kontratuaren likidazioaren kontura. Horretarako, azken neurketa egingo da, baita jatorrian balioetsitako zerrenda ere.

Hamabi milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten eta likidazio- eta neurketa-eragiketak biziki korapilatsuak diren obren kasuan, 243.1 artikulua bigarren paragraforak ezartzen duen azken ziurtapena onartzeko epea epea luzatu ahal izango da; nolana ere, epe hori ez da sekula izango bost hilabetetik gorakoa eta espedientearen justifikatuko da.

Dena den, bereziki konplexuak diren neurketa-eragiketatzat hartuko dira interes orokorreko obrei eragiten dietenak, edo artikulua honetan xedatutakoaren arabera aldatu diren kontratuak dituzten obrei eragiten dietenak. 9/2017 Legearen 203. artikulua eta hurrengoak (SPKL).

Ondore horietarako, obrak hartu ostean, harrera-aktan ezarritako datan, zuzendaritza teknikoak, kontratista aurrean dagoela, proiektuaren arabera benetan egin diren obren neurketa orokorra egingo du. Neurketa hori egiteko data harrera-aktan agertzen denez, kontratistak ezin izango du alegatu komunikazio-faltarik, eta jakinarazi zaiola ulertuko da.

Egintza horien akta egingo da hiru aletan. Akta hori zuzendaritza teknikoak eta kontratistak sinatuko dute. Sinatzaileei ale bana emango zaie. Hirugarren alea zuzendaritza teknikoak kontratazio-organismoari bidaliko dio.

Kontratista ez bada neurketara joan, aktaren ale bat bidaliko dio zuzendaritza teknikoak, eta bost (5) egun balioduneko epean adierazi beharko du bertan adierazitakoarekin ados dagoen ala ez, eta egokitzen jotzen dituen eragozpenak jarri. Kontratistak neurketa orokorraren emaitzaren aurka egiten dituen erreklamazioak idatziz igorri beharko dizkio kontratazio-organismoari, zuzendaritza teknikoaren bitartez.

Neurketa orokorraren emaitza oinarritzat hartuta, obraren zuzendaritzak zerrenda balioetsia idatziko du, harrera-egunetik hilabete bat (1) igaro baino lehen.

Ondoren, epe hori amaitu eta hurrengo hamar (10) eguneko epean, zuzendaritza teknikoak azken ziurtagiria egin eta izapidetuko du.

Hogeita hamar (30) eguneko epean, azken ziurtagiria onartzen denetik, botere adjudikatzailerak ordaindu egingo kontratistak aurretiaz aurkeztu duen faktura. Hori kontratuaren klausula espezifikoan 19.6.2 klausulan azaltzen den erregistroan egin beharko da.

38.3.- Berme-epea.

38.3.1.- Berme-epea kontratuaren klausula espezifikoan 15.3 klausulan dago ezarrita, eta obra (osorik zein zati bat) hartzen denetik aurrera zenbatuko da. Hala ere, kontuan hartuko da azaroaren 5eko 38/1999 Legearen, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoaren 17. artikuluan aurreikusitako erantzukizun zibila, 2. artikuluan arabera horren mende dauden obretarako. Era berean, bermearen eraginpeko exekuzio-baldintza bereziak betetzen ez badira, baldintza orokorren 33.2 klausulan aurreikusitako prozeduratik ondorioztatzen dena hartuko da kontuan.

38.3.2.- Berme-epean, kontratista obren kontserbazio eta poliziaz arduratuko da, PTPAN aurreikusita dagoenaren arabera, eta zuzendaritza teknikoak kontratuaren interpretazio teknikoa eginda idatziz emandako jarraibideei jaramon eginez, betiere lan horiekin obraren erabilera publikoa oztopatzen ez bada.

38.3.3.- Berme-epean, kontratistak bere gain hartu behar ditu obraren akats edo hutsune guztien nahiz obra kontserbazioak eragiten dituen gastuen erantzukizuna. Gastu horiek kontratistaren kontura izango dira, eta hark ez du jasoko inolako kalte-ordainik horregatik. Salbuespen bat izango da, ordea: ezinbesteko kasuetan obrak jasaten dituen kalteak eta hirugarrenek sortutakoak botere adjudikatzaileraren kontura izango dira. Hala ere, botere adjudikatzailerak konponketa-lanak egiteko eskatuko ahal izango dio kontratistari.

38.3.4.- Kontratistak poliziaren eta kontserbazioaren betebeharra behar bezala betetzen ez badu eta hala obra arriskuan jartzen badu eta/edo detektatutako akats edo hutsuneak bere kabuz edo zuzendaritza teknikoak eskatuta konpontzen ez baditu, botere adjudikatzailerak beharrezkoak diren lanak egingo ditu kaltea saihesteko eta/edo akats edo hutsuneak behin betiko bermearen kontura konpontzeko. Behin betiko bermea nahikoa ez bada, premiamenduzko administrazio-prozeduraz kobratuko da aldea, diru-bilketarako arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.

38.3.5.- Berme-epearen azken hamabost (15) egunetan, obren egoerari buruzko txostena egingo du obraren zuzendaritza teknikoak, ofizioz edo kontratistak eskatuta.

Txostena aldekoa bada, erantzukizun guztiak kenduko zaizkio kontratistari, SPKLren 244. artikuluko ezkutuko akatsengatik erantzukizuna ez beste guztiak.

Txostena aldekoa ez bada, ordea, eta antzemandako akatsak obra behar ez bezala egin izanaren ondorio badira eta ez eraikitakoa behar ez bezala erabiltzearena, zuzendaritza teknikoak, berme-epean zehar, eraikitakoa behar bezala konpontzeko jarraibideak

emango dizkio kontratistari, eta epe bat ezarriko dio horretarako. Epe horretan, kontratistak obrak kontserbatzeko ardura edukiko du, baina ez du jasoko dirurik berme-epea luzatzeagatik.

38.4.- Kontratua likidatzea.

Obren egoerari buruzko txostena aldekoa bada edo, kontrako kasuan, akatsak konpondu ostean, benetan burututako obrak likidatzeko proposamena egingo du zuzendaritza teknikoak, hilabeteko (1) epean berme-epea amaitzen denetik. Ondore horietarako, kontratuan ezarritako baldintza ekonomikoak hartuko ditu oinarri gisa balorazioa egiteko.

Likidazio-proposamena kontratistari jakinaraziko zaio; horrela, hamar (10) eguneko epea izango du ados dagoela azaltzeko edo egokituz jotzen dituen eragozpenak azaltzeko.

Berme-epea amaitu eta bi (2) hilabeteko epean, kontratazio-organoak, ebazpen bidez, kontratuaren likidazioa eta saldoa onartuko ditu.

Kontratazio-organoak likidazioa onartu ondoren, horren berri emango zaio kontratistari, eta likidazioaren egiaztagiraren kopia –zuzendaritza teknikoak egindakoa- bidaliko zaio.

Hirurogei (60) eguneko epean, kontratuaren likidazioa onartzen denetik zenbatuta, eta kontratistak kontratuaren klausula espezifikoan 19.6.2 klausulan azaltzen den erregistroan faktura aurkeztu ondoren, botere adjudikatzailerak likidazioaren saldoa ordainduko du, saldo hori kontratistaren aldekoa bada.

Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak eskubidea edukiko du berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

38.5.- Bermea itzultzea.

38.5.1.- Bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua kontratistaren errurik gabe suntsituzat jotzeko deklarazioa egin arte.

38.5.2.- Kontratuaren likidazioa onartu eta berme-epea amaitu ondoren ez bada ezeren erantzukizunik sortu, emandako bermea itzuli egingo da edo abala edo kauzio-asegurua ezereztatu egingo da. Horretarako, bermea eman zaion agintaritza horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari edo dena delako erakunde publikoko antzeko organoari jakinarazi behar dio bermea kontratuari dagozkion betebeharren erantzukizunetik aske geratu den edo ez.

38.5.3.- Bermea itzultzeko erabakia berme-epea amaitzen denetik bi (2) hilabete pasatu baino lehen hartu behar da, bai eta interesdunari jakinarazi ere. Epe hori amaitutakoan, zor zaion zenbatekoa ordaindu beharko dio botere adjudikatzailerak kontratistari, gehi berme-epea amaitu zenetik bermea itzuli arteko aldiari dagokion diruaren legezko interesa, baldin eta bermea ez itzultzeko arrazoia administrazioari egotz badakioke.

38.5.4.- Harrera partziala egin bada, bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezerezteko eska dezake kontratistak, ez gehiago, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoan 8.5 klausulan berariaz aurreikusi bada hori egiteko aukera.

38.5.5.- Kontratua laga bada, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak berea formalki eratu arte.

38.5.6.- Kontratua amaitzeko epea amaitu eta, enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion zergatiengatik, urtebete (1) igarota ez bada harrera-egintza formalik ez likidaziorik izan, bermeak itzuliko zaizkio kontratistari, edo ezereztu egingo da, beste luzapenik gabe, SPKLren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren.

Aurreko paragrafoan adierazitako urtebeteko (1) epea sei (6) hilabeteko bilakatuko da kasu hauetan:

a) Kontratuaren zenbatekoa 1.000.000 eurotik beherakoa denean.

b) Kontratistak enpresa txiki edo ertainen betekizunak betetzen baditu –Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen

dituen Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan I. eranskinean ezarritakoaren arabera- eta betekizun horiek betetzen ez dituen beste enpresaren batek zuzenean edo zeharka kontrolatzen ez baditu.

39.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 211. eta 245. artikuluetan eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoan 17. klausulan jasotzen direnez gain, honako hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Botere adjudikatzailerak dituen zuzendaritza- eta ikuskaritza-eskumenak eragozteak.
- b) Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.
- c) ABEEa bada, eta kideetako bat SPKLren 211. artikuluko a) eta b) letretako kasuan badago, Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkarte osatzen duten gainerako enpresei kontratu-betebeharrak bete ditzaten eskatzeko, edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeke.
- d) Kontratua suntsiarazteko arrazoiak bada lanak egiteko epea atzeratzea eta, horren ondorioz, SEEParen mugarrak edo helburuak ez betetzeko arriskua badago, betetze hori kontratua egikaritzeko baldintza berezitzat hartzen dela kontuan izanik, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiarazi eta kalte-galerengatik kalte-ordaina eskatu edo baldintza orokorren 33.1 klausulako k) letran adierazitako zigorrak ezarri.

OHARRA: Interes-gatazkarik ezaren adierazpenari buruzko betebeharra funtsezkotzat jo daiteke. Hala bada, kasu horretan bakarrik adostu ahal izango da kontratua indargabetzea adierazpen hori ez betetzeagatik. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak, 2021eko abenduaren 23ko instrukzioan, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren funtsekin finantzatutako espedienteetan sartu beharreko alderdiei buruzkoan, zehaztu zuen kontratua indargabetzeak atzerapen handia ekar dezakeenez eta, kontratu-motei erreparatuta, balitekeelako epe jakin baterako amaituta egon behar izatea, kontratuak indargabetzeko kausa hori soilik txertatuko dela atzerapenak horrek ez badakar kalte esanguratsurik kontratatzailearentzat (2.II.d apartatua).

VII.- GORABEHERAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA

40.- GORABEHERAK

40.1.- Kontratazio-organoaren prerrogatibak.

Administrazio-kontratuak interpretatzeari, betetzearen inguruko zalantzei, aldaketak egiteari, kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna deklaratzeari, betearaztea eteteari, suntsiarazteari eta suntsiaraztearen ondorioei buruz gertatzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio hari hilabete bateko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

40.2.- Prozedura.

Kasu zehatzetarako baldintza-agiri honetan eta sektore publikoaren kontratuen araudian ezarrita dagoena bazter utzita, botere adjudikatzailaren eta kontratistaren artean kontratua betearazteari eta azkentzeari buruz sortzen diren gorabehera guztiak espediente kontraesankorraren bitartez izapidetuko dira; espediente horren barruan honako jarduketa hauek egingo dira:

- a) Botere adjudikatzailaren proposamena edo kontratistaren eskaera.
- b) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean. Kontratua suntsiarazten denean, entzunaldia kontratistari, hamar (10) egun balioduneko epean izango da, betiere kontratuaren suntzipena kontratazio-organoak ofizioz adostu duenean.
- c) Zuzendaritza teknikoaren txostena.
- d) Aholkularitza juridikoaren txostena, hala badagokio.
- e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, hala badagokio.
- f) Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari egindako jakinarazpena.

Interes publikoko arrazoiek justifikatu ezean edo gorabeheren izaerak hala eskatu ezean, prozedura hau izapidetzeak ez du kontratua geldiaraztea ekarriko.

41.- EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA

SPKLren 44.1 klausulan jasota ez dauden kontratuei buruzko egintzen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112, 121 eta 123. artikuluetan aurreikusita dauden errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

Kontratazio-errekurtso berezia jartzeko aukera badago, hurrengo arau bereziak aplikatuko dira, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 58. artikuluan aurreikositakoari jarraikiz betiere:

- a) Kontratazio-organoak ezin izango du kontratua formalizatu, harik eta kontratua esleitzeko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hamar egun natural igaro arte. Kasu horretan, kontratazio-errekurtso berezia jartzeko epea, hala dagokionean, hamar egun naturalekoa izango da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 50.1 artikuluan ezarritako moduan zenbatuko da.
- b) Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak berariaz erabaki beharko du, errekurtsoa jarri eta bost egun balioduneko epean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean ezarritako onartezintasun-kausaren bat gertatzen den, eta hartutako kautela-neurriei eutsiko zaien (baita etete automatikoko kasuetan ere).

VIII.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO SEMaren FUNTSAK

42.- BALDINTZA OROKORRAK

Ondoren ezarritako klausulak eta berezitasunak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik datorren finantzaketa jasotzen duten kontratuei aplikatuko zaizkie, kontratuaren baldintza espezifikoan 3.5 klausulan adierazitakoari jarraikiz [«Europar Batasunetik datorren Finantzaketa (SEMaren Funtsak)»].

42.1.- Araubide juridikoa

Agiri honen 3. klausulan ezarritako araubide juridikoari dagokionez, honako hauek ere aplikatzekoak izango dira: abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko; irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena; eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Agindua, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa eman beharreko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugari eta helburuak eta neurrien aurrekontua eta kontabilitatea zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko.

Nahitaezkoa izango da laguntzen jarraipena egiteko metodologia betetzen segitzea, SEEPean aurreikusitakoaren arabera, Europako Parlamentuaren (EB) 2021/241 Erregelamenduan – mugariak eta helburuak betetzeari buruzkoa – eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraikiz. Halaber, bete egin behar da Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (CID) eskatutakoa, bai eta etiketatze klimatikoaren eta digitalaren baldintzak ere.

42.2.- Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana

Lizitatzailerek eskaintzak aurkezteak berekin dakar baldintzarik eta erreserbarik gabe onartzea Iruzuraren aurkako Neurrien Plana –1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan aipatua eta Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29ko bilkuran onartua–. Hain zuzen ere, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren baliabideekin finantzatzeko ekimenetarako eskatzen diren baldintzak betetzeko neurrien plana da (iruzuraren aurkako baldintzak, interes-gatazkari buruzkoak, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzkoak eta ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragitekoak), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen dena, bai eta Eusko Jaurlaritzak iruzuraren aurka borrokatzeko bere gain hartu duen Erakunde Adierazpena gauzatzeko ere.

Iruzuraren aurkako Plan hori onartu da zenbait obligazio betez, hain zuzen ere, honako hauek ezarritakoak: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan 22. artikulua eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua, zeinak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren neurriak ezartzen parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orori iruzuraren aurkako neurrien plan bat edukitzeko betebeharra ezartzen baitio. Nolanahi ere, lizitatzailerek lehia askearen, gardentasunaren eta osotasunaren printzipioak errespetatu behar dituzte lizitazio-fase osoan, bai eta kontratua gauzatzeari eta betetzeari buruzkoak ere, eta, horregatik, kontratazio-espedienteari eragin diezaioketen edozein gatazka-egoera, potentziala edo erreala, berehala jakinarazi beharko diote kontratazio-organoari.

Kontratazio-espediente hori eta haren betearazpena Europako Batzordeak, Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolen eraginpean egongo dira, eta, horretarako, kontratuari buruz eskatutako informazio guztia eskuratzeko aukera emango zaie organo horiei.

42.3.- Dokumentazioa zaintzeko betebeharra

Artikulu horretan ezarritako betebeharrari jarraikiz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko irailaren 23ko 2024/2509 (EB, Euratom) Erregelamenduan 133 artikuluan arabera, kontratistek eta azpikontratistek erregistro bat izango dute, eta finantzaketari buruzko egiaztagiria, datu estatistikoak eta gainerako agiriak gordeko dituzte bertan, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, saldoa –edo, ordainketa horren ezean, eragiketa– ordaindu eta bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60 000

eurokoa edo txikiagoa bada.

Auditoriei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapidetzeari buruzko erregistroak eta dokumentuak, bestalde, auditoria, errekurtsu, auzi, erreklamazio-izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte gordeko dira. Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoak egindako ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da.

Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko hiru aukera daude: jatorrizkoak; jatorrizkoen kopia konpultsatuak; edo orokorrean onartutako datu-euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik existitzen diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak existitzen direnean, ez dira beharrezkoak izango originalak, baldin eta dokumentu horiek legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte, auditoria-ondorioetarako jatorrizkoen baliokide eta fidagarritzat jo ahal izateko.

42.4.- Komunikazioaren arloko betebeharrak

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritako betebeharra betez, kontratua Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzearekin zerikusia duten komunikazio-jarduketa guztietan, kontratistek eta azpikontratistek modu nabarmen eta ikusgarrian erakutsi beharko dute Europar Batasunaren enblema; halaber, jasotako finantzaketaren adierazpena ere erantsi beharko dute honako erreferentzia honekin: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana — Europar Batasunak finantzatua — NextGenerationEU».

Europar Batasunaren enblemak desberdin eta bereizita egon beharko du, eta ezingo da aldatu bestelako ikus-marka, marka edo testuak gehituz.

Gauzatutako jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, webguneetan, prentsako iragarki eta txertaketetan, ziurtagirietan eta abarretan sartuko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak edonork ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira.

ERANSKINAK

LABURPEN-KOADROA

I. KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKO JAKIN BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

☐	I.1 ERANSKINA	FORMULA MATEMATIKO(AR)EN SIMULAZIOA
--------------------------	---------------	-------------------------------------

II. «A» GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	II.0 ERANSKINA	DATU PERTSONALAK
☒	II.1 ERANSKINA	EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)
☐	II.2 ERANSKINA	BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA
☒	II.3 ERANSKINA	ESKAINZAN BILDUTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA
☒	II.4 ERANSKINA	ABEEa FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA
☒	II.5 ERANSKINA	KONTRATUAREN OBJEKTU DEN JARDUERA EGINGO DUTEN PERTSONEI DAGOKIENEZ HARTUTAKO KONPROMISOEN DEKLARAZIOA
☒	II.6 ERANSKINA	ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK
☐	II.7 ERANSKINA	ESKAINZTA / ESKAINZTA INTEGRATZAILEA ZEIN SORTATARAKO AURKEZTEN DUEN: SORTA-KONBINAZIOA
☐	II.8 ERANSKINA	ZERBITZARIEN AZPIKONTRATAZIOARI BURUZKO ADIERAZPENA
☐	II.9 ERANSKINA	BERDINTASUN-PLANA, ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN PREBENTZIOAREN ARLOKO ARAU-HAUSTE ASTUNA EGITEAGATIK EZARRITAKO ZEHAPEN IRMOAK EDO EGINDAKO DELITUAK

Baldin eta izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez badira":

☐	II.10 ERANSKINA	JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK
--------------------------	-----------------	---

III. «B» GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	III.1 ERANSKINA	ESKAINZTA EKONOMIKOA
-------------------------------------	-----------------	----------------------

BESTE BATZUK:

☐	EZ DA HALAKORIK ZEHAZTEN	
☐	III.2 ERANSKINA	
☐	III.3 ERANSKINA	

IV. «C» GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK.

☐	EZ DA HALAKORIK ZEHAZTEN	
☐	IV.1 ERANSKINA	
☐	IV.2 ERANSKINA	

V. ESKAINZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	V.0 ERANSKINA	BENETAKO TITULARTASUNAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
☒	V.1 ERANSKINA	KONTRATUAREN BETEARAZPEN OSOAN ESKURA IZATEA BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENA ETA BALIABIDEAK
☒	V.2 ERANSKINA	SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA
☒	V.3 ERANSKINA	BANKU-ABALAREN EREDUA. ABEEentzako BANKU-ABALAREN EREDUA
☒	V.4 ERANSKINA	KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA. ABEEentzako KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA
☒	V.5. ERANSKINA	INTERES GATAZKARIK EZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA)
☒	V.6 ERANSKINA	SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN (SEEP) EZARRITAKO ZEHARKAKO PRINTZPIOAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

ESKAINZAN AURKEZTU

☒	V.7 ERANSKINA	INGURUMENARI KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (DNSH PRINTZIPIOA)
☒	V.8 ERANSKINA	IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKA ONARTU ETA EZAGUTZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
☒	V.9 ERANSKINA	FINANTZAKETA BIKOITZIK EZ DAGOELA EGIAZTATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

VI. ESLEIPEDUNAK FORMALIZAZIO AURRETIK AURKEZTU BEHARREKOAK

☒	VI ERANSKINA	ZERBITZARIEN ETA HORIEI LOTUTAKO ZERBITZUEN KOKAPENARI BURUZKO ADIERAZPENA
-------------------------------------	--------------	--

VI.BIS. KONTRATISTAK (BETEARAZPEN-FASEAN) AURKEZTU BEHARREKOAK.

☐	VI.BIS ERANSKINA	AZPIKONTRATAZIOA KOMUNIKATZEA
--------------------------	------------------	-------------------------------

VII. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

☒	VII.1 ERANSKINA	DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA
☒	VII.2 ERANSKINA	DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ENKARGUA
☒	VII.3 ERANSKINA	DATUEN TRATAMENDU ETA LAGAPENERAKO ADIERAZPENAREN EREDUA, SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (STEP) JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKIONEZ

I.1 ERANSKINA.- FORMULA MATEMATIKO(AR)EN SIMULAZIOA

Prezioaren irizpidea balioesteko formularen simulazioa:

..... irizpidea balioesteko formularen simulazioa:

II.O ERANSKINA.- DATU PERTSONALAK

¹ Nik, jaunak/andreak (NAN:), nire izenean edo [operadore ekonomikoa] operadore ekonomikoaren ordezkartzan (IFZ:) [operadore ekonomikoarena], zenbakiko espedienteari dagokionez,

HAU DEKLARATZEN DUT:

1. Ni, erantzukizunpeko deklarazio hau sinatu dudana hau, naizela eskaintza aurkeztu duen pertsona, entitate edo enpresaren ordezkaria.
2. Erantzukizunpeko deklarazio hau aurkeztu dudala, bertan bildutako datu pertsonalak barne, datu pertsonal horiek ez daitezela aldi berean agertu nahitaez aurkeztu eta sinatu behar diren administrazio-klausula partikularren agiriko gainerako eranskinetan. Horrela, bete egingo dira datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak.

.....(e)n, 20...(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datu-babesaren alorrean indarrean dagoen gainerako araudia, jakinarazten da datu pertsonalak tratamendu-jarduera honen barruan sartuko direla: «**Kontratazioaren kudeaketa**»:

1. **Arduraduna:** Dagokion kontratazio-organoa.
2. **Helburua:** kontratazio publikoaren prozeduraren kudeaketa, fase guztietan, betearazpena, aldatetako, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta iraungipena barne hartuta, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratatari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
3. **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat betearazteko eta tratamenduaren organo arduradunari aplikagarria zaion lege-betebeharra betetzeko.
4. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
5. **Eskubideak:** Eskubidea duzu zure datuetarako irispidea izateko, datu horiek zuzentzeko eta ezabatzeko edo datuen tratamendua mugatu edo haren aurka egiteko.

INFORMAZIO ZABALAGOA VII.1 ERANSKINEAN: «DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA»

¹ Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkeztu badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariak sinatu beharko dute deklarazio hau.

II.1 ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)**AURKIBIDEA**

Formulario honek zati eta atal hauek ditu:

I. zatia. Kontratazio-prozedurari eta botere edo entitate adjudikatzaileari buruzko informazioa.

II. zatia. Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.

A atala: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.

B atala: Operadore ekonomikoaren ordezkariari buruzko informazioa.

C atala: Beste entitate batzuen gaitasunaz baliatzeari buruzko informazioa.

D atala: Azpikontratisteari buruzko informazioa, operadore ekonomikoa haien gaitasunean oinarritzen ez denean.

III. zatia. Baztertzeko arrazoiak:

A atala: Zigor-kondenei buruzko arrazoiak.

B atala: Zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeari buruzko arrazoiak.

C atala: Kaudimengabeziari, interes-gatazkei edo hutsegite profesionalari buruzko arrazoiak.

D atala: Botere edo entitate adjudikatzailearen estatu kideko legeria nazionalean ezarrita egon daitezkeen baztertzeko beste arrazoi batzuk.

IV. zatia. Hautaketa-irizpideak:

α atala: Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra.

A atala: Egokitasuna

B atala: Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.

C atala: Gaitasun tekniko eta profesionala.

D atala: Kalitatea bermatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko arauak

V. zatia. Hautagai gaituen kopurua murriztea.

VI. zatia. Azken deklarazioak.

I. zatia: Kontratazio-prozedurari eta botere adjudikatzailerari buruzko informazioa

KONTRATAZIO-PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

I. zatian eskatzen den informazioa automatikoki lortuko da EKAB zerbitzu elektronikoa erabiltzen bada Europako Kontratazio Agiri Bakarra sortzeko eta betetzeko. Helbide honetan dago erabilgarri:

<https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es>

Kontratatzailea nor den ¹	Erantzuna
Izena:	[]
Zertarako kontratazioa da?	Erantzuna
Kontratazioaren izenburua edo deskribapen laburra ² :	[]
Botere edo entitate adjudikatzailerak espedienteari esleitu dion erreferentzia-zenbakia (hala badagokio) ³ :	[]

II. ZATIA: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa

A: OPERADORE EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Identifikazio-datuak	Erantzuna
Izena:	[]
BEZ zenbakia, hala badagokio ⁴ :	[]
BEZ zenbakia eduki ezean, adierazi, eskatuz gero, nortasuna adierazteko beste zenbaki nazional bat.	[]
Posta-helbidea:	[...]
Harremanetarako pertsona edo pertsonak ⁵ :	[...]
Telefono-zenbakia:	[...]
Helbide elektronikoa:	[...]
Interneteko helbidea (web-orriaren helbidea, hala badagokio):	[...]
Informazio orokorra	Resposta
Mikroenpresa bat, enpresa txiki bat edo enpresa ertain bat al da operadore ekonomikoa? ⁶	☐ Bai ☐ Ez

¹ Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako lizitazio-iragarkiaren I. apartatuko I.1 puntuan agertzen den informazioa adierazi beharko da. Kontratazio bateratua baldin bada, kontratatzaile guztien izenak adierazi beharko dira.

² Ikusi lizitazio-iragarkiaren II.1.1 eta II.1.4 puntuak.

³ Ikusi EBAOn argitaratutako lizitazio-iragarkiaren II.1.1 puntua.

⁴ Espainiako herritar edo operadore ekonomikoek IFZ adierazi behar dute; Espainian bizi diren atzerriko herritarrek, AIZ; EBko estatu kideren bateko operadore ekonomikoek, IFK-BEza edo Europar Batasunaren barruko IFK, edo, hala badagokio, DUNS zenbakia; Europar Batasunetik kanpoko estaturen bateko operadore ekonomiko atzerriarrek, DUNS zenbakia adierazi behar dute.

⁵ Behar beste aldiz errepikatu harremanetarako pertsonen buruzko informazioa.

⁶ Ikusi Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko gomendioa, mikroenpresen, enpresa txikien eta enpresa ertainen definizioari buruzkoa (2003-05-20ko 124. AO L. 36. or.). Estatistikak egiteko soilik eskatzen da datu hori.

Mikroenpresa: 10 langile baino gutxiagoko operadore ekonomikoa; urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra: gehienez 2 milioi euro.

Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiagoko operadore ekonomikoa; urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra: gehienez 10 milioi euro.

Enpresa ertaina: operadore ekonomiko hori ez da mikroenpresa, ezta enpresa txikia ere; 250 langile baino gutxiago; urteko negozio-bolumena: gehienez 50 milioi euro; urteko balantze orokorra: gehienez 43 milioi euro.

Kontratazio erreserbatua bada bakarrik¹: operadore ekonomikoa tailer babestua edo gizarte-enpresa al da, edo kontratua enplegu babestuko programen esparruan betearazteko asmoa al du? Erantzuna baiezkkoa bada: Zein da desgaitasuna duten edo gizarte-egoera ahulean dauden langileen ehunekoa? Beharrezkoa bada, adierazi zer kategoriatan dauden desgaitasuna duten edo gizarte-egoera ahulean dauden langileak.	☐ Bai ☐ Ez [...] [...]
Hala badagokio, operadore ekonomikoa ba al dago operadore ekonomiko baimenduen zerrenda ofizialen batean inskribatuta, edo ba al du ziurtagiri baliokiderik? (adibidez, (aldez aurreko) sailkapen-sistema nazional baten esparruan)²?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez dagokio
Erantzuna baiezkkoa bada: Erantzun atal honetako gainerako galderak, B atala eta, hala dagokionean, zati honetako C atala. Hala dagokionean, bete V. zatia eta, edonola ere, bete eta sinatu VI. zatia. Adierazi zerrendaren edo ziurtagiriaren izena, eta inskripzio- edo ziurtapen-zenbakia: Baldin eta inskripzio-ziurtagiria edo ziurtapena formatu elektronikoan badago, adierazi datu hauek: Adierazi zein erreferentzian oinarritzen den inskripzio edo ziurtapena eta, hala badagokio, zerrenda ofizialean lortutako sailkapena³: Jaso al dira inskripzio edo ziurtapenean eskatutako hautaketa-irizpide guztiak? Erantzuna ezezkoa bada: Adierazi, gainera, IV. zatian falta den informazioa; A, B, C edo D atalak, hala badagokio. Kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan HALAKORIK ESKATZEN BADA (bestela ez): Operadore ekonomikoak aukera izango al du ziurtagiri bat aurkezteko Gizarte Segurantzako kotizazioen eta zergen ordainketari buruz, edo informazioa emateko botere edo entitate adjudikatzailerak ziurtagiria zuzenean eta doan lortu dezan edozein estatu kide-tako datu-base nazional baten bitartez? Baldin eta dokumentazioa formatu elektronikoan badago, adierazi datu hauek:	[...] (web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde edo agintaritza, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): [...] [...] [...] [...] [...] ☐ Bai ☐ Ez [...] (web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde eta agintaritza, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): [...] [...] [...] [...] ☐ Bai ☐ Ez
Parte hartzeko modua	Erantzuna
Operadore ekonomikoa beste batzuekin batera ari al da parte hartzen kontratazio-prozeduran⁴?	☐ Bai ☐ Ez

¹ Ikusi kontratuaren klausula espezifikoaren 20.7 klausula eta EBAOn argitaratutako lizitazio-iragarkiaren III.1.5 puntua.

² Ikusi baldintza orokorren 11.5 klausula.

³ Erreferentziak eta sailkapena, hala badagokio, ziurtapenean daude.

⁴ Bereziki, talde, partzuergo, partaidetzako enpresa edo antzeko batean (ABEE).

Erantzuna baiezkoa bada , ziurtatu gainerako interesdunek bereizitako EKAB formularioa aurkeztu dutela ¹ .	
Erantzuna baiezkoa bada: a) Adierazi operadore ekonomikoak zein eginkizun betetzen duen taldean (arduradun nagusia, ataza zehatzen arduraduna, etab.): b) Adierazi kontratazio-prozeduran batera parte hartzen duten gainerako operadore ekonomikoak: c) Hala badagokio, talde parte-hartzailearen izena:	a): [...] b): [...] c): [...]
Sortak	Erantzuna
Hala badagokio, adierazi operadore ekonomikoak zein sortatarako aurkeztu nahi dituen eskaintzak:	[...]

B: OPERADORE EKONOMIKOAREN ORDEZKARIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Hala badagokio, adierazi operadore ekonomikoa kontratazio-prozedura honetan ordezkatzeko baimena duten pertsonen izena eta helbidea.	
Ordezkaritza, izanez gero	Erantzuna
Izen-abizenak:	[...]
Jaiotza-eguna eta -lekua, hala badagokio:	[...]
Zer kargutan edo zer gaitasunetan jarduten duen:	[...]
Posta-helbidea:	[...]
Telefono-zenbakia:	[...]
Helbide elektronikoa:	[...]
Beharrezkoa bada, adierazi ordezkaritzari buruzko informazio zehatza (moduak, irismena, helburua...)	[...]

C: BESTE ENTITATE BATZUEN GAITASUNAZ BALIATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Baliabidea	Erantzuna
Operadore ekonomikoa beste entitate batzuen gaitasunean ² oinarritzen al da IV. zatian aurreikusitako hautaketa-irizpideak betetzeko?	☐ Bai ☐ Ez
Erantzuna baiezkoa bada, bereizitako EKAB formulario bat aurkeztu behar du entitate bakoitzak, behar bezala bete eta sinatuta, zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioarekin. Hemen sartuko dira operadore ekonomikoaren antolaketan zuzenean sartzen ez diren teknikariak edo erakunde teknikoak, eta bereziki kalitate-kontrolaren ardura dutenak. Operadore ekonomikoak baliatuko dituen gaitasun zehatzei dagokienez, entitate bakoitzari buruz jaso behar da IV. zatian eskatutako informazioa³.	

D: AZPIKONTRATISTEI BURUZKO INFORMAZIOA, OPERADORE EKONOMIKOA HAIEN GAITASUNEAN OINARRITZEN EZ DENEAN

¹ Operadore ekonomiko bi edo gehiago enpresa-talde batean aurkeztzen badira, edo adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratze konpromisoa adierazten badute, operadore ekonomiko bakoitzak EKAB formulario bat bete eta sinatu beharko du, II, III, IV eta V. zatian beteta. Operadore ekonomiko batzuek batera aurkeztzen badute eskaintza, adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratze konpromisoarekin, ABEEa formalki eratze konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, AKPAren eranskinean jasota dagoen ereduaren arabera.

² Gaitasuna esan arren, kaudimena ulertu behar da.

³ Esate baterako, kalitate-kontrolaz arduratzen diren erakunde teknikoak badira: IV. zatia, C atala, 3. puntua.

Atal hau bete beharko da baldin eta beren-beregi hala eskatzen bada kontratuaren klausula espezifikoan 14.2 klausulan.

Azpikontartatzaioa	Erantzuna
Operadore ekonomikoak asmorik al du kontratuaren zatiren bat hirugarrenei azpikontartatzeko?	☐ Bai ☐ No Erantzuna baiezkua bada, eta datu hori ezagutuz gero, zerrendatu aurreikusitako azpikontartistak: [...]¹

Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoan 14.2 klausulan informazio hori eskatzen bada atal honetan eskatu denaren osagarri, zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioa ere eman beharko da, azpikontartista bakoitzeko, edo azpikontartisten kategoria bakoitzeko.

III. zatia: Baztertzeko arrazoiak

A: ZIGOR-KONDENEI BURUZKO ARRAZOIAK

2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 1. apartatuan arrazoi hauek ezarri dira eskaintzak baztertzeko:

Erakunde delitugile batean parte hartzea².

Ustelkeria³. Iruzurra⁴.

Terrorismo-delituak edo terrorismo-jarduerei lotutako delituak⁵.

Kapitalak zuritzea edo terrorismoa finantzatzea⁶.

Haurren lana eta gizakien beste salerosketa mota batzuk⁷.

Zigor-kondenei buruzko arrazoiak, 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 1. apartatuan jasotako arrazoiak aplikatzeko xedapen nazionalak jarraituz⁸.	Erantzuna
Epai irmo bidezko kondena ezarri al diote operadore ekonomikoari edo beraren administrazio-, zuzendaritza- edo gainbegiratzeko organoko edozein pertsonari, edo horiek ordezkatzeko, haien izenean erabakiak hartzeko edo haiek kontrolatzeko ahalak dituen norbaiti, goian adierazitako arrazoiak batengatik? (betiere, baldin eta epai hori aurreko bost urteetan eman bada, eta oraindik aplikagarria den baztertzeko epe bat ezarri bazen epaian)?	☐ Bai ☐ Ez

¹ Adierazi azpikontartistak, baldin eta hala eskatzen bada kontratuaren klausula espezifikoan 14.2 klausulako a) letran. Adierazi baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan eskatzen diren datuak.

² Delinkuentzia antolatuen aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2008/841/JAI Esparru Erabakiaren 2. artikuluan jaso den definizioaren arabera (2008ko urriaren 24ko Esparru Erabakia; 2008-11-11ko 300. AO L. 42. or.).

³ Europako Erkidegoetako edo Europar Batasuneko estatu kideetako funtzionarioen parte-hartzea duten ustelkeria-egintzen aurkako borrokari buruzko hitzarmenaren 3. artikuluan (1997-06-25eko 195. AO C, 1. or.) eta Sektore pribatuko ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2003ko uztailaren 22ko 2003/568/JAI Esparru Erabakiaren 2. artikuluko 1. apartatuan (2003-07-31ko 192. AO L, 54. or.) definituta dagoen bezala. Baztertzeko arrazoi horretan kontuan hartzen da botere edo entitate adjudikatzailearen edo operadore ekonomikoaren legeria nazionalen ustelkeriari eman zaion definizioa ere.

⁴ Europako Erkidegoetako finantza-interesen babesari buruzko hitzarmenaren 1. artikuluan ulertzen den moduan (1995-11-27ko 316. AO C, 48. or.).

⁵ Terrorismoaren aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2002/475/JAI Esparru Erabakian jaso den definizioaren arabera (2002ko ekainaren 13ko Esparru Erabakia; 2002-06-22ko 164. AO L, 3. or.). Baztertzeko arrazoi horren barne hartzen dira delitua egiteko indukzioa edo konplizitatea, bai eta delitua egiteko saiakuntza ere (Esparru Erabaki horretako 4. artikuluan jasota dagoen bezala).

⁶ Finantza-sistema kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko ez erabiltzeko buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE Zuzentarauaren 1. artikuluan jasota dauden bezala (2005eko urriaren 26ko Zuzentzaraua; 2005-11-25eko 309. AO L, 15. or.).

⁷ Gizakien salerosketaren aurkako borrokari eta prebentzioari buruzko eta biktimak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentarauaren 2. artikuluan jasota dagoen bezala (2011ko apirilaren 5eko Zuzentzaraua; 2011-04-15eko 101 AO L, 1. or.). Zuzentzarau horrek Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru Erabakia ordeztzen du.

⁸ Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko a) letrak kontratatutako debeku-egoera hau ezartzen du: *"Epai irmo bidezko kondena jaso izana honako delitu hauengatik: terrorismoa; antolakunde edo talde kriminal bat eratu edo integratzea; zilegi ez den elkartzea; alderdi politikoaren lege kanpoko finantzaketa; gizakien salerosketa; negozioetako ustelkeria; influentzia-trafikoa; funtzionario-eroskeria; iruzurrak; Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak; langileen eskubideen aurkako delituak; prebentzioa; bidegabeko eragiltzea; funtzionarioei debekatutako negozioak; kapitalak zuritzea; lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren aurkako delituak, eta ondare historikoaren eta ingurumenaren babesaren aurkakoak; edo lanbidean, ogibidean, industrian edo merkataritzan aritzeko desgaitasuna bereziaren zigorra jaso izana. Kontratatzeko debekuak hauek ere hartuko ditu barnean: erantzule penal deklaraturako pertsona juridikoak, bai eta zuzenbidezko nahiz egitatezko administrazioaile edo ordezkariak apartatu honetan aipatzen den egoeran dauzkatenak ere, karguak edo ordezkariak indarra duen bitartean eta kargua uzten duten arte".*

	Baldin eta dokumentazioa formatu elektronikoan badago, adierazi datu hauek: (web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde edo agintaritzaren dokumentazioaren erreferentzia zehatza): [...] [...] [...]¹
Erantzuna baiezkkoa bada , adierazi datu hauek²: a) Kondenaren eguna, zein puntu den (1. puntutik 6. puntura) eta kondena ezartzeko arrazoiak: b) Kondena jaso zuen pertsonaren identifikazioa []: c) Kondenan bertan ezarrita baldin badago:	Eguna:[]; puntua(k): []; arrazoi(a)(k): [] [] Baztertze-epearen iraupena: [...]; zer punturekin dagoen lotuta: []. Baldin eta dokumentazioa formatu elektronikoan badago, adierazi datu hauek: (web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde edo agintaritzaren dokumentazioaren erreferentzia zehatza): [...] [...] [...]³
Kondena ezarri bada, neurririk hartu al du operadore ekonomikoak sinesgarritasuna erakusteko, nahiz eta baztertzeko arrazoi egokia egon (autozuzenketa)⁴?	☐ Bai ☐ Ez
Erantzuna baiezkkoa bada , deskribatu hartutako neurriak⁵:	[...]

B: ZERGAK EDO GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOAK ORDAINTZEARI BURUZKO ARRAZIOIAK

Zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzea	Erantzuna	
Operadore ekonomikoak bete al ditu zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko betebeharrak guztiak, bai ezarrita dagoen herrialdean bai botere edo entitate adjudikatzailearen estatu kidean⁶ (baldin eta ez badira herrialde bera)?	☐ Bai ☐ Ez	
Erantzuna ezezkoa bada , adierazi datu hauek: a) Herrialdea edo estatu kidea: b) Zenbatekoa: c) Arau-haustea nola ezarri den: c1) Administrazio-ebazpenaren edo ebazpen judizialaren bidez: - Ebazpen irmoa eta loteslea al da? - Idatzi kondenaren edo ebazpenaren data. - Kondena baldin bada, eta kondenan ezarrita baldin badago , baztertze-epearen iraupena. c2) Beste bide batzuen bidez. Zehaztu. d) Operadore ekonomikoak bete al ditu zituen betebeharrak, ordainketaren edo akordio loteslearen bidez, zor dituen zergak edo	Zergak	Gizarte-kotizazioak
	a) [...] b) [...] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - [...] - [...] - [...] c2) [...] d) ☐ Bai ☐ Ez	a) [...] b) [...] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - [...] - [...] - [...] c2) [...] d) ☐ Bai ☐ Ez

¹ Behar beste aldiz errepikatu.

² Behar beste aldiz errepikatu.

³ Behar beste aldiz errepikatu.

⁴ 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 6. apartatuaren arabera aplikatu beharreko xedapen nazionalekin bat etorritu.

⁵ Azalpenean erakutsi beharko da hartu diren neurriak egokiak direla egin den delitu mota kontuan hartuta (delitua behin gertatu bada, edo behin baino gehiago, edo sistematikoki eta abar).

⁶ Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko a) letrak kontratatze debeku-egoera hau ezartzen du: "Epaia irmo bidez kondena jaso izana, honako delitu hauengatik: [...] Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak [...]"; apartatu bereko d) letran ezarrita dago hauek direla kontratatze debekuak: "Indarrean dauden xedapenek ezarritako tributu-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez edukitzea, erregelamenduz zehaztutako moduan"; eta hauxe dago ezarrita apartatu bereko f) letran: "Administrazio-zehapen irmo baten ondorioz ezarritako kontratatze debekuren baten eraginpean egotea, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituz".

Gizarte Segurantzako kotizazioak eta, hala dagokionean, sortutako interesak eta ezarritako isunak ordaintzeko?	Erantzuna baiezkua bada, zehaztu: [...]	Erantzuna baiezkua bada, zehaztu: [...]
Baldin eta zergen eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketari buruzko dokumentazioa formatu elektronikoan badago, adierazi datu hauek:	(web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde edo agintaritzaren, dokumentazioaren erreferentzia zehatza) ¹ : [...] [...] [...] [...]	

C : KAUDIMENGABEZIARI, INTERES-GATAZKEI EDO HUTSEGITE PROFESIONALARI BURUZKO ARRAZOIAK²

Kaudimengabezia, interes-gatazka edo hutsegite profesional posible guztiei lotutako informazioa	Erantzuna
Zure uste eta jakituriaren arabera , operadore ekonomikoak urratu al ditu lan, gizarte eta ingurumen arloetako legeetan ezarritako betebeharrak ³ ?	☐ Bai ☐ Ez Erantzuna baiezkua bada , neurririk hartu al du operadore ekonomikoak sinesgarritasuna erakusteko, nahiz eta baztertzeko arrazoia egon (autozuzenketa)? ☐ Bai ☐ Ez Neurriak hartu baditu , adierazi zeintzuk: [...]
Egoera hauetako batean al dago operadore ekonomikoa? ⁴ Porrota Kaudimengabezia- edo likidazio-prozeduraren mende dago Hitzarmena egin du hartzekodunekin Antzeko ezaugarriak dituen eta lege- eta arau-xedapen nazionaletan indarrean dagoen prozedura bati lotutako egoera batean dago Likidatzaile edo auzitegi batek administratzen ditu aktiboak Bertan behera utzi zaizkio enpresa-jarduerak Erantzuna baiezkua bada: Zehaztu: Adierazi zein arrazoi oinarri hartuta den operadorea, hala ere, kontratua beteazteko gai, inguruabar horietan jarduera egiten	☐ Bai ☐ Ez [...] [...]

¹ Behar beste aldiz errepikatu.

² Ikusi 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 4. apartatua. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da baztertzeko arrazoi hauek lege nazionalen arabera ulertu behar direla, kasu zehatz bakoitzean adieraziko den bezala.

³ Kontratazio honen ondorioetarako, lege nazionaletan, kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan, edo 2014/24/EB Zuzentarauaren 18. artikuluko 2. apartatuan jasota dagoen bezala.

Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko b) letrak kontratatze debeku-egoera gisa ezartzen du: zehapen irmo bat jaso izana:

a) lan- edo gizarte-arloan arau-hauste oso astuna egiteagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera, bai eta testu horren 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste astuna egiteagatik ere.

b) ingurumen arloan arau-hauste oso astuna, indarreko araudian ezarrita dagoenaren arabera.

SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko d) letrak kontratatze debeku-egoera hau ezartzen du: "[...] 50 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, enplegatuen % 2 gutxienez desgaitasunen bat duten langileak izatearen betekizuna ez betetzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan, testu bateginaren 42. artikularen arabera, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzekin".

⁴ Ikusi legeria nazionala, kontratazioaren iragarkia edo baldintza-agiriak. Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko c) letrak dio hauek direla SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako entitateekin kontratatze debekuak "hartzekodunen konkurtsoan deklaratu egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu edo ordainketetarako akordio estrajudizial bat hasi bada), esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik".

jarraitu ahal izatearekin lotuta aplika daitezkeen xedapen eta neurri nazionalak kontuan hartuta ¹ . Baldin eta dokumentazioa formatu elektronikoan badago, adierazi datu hauek:	(web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde edo agintaritza, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): [...] [...] [...] [...]
Operadore ekonomikoa hutsegite profesional astun baten erruduntzat jo dute? ² Erantzuna baiezkkoa bada, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez [...] Erantzuna baiezkkoa bada, neurri autozuzentzailerik hartu al du operadore ekonomikoak? ☐ Bai ☐ Ez Neurriak hartu baditu, adierazi zeintzuk: [...]
Operadore ekonomikoak akordiorik egin al du beste operadore ekonomiko batzuekin lehia faltsutzeko ³ ? Erantzuna baiezkkoa bada, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez [...] Erantzuna baiezkkoa bada, neurri autozuzentzailerik hartu al du operadore ekonomikoak? ☐ Bai ☐ Ez Neurriak hartu baditu, adierazi zeintzuk: [...]
Operadore ekonomikoak ba al daki interes-gatazkarik sortu den berak kontratazio-prozeduran parte hartzeagatik ⁴ ? Erantzuna baiezkkoa bada, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez [...]
Operadore ekonomikoak edo berarekin lotuta dagoen enpresaren batek aholkularitza eman al dio botere edo entitate adjudikatzaileari, edo beste moduren batean parte hartu al du kontratazio-prozedura prestatzen ⁵ ? Erantzuna baiezkkoa bada, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez [...]
	☐ Bai ☐ Ez

¹ Ez da informazio hori eman behar izango baldin eta operadore ekonomikoa baztertzeko arrazoia a) letratik f) letrara jaso diren kasuetako bat bada, eta nahitaezkoa baldin bada legeria nazionalaren arabera. Horretan ezin da salbuespenik egin, nahiz eta operadore ekonomikoa kontratua betearazteko baldintzetan egon. SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko c) letran xedatuta dagoena bete beharko da.

² Hala badagokio, ikusi legeria nazionalan, kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan emandako definizioak. Puntu honetan, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko b) letran xedatutakoa bete beharko da. Bertan ezarrita dagoenez, SPKLren 3. artikuluan aurreikusten diren entitateekin kontratuak egitea debekatuta daukate **“zehapen irmo bat jaso dutenek arau-hauste astuna egiteagatik lanbide-arloan [...]”**.

³ Legeria nazionalan, kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera. Puntu honetan, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko b) letran xedatutakoa bete beharko da. Bertan ezarrita dagoenez, SPKLren 3. artikuluan aurreikusten diren entitateekin kontratuak egitea debekatuta daukate **“zehapen irmo bat jaso dutenek arau-hauste astuna egiteagatik [...] lehia faltsutzearen arloan”**.

⁴ SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko g) letrak kontratatzeke debeku-egoera hau ezartzen du: **“Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legean, autonomia-erkidegoetako arauetan edo Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aipatutako kasuren batean sartuta egotea pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren administrazioaileak, edota Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargudun izatea, bertan ezarritako baldintzetan. Aurreko paragrafoan aipatzen diren langileek eta goi-kargudunek edo administrazio horien zerbitzura diharduten hautetsiek pertsona juridiko baten kapitalean parte hartzen badute, aipatutako legerian zehaztutako moduan eta zenbatekoekin, pertsona juridiko hori ere debekuaren barruan sartuko da. Debekuak berdin hartzen ditu, bi kasuetan, aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen ezkontideak, bizikidetzak afektiboz horien antzeko lotura daukaten pertsonak, aurrekoak eta ondorengoak, bai eta bigarren mailako odol- edo ezkontza-ahaiak ere, baldin eta interes-gatazka sortu bada kontratazio-organismoaren titullararekin edo kontratatzeke ahalmena delegatua duten organoetako titullararekin edo kontratazio-organismoaren titullararen ordezkoeekin.”** Halaber, h) letrak dio hauek ere badirela kontratatzeke debekuak: **“Kargu bat utzi ondorengo bi urteetan karguaren eskumenekin zuzenean erlazioan dutako enpresa edo sozietate pribatuetan zerbitzuak eman dituzten pertsonak kontratatu izana, eta pertsona horiek Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 15.1 artikuluan edo autonomia-erkidegoetako arauetan aipatutako ez-betetzearan erori izana eta hori «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean argitaratu izana. Kontratututako pertsona enpresako antolaketa dagoen bitartean iraungo du kontratatzeke debekuak, eta, gehienez ere, bi urtez, goi-kargua uzten duenetik aurrera”**.

⁵ Ikusi SPKLren 70.1 artikulua (**“Bateragarritasun-baldintza bereziak”**).

Operadore ekonomikoak hutsalketa aurreraturik izan al du aurreko kontratu publikoren batean, entitate adjudikatzailerik batekin egindako aurreko kontraturen batean edo lagapen-kontraturen batean? Edo kalteen eta galeren erantzukizunik edo antzeko beste zehapenik ezarri al diote kontratu horrekin lotuta?¹ Erantzuna baiezkkoa bada, zehaztu:	[...] Erantzuna baiezkkoa bada, neurri autozuzentzailerik hartu al du operadore ekonomikoak? ☐ Bai ☐ Ez Neurriak hartu baditu, adierazi zeintzuk: [...]:
Operadore ekonomikoak berretsi al dezake... ...ez dela erruduntzat jo faltsutze-delitu astunagatik baztertzeko arrazoirik ez dagoela edo hautaketa-irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko informazioa eman duenean²; ...ez duela informazio hori ezkutatu; ...berandutu gabe aurkeztu ahal izan dituela botere edo entitate adjudikatzailerik eskatu dituen ziurtagiriak; eta ...ez dela saiatu eragina izaten botere edo entitate adjudikatzailerik erabakiak hartzeko prozeduran; ez dela saiatu informazio konfidentziala lortzen kontratazio-prozeduran bidegabeko abantailak eskuratu ahal izateko; eta ez dela saiatu baztertzeko, hautatzeko edo adjudikatzeko erabakietan eragin garrantzitsua izan dezakeen informazioa zabarkeriaz ematen³?	☐ Bai ☐ Ez

¹ SPKLren 71. artikuluko 2. apartatuko c) letrak kontratatze debeku-egoera hau ezartzen du: “Kontratuan funtsezkoak diren klausulak bete ez badituzte –202. artikularekin bat etorritik kontratua betearazteko ezarritako baldintza bereziak barne–, ez-betetze hori baldintza-agirietan edo kontratuan arau-hauste astuntzat jotzen denean eta tartean enpresaburuaren doloa, errua edo zabarkeria izan denean, eta betiere zigorrak ezarri badira edo kalte-galerak ordaindu badira” eta hauxe dago ezarrita zenbaki bereko d) letran: “Lege honen 3. artikuluan azaldutako erakundeetatik edozeinekin egindako edozein kontraturen suntsiarazte irmoa eragin badute eta suntsiarazte-arrazoi horren errudun jo badituzte”.

² SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko e) letrak kontratatze debeku-egoera hau ezartzen du: “140. artikuluan (SPKL) aipatzen den erantzukizunpeko deklarazioa egitean edo gaitasunari eta kaudimenari buruzko deklarazioan datu faltsuak eman izana edo 82.4 artikuluan (saikapenari buruz) eta 343.1 artikuluan (lizitatzailerik edo enpresa saikatuen erregistroei buruz) aurreikusitako informazioa jakinarazteko beharra bete ez izana beraiei egotzi ahal zaizkien arrazoiengatik”, eta 71. artikuluko 2. apartatuko a) eta b) letrak: “Adjudikatzeko prozedura batean beren proposamena edo hautagaitza bidegabeki erretiratu badute; edo kontratua beren alde adjudikatzeko eragotzi badute, 150. artikuluan 2. apartatuan ezarrita dagoena epe barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria dela medio” eta “Beren alde adjudikatutako kontratua formalizatzeari utzi badiote, 153. artikuluan aurreikusitako epeetan, adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik”.

³ SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko c) letrak kontratatze debeku-egoera hau ezartzen du:

D: BOTERE EDO ENTITATE ADJUDIKATZAILEAREN ESTATU KIDETIKO LEGERIA NAZIONALEAN EZARRITA EGON DAITEZKEEN BAZTERTZEKO BESTE ARRAZOI BATZUK

Baztertze arazoi nazionalak (nazionalak bakarrik)	Erantzuna
Aplikagarriak al dira kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan eskatzen diren baztertze arazoi nazionalak (nazionalak bakarrik)¹? Baldin eta kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan eskatutako dokumentazioa formatu elektronikoa badago, adierazi datu hauek:	☐ Bai ☐ Ez (web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde edo agintaritza, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): [...][...][...][...]²
